


Nikolas Zendoia

Beranduko birigarroa



Beranduko birigarroa

Auspoa Liburutegia
254

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tel. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OLARTZUN (Gipuzkoa)

Nikolas Zendoia

Beranduko birigarroa

Auspoa Liburutegia
(1998)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-66-6

Legezko Gordailua: S.S. 466/98

Itzaurrea

Kaixo, adiskide.

Bai. Zuri ari natzaizu. Zure eskuetan artu nauzun ezkerro, jakin ezazu BERANDUKO BIRIGARROA izenez kaleratu dedan liburuxka au egiteko zer arrazoik edo zerk bultzatu didan, neure berrogeita amazapi urterekin.

Azken aldi ontan bertso-paper-leiaketetarako egindako bertso-pilla bat neukan kajoian jasota, orietako batzuk sarituak ere bai; baita ere mutil koskorra nintzan garaiko gertakizun-mordoxka bat idatzita, nere biurrikeri aiek ez aaztutzearren. Gero, ba, badakizu: bizitzan aurrera goazen bezela gauza asko ikusten da, ta or neure irudipen batzuk eta abar ere jarriak nituen.

Ala, egun batez, Antonio Zavala azaldu zan gure etxera. Eta esan nion zertan ari nintzan:

—Aitona eginda gero asi naiz idazten. Beranduko birigarroa...

—Pozten naiz. Bazenduan garaia. Ta asi bazera, jarrai. Ta gorde lan danak. Egunen batean, liburu bat ea osatzen dezun.

Eta, pixkanaka, orixe lortzera iritsi naiz. Azkenean, bi ataletan banatu ditut lanak: oroitzapenak eta bertso-sortak. Nere bertsolaritza, berriz, ezer gutxi ikutu det. Bestalde, baita ere iruditu zait ni bezela-

ko gutxi jakiñaren berezkotasuna, bere piper ta gatz, apal kaleratzea ongi legokeela.

Piperra ta gatz aiatatu dizkizut, lagun. Ba, bai. Ni aalegindu naiz nere mailla txikian, irakurlea ez aspertzeko eraren billa. Alegia, idazlanak eta bertsoak elkarrekin uztartzen, eta gero banaka batzuk argazkiz apaintzen.

Nere ustez, liburuxka auetako bat gaur egun idatzi utsez guztiz zozoa da. Eta, gaiñera, esango nuke nagikeritxo bat ere badela: batek badakiela idazten, ta idatzi. Eta alderantziz ere antzeko zerbait gertatzen da: bertso utsez dagoen liburu bati erabatekoegia derizkiot, atsedenek gabekoa. Izan ere, irakurleari aukera eman bear zaio, alai irakurri dezan. Au da: berreun orrialdeko liburuxka batekin ez dezala kok egin. Nik beintzat aalegin ori egin det. Ala ere, galtzak bete lan izango det asmatzen. Gaiñera, leenengo alea det au, ta mirariak zaillak dira egiten.

Eta itzaurre motx au bukatzeko, badauzkat, Antonio Zavala ez ezik, beste batzuk ere eskertu bearrekoak: Pello Esnal bat, nere idazlan guztiak ordenagailluz ongi ordenatu dizkidalako; ta, nola ez, Joakin Berasategi; liburuxka au kaleratzeko prest eta gogotsu dagoelako. Milla esker irurei biotzez.

Aspertuko ez zaitudan itxaropenez, BERANDU-KO BIRIGARROA onekin uzten zaitut, lagun. Gero arte.

Nikolas Zendoia

Zarautzen, 1997ko abenduaren 26an

Oroitzapenak

Mutil-koxkorretan

NI ere izan nintzan mutiko, aspaldi batean,
adiskide. Nai al dituzu jakin zer trakeskeri
egiten nituen?

Agur ta erdi, lagun,
zuga naiz zorretan,
idatzizko bertsoen
sail polit orretan;
orra, berrogeita amar
ale jatorretan,
zer egiten nituen
mutil-koxkorretan.

Izeta

AIAKO Izeta baserrian jaio nintzan ni, 1941eko ilbeltzaren 2an. Amar senide izan giñan. Leenengo, bi nexka. Aiek, jaio ta bereala il omen ziran. Gero, iru mutil: Felix zana; ni, Nikolas; eta Joxe. Gero, beste bi nexka: Mari Tere ta Mari Karmen. Eta gero beste iru mutil: Esteban, Aurelio ta Dionisio. Gaur zazpi bizi gera, ni zaarrena naizela.

Aia oso zabala da mendiz. Badu amaika koxka ta pendiz. Bi Izeta dira: goikoa eta beekoa. Gu beekoak gera. Zarautzik Urdanetara bidean daude biak; erdi-bidean edo orrela. Aiako errira oso gutxi joan oi giñan. Gu dana Zarautza ibiltzen giñalako: medikuz, elizaz, eta abar.

Bi Izetetan artu-eman aundia zan. Oso ondo eramaten ziran bi auzoak, geroxeago esango dedan bezela.

I Izeta baserria
zan nere sorleku.
Andik luzatu nion
bizitzari esku.
Aginduak betetzen
ez ninduzun prestu,
galtzetan lasai eta
jeniotan estu.

2 Zazpi urtetarako
baztar danak naasten,
dotriñarik ez nuen
askorik ikasten,
bai ordea abarkak
mantarrekin jazten...
Utzi ote zidaten
bear ainbat azten?

Dotriña

DOTRINA aitatu det. Bagenuen eskola Izetan. Bi etxeren artean maixtra bat edukitzen genuen. Gure etxean, apaldu, lo eta gosaldu. Lan-txoren batzuk ere egingo zituen arek: gero logela txukundu eta abar. Eta bestekoan, berriz, eskola eman egun guztian, bazkaldu... Eguna an pasatzen zuen. Eskola, aldeko sala genuen. Guk auzoari beti *aldekoa* deitzen genion: aldeko aita, aldeko ama eta gaiñontzekoak.

Ba, eskola arek neretzat oroitzapen asko du, antxe ikasi nituen *a, e, i, o, u* ta. Nere unibertsitatea ura zan. Ori mutiko-garaian. Andik amalau bat urtetara, nere leenengo bertso-saioa antxe egin nuen, konbidatu-edo joanda, jende aurrean. Zer gertakizun otxana!

Baiña nijoan zein maixtra genuen esatera. Amasei urterekin etorri zan Izetara. Altzola Mendaroko Mizpiribar etxekoa. Bere izena Laura Etxabe. Laurita deitzen genion. Leenengo, errezatzen erakutsi zigun. Gero, liburuxka xamur bat, *Jesusa*, letra aundi batzuekin. Gero, katona. Arek letra ugaria-goa zuen. Eta gero, azkenekoa: dotriña xaarra. Ori zuen bere izena. Azal-oria, txikia, amasei bat zentimetro luze, bederatzi bat zabal, ogeita amar bat orrialde, dana euskeraz idatzia. Andik asko ikas zezakeen gizonak, naiz latinez eduki kirieleisonak.

Maai gaiñean, zigor mee bat eduki oi zuen maixtrak. Metro bat luze-edo, ta meea. Urritzmakilla, baiña azala kenduta. Min geiago ematen zuen azalik gabeko makillak. Puskatzen zanean, txandaka ekarri bear izaten genuen makilla, txintxo asko.

Belauniko bi besoak zabaldua sarri egon oi giñan. Bai ikasi ere: *sumar, restar, multiplicar* eta *dividir*. Gero, problemak. Ala deitzen zitzaien zirriborro aiei. Problemak orduan ere zaillak ziran. Oraingoak ez dira askoz errezagoak.

Nik ikusten nuenean "gaur lezio zailla diagu", zerbait asmatuko nuen: aitarekin itulara edo tripa-ko miña. Mutiko biurri xamarra nintzan ni: igarra, kalpar-tentea, muki-jario...; baiña bizkorra. Itulara-ko ere beti ni bear izaten ninduten.

1 Auxen egiten nuen
makiña bat bider:
nunbait ezkutatu ta
eskolatik piper.
Nere norabideak
ezin iñork iker.
Alukeri aietan
bai nintzala lider.

2 Urrengo egunean
erne maixtra Laura,
bazetozen galderak
irutikan laura;
makil ximelarekin
jartzen bazan ura,
eman besterik ez zan
goxokiak aura.

- 3 Gaiztakeri zigorrak
asko ditut ara:
soro-garaian, "aizak,
benga itulara".
Nere jolas-orduak
beti pikutara.
Azkenerako egin
nintzan titularra.
- 4 Txapel txulodun ura
gogoan det eta
alkandora pintoa
lejeak erreta,
galtza grisak petatxo
urdiñez beteta
ta botoiak auzoan
zituen brageta.
- 5 "Aida gora!, jatx beera!",
atzetik itz-otsa,
ganaduek ulertu
oi duten abotsa.
Idi-parea ez zan
lanerako lotsa,
Trakino gorria ta
Txato adar-motza.
- 6 Bost-ortza, karramaru,
golde eta are,
gurdi, lera ta aitxur,
sega, eskuare,
aizkora, trontza, aiotz,
iru-lau lai-pare...
Tresna aiek baziran
tratoreen pare.



*Amabi urte nituenean. Jaunartze nagusiko argazkia.
Korbata, lazo, traje, liburu, gurutze, esku-estalki eta lore...
ez al nago, bada, dotore? 1953.*

Zarauzko Azken Portu

ZARAUTZA oso txikia nintzala joaten asi nintzan, aitarekin perratokira eta abar.

Azken Portu ostatua oso ezaguna zan, gaur bota badute ere. Ostatu atzean, bazan Manuel erreroa. *Errero aundia* deitzen genion. Gizon aundia, perratzaille ona. Il berria da.

Azken Portu ostatu ura, garai batean, Basarri bertsolari aundiaren gurasoak eduki omen zuten. Gero, ostatuaren gainean bizi zirala ezagutu nituen nik.

Basarriren ama, zer emakume on xamurra! Ize-tan aurren bat jaiotzen zanean, bisitara ere joan oi zan. Emakume ura izketan entzutea eta ikustea zan irudi aaztu eziñezkoa. Basarriren aita ez nuen ezagutu.

Azken Portu jende askoren ostatu zan, bertako familia oso jende ona zalarik. Sartu-irten aundia zuen.

Erreroak idiak perratu bitartean, egiten nituen bi lan: Azken Portun gosaldu, eta *Napar-txikirengana* joanda illea moztu, aurrean mototsa ta atzean zero. Baiña ez da gezurra ostatuetan era askotako jendea ikusten dala.

- 1 Iñoiz perratokira
joaten giñanean,
aitarekin izaten
nintzan geienez.
Gero mokadutxo bat
ostatu barnean,
bitartean *Errero*
aundia lanean.
- 2 Bein, olaxe akuillu,
soka ta alanbre:
“bokadillo txiki bat,
zu, etxekoandre”.
Neri begira parrez
erderaz bi *hombre*:
“*Mírale a ese chaval,*
qué cara de hambre”.
- 3 Gabardina apaiñez
sonbrerodun biak,
makilla eskuan ta
ustu baxo-erdiak.
Katuen bigoteak,
axeri-begiak,
ez zituzten nik bezain
kolore gorriak.

Arreba txikiagoari besoa autsi

ETXE-ATARIAN, zelai txiki bat genuen. *Atariko zelaia* zuen izena. An biltzen giñan etxeko eta inguruetako ume guztiak.

Beingo batean, arreba ta biok jolasean genbiltzan. Nik banituen bi oitura oso neureak: bat, sudurraren puntan makilla tente edukitzea; eta bestea, bi eskuak eta burua lurrean jarrita, anka biak goian nituela egotea. Arrebak Mari Tere zuen izena.

Ura neri begira ta ni anakak goian nituela neureak egiten, nun erortzen naizen, *danba!*, arrebaren gainean, eta besoa autsi.

Orain makiña bat aldiz botatzen dit aurpegira:

—Bai. Ik autsi idan neri besoa, eure aundikeriak egitearren!

—Aizan, egia den.

I Gu biok jolasean
ta ama baratzen,
ni, leenengo, anka bi
gora ezin altzan.
Andik berealaxe,
urrengo balantzan,
nola erori nintzan
gogoratzen al zan?

- 2 I ere zirikatzen
intzanan asiko.
Ez niñunan tentetu
ni egun guziko.
Alde egin baunan
euk leendabiziko,
beso bixartsu ura
ez niñan autsiko.
- 3 Ez unan giro gure
etxeko sermoian.
Zer armoni osaba,
aita ta morroian:
“Ankak beaitek beean
ta burua goian!
Orain afaldu gabe
sartu adi oian!”.
- 4 Donostian bazala
doktor Jeronimo,
aruntz eramateko
guztiak animo.
Medikuak erderaz,
ik erantzun sí, no...
Geroztik jaso unan
makiña bat mimo.

Beor gorria

GURE etxean bazan etsai guztiak berekin zituen beor kaskaillu bat, atze-ariña. Bi anken gaiñean ere maiz jarri oi zan. Ortz zuri aiek ere bazekien erakusten.

1 Beor gorri gaizto bat
ere bagenduan,
arro maiatzean ta
umil abenduan;
sarri berari zamak
ezin zuzenduan,
zenbat aldiz ostikoz
jo ote ninduan?

2 Gogorra zan bizkarka,
bizia lorretan,
bazuen indarra goi
ta bee orretan,
etsitzen ez zuena
busti-legorretan...
Aberre zaillak asko
dira beorretan.

3 Baiña beingo batean
naiko larritu zan:
arbitan gabiltzala
ia garbitu zan,
bere zama ta guzti
seko amildu zan...
Arroa bazan ere,
bapo umildu zan.

Oillo loka

GURE txiki-denboran, baserri guztietan izaten ziran oillo lokak, txita-talde bikaiñarekin. Gure etxean ere baziran. Ni txitekin ondo konpon-tzen nintzan, orea emanaz. Baiña lokarekin argi ibili, eta obe.

Iñoiz ez zait aaztuko
gure oillo loka,
talde ederrarekin,
noiznai *kloka-kloka*.
Nik txita arrapatzen,
betiko borroka.
Ark ere egin zidan
amaika mokoka.

2 Goiz batean aizkoraz
moztu nion anka.
Ala ta guztiz ere
txolin arek anka.
Berriz arrapatu ta
bigarrena kanka...
Oker ura ez zidan
iñork ere barka.

3 Burutapen okerrak
nitun edukiak.
Neretzako amaitu
ziran errukiak.
Urrengo egunean
gozoak jakiak:
besteek oillo-jana;
nik, berriz, mukiak.

4 Arraiokeriren bat
bearko zan sortu,
orretan ez bainintzan
iñoiz azken portu:
ardo gozoz oillasko
pintoa mozkortu...
Zaputza pasatzea
ola nuen lortu.

5 Ekin dio jiraka
kanta eta kanta.
Or zeak labepera,
tilinti-talanta.
Lau egunera irten
mozkorra pasata.
Lepo soil-soillarekin
azi zan galanta.

Txakur beltza

NOIZBEINKA agertzen zitzaigun txakur beltz kaiku bat Izetara.

— Ire bearrik ez diagu. Bestela ere txakurra obeto zegok Izetan.

Baiña egongo zan txakur emeren bat, eta arek jakin. Itsusiagoa zan hipopotamoa baiño ere.

Guk mutikoak egin genuen billera:

— I, orri zerbait egin bear zioagu.

Gaiñera, agiñak erakusten zizkigun.

1 Txakur beltz kaiku arek
zigula eraso.
“Akatu bear diau,
sokari bi lazo
lepotikan lotuta
zintzilika jaso”.
Inguratu giñuzen
zortzi zokor-mazo.

2 Erasotzen diogu
geure zirti-zartan,
emendikan iru-lau,
beste pare bat an.
Auxe erabaki zan
billerako kartan.
Artu zitun epelak
buru aundi artan.

3 Txandaka zokor-mazoz
burutikan kanka.
Guk zenbat zartadako,
arek ainbat zaunka.
Oartu da aitona,
badator eztulka.
Asitako lanikan
ez genuen buka.

Txerri iltzea

TXERRI-TALDE ederrik ere azi oi zan gure baserrietan. Amar edo amabiko txertaldeak nun-nai baziran. Txerri-tratura etorri izan ziran gizon bapoak, bruxa, txapel eta guzti.

Zarauzko feria zanean, gurdika txerria saltzera. Eta saltzen ez ziranak, berriro etxera, idi-pare dotore askoarekin.

Etxean ere, urtean txerri on bat botatzen zan. Txerri iltze oietako batean, pekatu bat egitea pentsatu nuen, bai, alajaiña! Alegia, neuk kendu bear niola leenengo pusketa.

Auzokoren batzuk izan oi ziran txerriari eusten: iru-lau gizon. Indarra bear izaten bait zan.

Eldu eta bota dute aulki gaiñera. Arakiña, gan-txoz eta kutxilloz erne.

— Ea, Praixku, azpiko beso orri eldu gogor. Joxe, Julian, atzealde ori seguru gero!

Zazti!, kutxillo luze ura. Parra-parra odola ontzira. Emakumeren bat odolari eragiten izaten zan, odola loditu ez zedin, odolkiak egiteko. Txerri potzoloa, kurrinkaz...

“Ba... Oraintxe dek nere garaia”. Sukaldeko aparetik guraiza aundi batzuk artu eta, beste danak euren lanean ari zirala, txerriari isatsa, *kask!*, moztu nion, eta amari eraman sukaldera, zartagian prejitu zezan. Baiña *hala, puñetas!* bidali ninduan. Eta isatsa leioz kanpora txakurrari.

— I, beti endredu-makilla olako egunetan! Alde egin zak emendik urrutira.

Nere abenturak leku ederrean gelditu ziran.

1 Gantxo, kutxillo zorrotz,
ontzi ta il-aulki,
txerri motza gaiñera,
eldu eta jaurti.
Oregano-aziak
odolari jaulki...
“Ea jaten ditugun
odolkiak aurki”.

2 Ondoren arrastaka
etxe-atarira.
Lastoz estali bere
gaiña eta jira.
Azken bizar kentzea
suaren argira.
Azalak garbitu ta
berriro aulkira.

3 Amonak esango zun
ederki il zela,
eutsitzaileak ere
portatu zirela.
“Garbitu eta maaian
eser ditezela”.
Bera aientzat oi zan
leenengo gibela.

4 Gibel, biotz, odolki,
xolomoa, kaixo.
Oiekin sendatzen da
makiña bat gaixo.
Irugiari, saieski,
nai ainbat txorixo...
Au ere kontatuko
dizut eta ixo.

Txorixoak egiten

TXERRIA il eta andik amabost bat egunetara, txorixo egitea izan oi zan. Goiz bat izendatuta zegoen amari laguntzeko. Eskolatik jai, *ja-jai!*

Baiña, zer gertatuko eta, auzoan umeren bat gaixo. Eta amak joan bearra izan zuen. Orduan, izan ere, auzoko amak eta amonak izaten ziran sendagille.

Beintzat, gure ama orrek esan zigun:

— Asi zaitetze txukun-txukun. Laster etorriko nauk eta.

Bai asi ere...

Goiz batez jarri gaitu
amak sukaldean.
Txorixoak egiten
bi anai gaude an.
Piper-autsa ta masa
an zeuden baldean...
Ura kuxidadea
amaikak aldean!

2 Ama joan zanean,
mutiko trasteak
“benga, i, kaniketan”,
artean gazteak.
Oilloek mokokatu
zituzten esteak,
txakurrak atarian
zebilzkin besteak.

3 Alperrik lotzea zan
aiek muturrean.
Xipristiña ugari
bazan sudurrean.
Baldea bueltaka
zebillen lurrean...
Tantaika txorixoa
ez zegon urrean.

4 Ta katuak, nola ez,
usai artu zuten.
Muturrak zein ederki
gorritu zituzten.
Urte aretan beintzat
penaz det esaten
ez genuela lanik
txorixoak jaten.

Akerrari lepoa autsi

BI Izetatan bazan gogoa joko-aariren bat edukitzeko. Orduan ere bazegoen bat, bera joko galduta. Etxeko jende eldua norabait joateko zai egoten giñan, geureren bat egiteko. Eldu zan eguna. Zer egun izango ta...

1 Iru-lau bat mutiko
biltzen giñanean,
izango zan zertxobait
biaramonean.
Gogoan det Ostiral
Santu egunean,
akerrari lepoa
autsi giñunean.

2 Jendea elizara,
guk etxe zaintzea.
Orduantxe komeni
zerbait asmatzea:
akerra aariakin
burrukan jartzea.
Gaizki irten zitzaion
goitikan jotzea.

3 Akerra lurrean ta
guk ezin jasuan.
“Saia bear diagu
berdin dan kasuan.
Aizak, i, Joxe, ura
ekarri kazuan”...
Eskutikan artoa
bapo jaten zuan.

4 Geureak genituen
olako okerrak.
Bhurriak bai baiña
ez giñan alperrak.
Naiz autsiak eduki
lepoko bazterrak,
artaburua jaten
badaki akerrak.

Zapoa gizendu

IZETAKO atarian bazan aritz aundi bat. Makiña batek badakite ori. Adar lodiz ornitua, gerri-moztaka, sustraiak agerian...; gure jolas-leku, eguzkitako itzal aundi dororea, ekaitzaldietako babesa... Zenbat txoriren kabi-toki? Zenbat ontzek uju egin ote zuten gabaz bere adarretan? Eta, jakiña, bere sustrai-zoloetan... zapoak.

1 Zugaitz aundi bat bazan
etxe-atarian.
Sustraietan zuloak
zeuzkan agerian.
Zapoak ere iñoiz
ziran ugari an.
Bat beintzat gordetzen zan
ederki gabian.

2 Jarri giñan uraxe
gizentzeko maniz,
zuloa egunero
bete ogi-mamiz.
Bataio-egunean
kikaraka anis
eta izena jarri
genion Extanis.

3 Txerri-tratalaria
alboan pasata:
“Zer dadukazue or?”.
“Zapoa galanta”.
Bruxadun gizon ari
eman giñun lata,
salduko geniola
gizendu zala-ta.

Mandioko tiroa

AITONAK geienean ongi artzen ginduzen. Arotz-lanetan ere laguntzen genion, pezeta-txoren bat ematen zigunean. Eskopeta zaarra gordeta nun zeukan ere erakutsi zigun beingo batean. Baiña kartutxoak nun zeuden ez zigun erakutsi. Ori geronek asmatu bear izan genuen, kutxa zaarra aztertzen egun-erdi bat kosta bazitzaigun ere.

1 Gu ez giñan egoten
jabonduta dutxan,
naikoa janda ere
ez iñungo luntxan.
Aitonak eskopeta
ganbarako kutxan...
Uraxe nork artuko
asten giñan lutzan.

2 Gure ausardietan
ziran baloreak.
Ura danbatekoa
kartutxo moreak!
Or datoz goitik beera
ormako kareak!
Astindu genituen
aumauma-sareak.

3 Bagenuen zigorra.
Nor gure kupiran?
Besoak zabaldua,
belaunak dirdiran.
Egun aietan gure
eskolaren jiran,
Santo Kristo bat baiño
geiago baziran.

Don Daniel, gure apaiz luzea

URDANETAN bagenuen apaiz aundi bat, gu mutikoak giñan garaian. Ni zirikatu gabeko onik ez zuen izaten.

Illero:

— Ez aiz etortzen aitortzera. Dotriña ikasten al dek? Aitagurea bai al dakik? Azentzio egunean berrogei kredo esan al ituan? Meza laguntzera etorri bear ukek.

Sekula olako apaizik...

1 Don Daniel luzea,
tailla aundikoa,
bi metroko apaiza,
Berastegikoa,
noizbait Urdanetara
etorritakoa.
Beean infernua ta
goian Jaungoikoa.

2 Monagillotarako
nai bere luzian,
engaiñatu nau beingoz
aalegin guzian.
“Amarrak alderako
nai aut ikusi an,
Korpus Kristi egunez
meza nagusian”.

3 Tunika, bere lizun-
-usain eta guzi,
sakristitik artuta
zidan jantzarazi.
Pixtu nituen ogei
bat kandela-zuzi
San Martin, San Isidro
eta San Luisi.

4 Kaliza Jaunarekin
jaso du leiora,
iru gurutze artu
ta prozesiora,
eskaillak goitik beera
eta beetik gora...
Kristonak esatera
gero kulpitora.

5 Intzensua pixtu du
alako batean,
potea dantzatzeko
eskuko katean.
Atzera ta aurrera
dabilkit botean...
Sakristau zaarra ia
jo det kopetean.

6 Jarri det traste ori
kea dariola,
ango *Tantum ergo* ta
ango epistola.
Apaizari txinparta
joan zitzaiola,
uste nuen sotanak
su artu ziola.

7 Gure antzerki ura
amaitu zanean,
ardo goxoa eman
zidan azkenean.
“Baiña baldarra aiz, i,
emengo lanean”...
Ez zuan berriz deitu
Korpus egunean.

Agur mutikotako garaia

Bertso onekin amaitutzen da
mutikotako roilloa.
Oroitzapenak oraindik ere
botatzen dute brilloa.
Gezur txiki bat ere ez da or;
egia, berriz, pilloa.
Norbaitek naiz ta esan lezakeen
“au dek au astakilloa”
ta beste batek idazkerari
ar lezaiokeen failloa,
okerrerako, zuzenerako,
bietarako kailloa,
denen aurrera askatua det
barrengo korapilloa.
Aitonak zuen birao txikia
nola zan? Errekoilloa!
Txakur ta beor, idi, oillasko,
akerra eta oilloa,
ezin aaztu zugaitz-zuloan
genuen apopilloa,
txerri potzolo, bere lukainka,
gantxoa ta kutxilloa...
Goseak ere iñoiz ez baiña
askotan bokadilloa.
Katarroakin zeundela eta
aguro karraskilloa.
Anka biurritu zala edo
edonor petrikilloa...
Don Danieli esker beiñepein
azkenik monagilloa.

Gazte-garaia Urdanetan

URDANETA Aia alderdiko auzo txiki bat da. Erritik ez da gertu. Zarauztik gertuago da: bost kilometrora; gure jaiotetxetik, Izetatik alegia, bi kilometrora.

Gure gazte-garaiko igandetako billera-leku Urdaneta izan zan. Goizetik mezatara joango giñan igandero; utsik egin gabe, jakiña. Eta arratsaldez edo illunabar aldera, geure joan-etorria. Erromeria baldin bazan, dantzan ere ibiltzen giñan.

Ni amabost urterekin asi nintzan igande-arratsaldeetan erabat joaten lagunekin. Dantzan, berriz, apaiz gazte batek esanda asi nintzan. Gure leengo apaiz don Daniel zaarra beste leku batera aldatu zuten. Gero don Ramon gaztea etorri zan. Leengo apaizak leio-zirrikiztutik egoten ziran erromeriari begira, baiña apaiz gaztea gurekin batera egoten zan dantzarietara. Eta bein ala esan zidan:

— I, Nikolas, zer egiten dek emen ontza bezela? Onako talde orretan mutil bat falta dek dantzarako. Iñoiz ez aut ikusi, ta gaur asi bear dek.

Ura zan nere leenengo dantza-saioa; dantza askatuan, alegia.

Garai aietan eman zuten dantza lotuan egiteko baimena ere; leenagotik pekatu bait zan. Baiña gu ibiltzen giñan bezela ibiltzea ere pekatu zan. Soiñu-

joleak lotuko dantza jotzen zuen. Eta asten giñan pixka bat elduta edo, baiña metro-erdi bateko tarte-arekin. Baldarrak bagiñan ere, ez genizkion elkarri anka-muturrak zapaltzen.

Bateko *Hijas de María* zirala, besteko “gaur olako mutilla ez al da etorri?”, neri geienean orrela-koak tokatzen zitzaizkidan.

Erromeririk ez bazan ere, pozik ibiltzen giñan. Pelotan pixka bat jolastu, edo musean giro txarra bazan... gu ez giñan aspertzen.

Illundutakoan, neskak garaiz etxeratzen ziran. Eta neska laguntzea izaten zan orduan. Linterna edo eskuko argia zuenak errezago egiten zuen neskekin konpontxo. Etxe-atarira iritsitakoan, kontu-mordoxka bat esan mandioko atearen ondoan, edo etxe-atariko lizarraren babesean, edo orrela. Eta muxu txikiren bat ematen uzten bazuen, aste guztirako poza.

Lasterka-saio ederrak egiten genituen, nesken atzetik abiatzean. Lokatz-zipristiña ugari astintzen genuen. Batzuetan bale, besteetan kale, baiña beti zale, artua naiz amaika kalabaza-ale. Neskak nai ez bazuen zurekin joan, *kalabaza* deitzen genion. Ez pentsa nik kalabazak dotriñan bakarrik artzen nituela. Bai neskatxengandik ere.

Gero, berriz, mutil danok ostatuan biltzen giñan. Gure lagunartea an egin oi genuen. Poltsikotan sei-zapi duro baziran, bokadillo bat jan eta musean elkarri begiak ateratzen.

Urdanetan, garai artan, bi ostatu ziran: bat serorategian eta bestea Patxi aundiaren taberna. Gu askotan Patxirenean egoten giñan. Izan ere, Patxi guretzat zer izan zan orain gogoratzen gera.

Patxik ez zuen emazterik. Ostatuko lanak bakarrik egiten zituen. Eta askotan iritsi eziñik ibiltzen zan.

Zenbat aldiz:

— Patxi, maai ontara lau bokadillo axkar-axkar.

— Ba... nik ez zeukat astirik, eta zeuok egin. An zeudek zartagia eta olioia; arrautzak apalean eta txorixo-txistorra zintzilik, ogia zakuan. Ea, txukun-txukun. Eta suari egurrak sartu, beste norbaitek ere bearko dik eta.

— I, Joan, aditu al dek? Txukun-txukun ibiltze-ko esan dik Patxik, e...

Ez genion trastadarik egiten, alako ona zalako. Maite genuen.

Bai. Samurra zegoen an txukun ibiltzea! Zartagia olioz beteko genuen, batzuetan su artzen zigun...; zipristiñak, berriz, leiotik kanpora; arrautza-azalak ankapera... An, su aurrean, tontorra egoten zan, arrautza-azalekin eginda, ankekin *karraska-karraska* otsa atereaz.

Gero, ordaindu bear genionean:

— Patxi, zenbat da?

— Zer jan dezue?

Txapelaren azpian eskua sartu, buruari atz egiñaz beera begira pixka bat egongo zan, eta esango zigun:

— Gaurkoagatik, zortzi pezta bakoitzak.

Ura zan Patxi, ura! Eta da. Orain ere Urdanetan bizi da Patxi. Zaar-tankera artzen ari du.

Sukalde xaar txiki artan, bazterrean, bazan maaitxo bat. Danok antxe egon nai izaten genuen. Baiña ez zan samurra maai ura utsik aurkitzea. Batez ere negu-garaian. Ango epela, ango goxoa! Suari egurrak sartu, musean jolastu, ipuiñak kon-tatu eta bertsoak kantatu.

Nik bizitzan askotan eskertu izan det, garai sano paketsu alai eder aiek gureak izan ziralako. Oroi-

tzapen onak dira aiek guztiak: plazako erromeria giro onean, mandioan txarra zanean, ostatuan ezer ez zanean, gero aste osoa lanean, eta San Martin jaiak eltzen ziranean, abarka berriekin joaten giñanean, oillaskoak biltzea irugarrenean, laugarrenez bildotsa oi zan geienez, gure festa geienak jan eta edanean...

Patxi aundiari

- 1 Ona bertso batzuek
Patxi aundiari.
Orrenbesteko zorra
badiot ari.
Bederatzi puntuan
bearko det ari.
Auxe egin dezaket
arentzat opari.
Bera ere ugari
egiña da guri.
Nai nioke ori
eskertu berari.
Ez dakit izango dan
naikoa sari.
- 2 Kaixo, Patxi, zer moduz?
Aspaldiko berri
askorik esan gabe
gaude elkarri.
Leen garai batean bai
noiznai edo sarri.
Denborak ez generala
parez pare jarri.
Orretxen egarri
aurkitzen naiz larri.
Ez al da mingarri
gu bi lagun zaarri
bizi onek jartzea
ainbat mugarri?

3 Zure artu-emanak
zer aberastasun,
nai aiña pazientzi
ta gizatasun!
Beti serio baiña
naiko alaitasun
bazenduala ere
igartzen zitzaizun.
Ez dakit dakizun,
gogoratzen zaizun,
gazteoi maitasun
izan zeniguzun.
Aitak batek bezela
artzen ginduzun.

4 Zazt mantala lepotik,
lanari erasoz,
ukalondotan gora
jertsea jasoz.
Tirri-tarra perola,
zartaia ta kazoz,
apala txukun bete
katillu ta basoz.
Tarteka "*kauen sos*",
bizi-bizi pausoz,
burubide osoz
ta irripar gozoz...
Estimatua ziñan
etxe ta auzoz.

5 Erderadun bertso au
ar zazu sosigoz.
Errerua ziñan zu
leen ofizioz,
pelotaria, berriz,
kirol-afizioz,
jaiero elizara
eta debozioz,
zerbait negozioz,
txikia bizioz,
berdin maldizioz,
aundiña "de dios"...
baiña bai dotorea
kontu-jarioz!

6 Astea errerotzan
zekizun tamaiñan,
ganaduak perratzen
bein emen, bein an.
Jai-egunetan, berriz,
taberna-kuziñan,
gu zure bezeroak
betikoak giñan,
baserritar-griñan,
bertsoen dotriñan...
Baiñan, Patxi, baiñan,
nago jakin miñan
mutil zaar zergatik
gelditu ziñan.

7 Izketan zekiena
zan zure mingaiña,
errespetua beste
edonork aiña.
Gizaseme luzea,
zabal ta liraiña,
baziñan famili bat
babesteko diña.
Ondoren apaiña,
bai, bai, alajaiña;
umeak nai aiña
saiatu bazina...
Baldin badira ere
ez dakit, baiña.

8 Bakarkako bizitza
zenduala obe,
ezkontzeko aterik
iñoiz jo gabe.
Bestela gastuetan
sartzen zala doble.
Orrela jokatu ta
ezin izan pobre.
Urre, zillar, kobre,
danetatik sobre,
ala ere noble,
gastatzeko orde,
txanponak gorde eta
txanponak gorde.

9 Baserritar, errero
edo perratzaille,
ekintza oiek danen
menderatzaille.
Tontotik ez ziñuzen
buruan bi ille,
argatikan ez ziñan,
ez, joango praille.
Irri-eragille
ta ongi-egille,
patxara-artzaille
ta adar-jotzaille...
Orain gu danok gera
zure epaille.

10 Begiratzen zenion
amaika neskatxi,
Joanita, Miren, Axun
eta Arantxi.
Baiña ezkonduzera
ez ziñan iritsi,
zeu fiakaitza edo
konfiantza gutxi.
Bertan beera utzi
Manoli ta Pantxi;
mando beltza taxi,
igo eta jaitxi...
Zu Patxi izan nunbait,
ai, Patxi, Patxi!

Azpeitira joan nintzan lanera

OGEITA bat urterekin Azpeitira joan nintzan lanera. Zerra zintaduna zan nere leenengo tramankulua lanerako. Zurgintza edo egur-lana zan.

Amasei urte edo Azpeitian pasa nituen, lan bera egiñaz. Ni bertsolari izugarria ez banaiz ere, Azpeitian bizi nintzala ekin nion bertsolaritza-bideari. Ango orduko bertsolariak iru ziran: Lizaso, Agirre ta Lazkano.

Urte aietan, Loiola erri-irratian, udaberriz, bertsolari gazteentzat txapelketak antolatzen zituen orduan angó zuzendaria zan Joxe Mari Iriondo jaunak. Gizon aretxek gure garaiko bertsolari gazteei aukera ugari eman zien, eta ni tartean nintzan. Millaka esker on, Joxe Mari.

Bertsolari gazte bezela ni ere ibili oi nintzan zerbait, an-emenka. Dana dala, 1967a zala uste det, Gipuzkoako bertsolari-txapelketa jokatu zan. Eta azken saioraiño nolabait iritsi nintzan, beintzat. Neretzat geiegizkoa zan ura. Tolosako Leidor antzokian kantatu genuen.

Oartu nintzanean bertsolari-izena edo banuela, neretzako zama aundiegia zan. Geroz ta estuago jartzen asi nintzan. Berez eztarri txarrekoa banaiz ere, barrenko korapilloak eraginda kantatu ere ezin izaten nuen. Nere buruaz pixka bat etsi edo egin nuen, eta bertsolari izateari erabat laga nion.

Ezkondu ere Azpeitian egin nintzan. Emaztea Itziarkoa det: Mari Pilar. Lau seme-alaba izan ditugu; Jaunari eskerrak danak ondo. Aitor, David eta Belen Azpeitian izan giñuzen. Eta Mikel andik amaika urtera etorri zitzaigun; au Zarautzen. Izan ere, 1977an berriro Zarautza etorri giñan bizitzera, eta ementxe bizi gera.

Badegu etxean zurgintza txiki bat; lantoki txiki bat, alegia. Bi seme zaarrenekin ortantxe aritzen gera, neurrira altzariak egiten. Ori da gure ogibi-dea.

Berriro pixka bat bertso-mundura itzuliaz, amaika urte isilik pasa nituen, leen esan dedan bezela bertsoari lagata. Ondoren artan egin zuten *Pernando Amezketarra* izeneko erriarteko bertsolari-txapelketa bat. Eta, itxuraz, an partaide izan ziran leengo nere taldeko bertsolari geienak.

Saio orietako bat Zarautzen ere bazan. Au nion neure buruari: “Lagunei entzutera joango bearko diagu, ba”. An agurtu giñan aspaldiko partez leengo lagunak. Ala esan zidaten:

— Oraingo ontan, i bakarrik geldituko intzan atera gabe. Beste geienok emen gabiltzak.

Egia diot: leengo lagunak kantari ikusita, alako inbiri txiki bat sortzen asi zitzaidan. Ta nere buruari galdezka:

— Baiña, zergatik ez berriro bertsotan? Ametsetan ari nauk edo? Bai zera! Leen nintzana baiño geiago izango nauk.

Orrelaxe, pixkanaka geure arteko billerak egiten asi giñan. Emen Zarautzen badira geiago ere: Otamendi ta Pello Esnal... Eta Aiako Lertxundi. Eta Andoni Egaña ere ordurako bazan. Au ere noizbeinka etortzen zitzaigun. Geure etxeko lantoki txiki onetan biltzen giñan, illean bein edo orrela. Gaur ere jarraitzen degu bilera auek egiten.

Larogeita bederatziko txapelketan partaide izatera ausartu nintzan. Kanporaketa geienetan egoki moldatu nintzala esaten didate. Nolabait iritsi nintzan beintzat Gernikara. *Santanape* deritzan pillotalekuan kantatu genuen. Ura azkenaurreko saioa zan. Azkenekoa Donostiako belodromoan izan zan. Nik Gernikan amaitu nuen. Neretzako bazan zerbait ura.

Geroztik ere zenbait txapelketatan partaide izan naiz, baiña ez det izan aurrean ibiltzeko suerterik. Gaur gutxi ibiltzen naiz ni bertsoan. Noizbeinka zerbait bai. Orain bertsolari asko dago. Onak ere asko. Gaur txapelketan aurrean ibiltzeko, ondo baiño obetoago kantatu bear da. Jende ikasia bait dabil bertsoan.

Doiñua: Iparragirrerena

1
Ni Azpeitira joan nintzala
gaztetan langille gisan
ta ez det uste burutazio
okerra nuenik izan.
Antxe asi bertsoan,
Izarraizpe besotan;
guraso an egin nintzan...
Aaztu ez leizken oroitzapenak
izaten dira bizitzan.

2
Oartu nintzan oitura onez
antxe nintzala naastuko.
Betiko artu nituen eta
ez dizkit iñork ostuko.
Biotzeko Azpeiti,
gogoan beti-beti,
sekula ez det aaztuko...
Nere ametsen kabi ziñan ta
nik ez zaitut zapuztuko.

- 3 Alde batetik Izarraitz dauka,
bestez Arauntza mendia,
goiko aldetik Oñatz auzoa,
beetik Urola argia.
Erdiz erdi ibaia,
urak an du bidaia,
zikiña edo garbia...
Bertsolarien seaska eta
oitura onen kabia.
- 4 Antxe ikasi nuen bizitzen,
bai eta ere lanean.
Ori gerora ezagutzen da:
beartutzen geranean.
Erri langille fama
betidanik darama
bere artu-emanen...
Antza emango diozu azkar,
bertara zoazenean.
- 5 Azpeitiarra ez da motela
langintza-negoziotan.
Kokillagoak billatu leizke
makiña bat naziotan.
Urteko jaiak, berriz,
oitura zaar ta berriz,
jatorrizko grazi ortan...
Zezenketa ta guzti ospatzen
dira San Inaziotan.
- 6 Ori moldatzen duen erriak
badauka pulamentua,
antolaketan naiz ta baduten
antzerkia ta lantua.
Gero Inaziori
abestu kanta ori,
bere martxa armatua...
Ark ere nunbait izan nai zuen
azpeitiarren santua.

- 7 Aldareetan jarri ziguten
santurikan aundiena,
langilleengan begiratuta
beintzat eskuzabalena.
Bere eguna pasa
ta ondorena lasa:
oporretan il bat dena...
San Inazio bakarrikan da
ori egiten duena.
- 8 Santu augatik Pello Esnali
zer sari erori zaion,
berrogei bertso eder idazten
izan zalako itzai on.
Baiña bere lanari
gaiñetik adi-adi
begira egon nintzaion...
Bitxikeri ori ez zuen jarri.
Aaztu egingo zitzaion.
- 9 Bosgarren mendeurrena buruz
zeiñen bertso aberatsak,
berak dionez pasa ondoren
egunak eta arratsak.
Gizonik azkarrenak
edo ikasienak
ere bazetik akatsak...
Bejondaikela, lagun zaar Pello,
bosteko ori ekatzak.



Emen amazazpi urte nituen. Nere urrengo anai Joxe eta Auntza deitzen genion aaria ditut nerekin. Baina au ez da akerrari lepoa autsi ziona; beste bat baizik. Izan ere, akerrari lepoa nola autsiko zion, bada, auntzak? 1958.

Bertso-sortak

Txaketa berria

NI bertsoak idazten oso berandu asi nintzan: berrogeita amaika urterekin. Gaztea nintzala, uste det bi edo iru dozena idatzi nituela, eta kito. Ez nion garrantzirik ematen bertso idatziari; alderantziz. Bat-batekoari, berriz, asko.

Bertsoak idatzi eta leiaketetara bidaltzeko, edo bidaltzen asteko, izan nuen alako bitxikeri moduko bat.

Gure lagun-taldean, baziran eta badira bertso-idazle bapoak: Pello Esnal, Joxe Mari Lertxundi, ta abar. Ba, 1992ko Basarri sariak, aitatu ditudan bi bertsolari aukerabazi zituzten. Pello leenen ta Joxe Mari bigarren. Sari-banatze egunean, bertsolari gazteentzat saioa izaten da Zarautzen: Lizardi saria deitzen zaiona.

Ni ere entzule bat geiago nintzan besteen tartetan, eta an egon nintzan Lertxundiren ondoan eserita. Zoritxarrez, Lertxundik emaztea eritetxean zeukan egun aietan: bere emazte Maria. Guk, taldekoek, *ama Maria* deitzen diogu.

Gazteen saioa luze zijoan, ta ondoren ematen ziran bertso idatzien sariak. Joxe Marik esan zidan:

—Aizak, Nikolas, nik joan bearra diat emaztearengana, gaua pasatzera eritetxera. Eta jaso zak nere bertso-saria, ajolik ez badik. Eta berriz ere elkar ikusiko diagu.

—Bai, gizona, bai. Zoaz lasai.

Baiña bere ateraldia egin gabe ez zan joan. Alegia:
—Kontuz ibili adi; besteren diruak gastatzeko tentazioa izaten dik eta.

“Ori dek, ori, Joxe Mari”.

Ala, eldu zan ordua saria jasotzera joateko, eta berrogeita amar milla peztako diru-txartela jaso nion. Gordeta eduki ere bai zimurtu gabe, txintxo asko, txukun itzultzeko.

Orrela, buruari bueltak ematen asi nintzan: “Kontxo! Diru polita dek ori, nekatu gabe irabazteko. Bai, arraioa! Neronek ere asi bear diat”.

Ba, orixe izan zan ni tentatu ninduen ta idazten jarri ninduen bertso-diru-txartela.

Ala esan nion Joxe Mariri:

—Ez nuen uste bertsoak idazten iñoiz nintzanik
asiko,

baiña zure diru-txartela erori zait graziko.

Laster or nazute zeuekin naasiko.

Urrengo urtean ez dezute, ez, irabaziko.

Ondoren artan, 1992ko urrian, bertso-sorta au jarri nion nere gaztetako txaketa urdiñari. Nik izan bait nuen patrikakako ilbanak kendu gabe boda batera eraman nuen txaketa bat. Ba, ori nik egiteko ez da ezer.

Idatzi nituen, ta Pello Esnali eman nizkion, pixka bat txukundu zitzan. Eta ala esan zidan:

—Oso onak dira, ta bertso auek Orexara bidali bear ditugu, Orixe sarirako.

Orrela, Pello Esnalek txukun asko orraztu ta makinatu zizkidan. Eta bidali ere berak bidali zituan, karta-azal lasai batean. Ala esan zidan:

—Nikolas, bertso auei irabaztea oso zailla da. Nik ere bidali ditut, ustez oso onak, baiña ez dira gai auei irabazteko.

Ba, esan eta izan. Saridun irten nintzan. Arritu ere bai: leenengo sorta bidali eta leenengo saria.

Baiña ez pentsa geroztik beti suerte ori eduki dedala, e! Ez da nik uste bezain erraza.

Doiñua: Bizkaiko txerriarena

1 Ogeitalau bat urte,
oker ez bagera,
izango nituen nik
gutxi gorabeera;
joan bearra zala
bodaren batera,
jantzitikan ez nuen
izango aukera...
Zer gertatu zitzaidan
noa esatera.

2 Egin bear nuela
txaketa berria,
color azul marino
kasketan jarria.
Tela feri batetik
amak ekarria,
jostundegira joanda
eman det neurria,
leenengo atzea ta
urrengo aurria.

3 Apopillo nintzala
ziran kontu auek,
señorak esan zidan:
“laguntzeko gaudek”.
“Beeko kale zaarreko
ortara eraman det”.
“Jostunak ori baiño
obeak bazeudek,
trapu-pilla ederra
ekarri bear dek”.

4 Tela ikusirikan
neurea dedala,
jostun ori jarri zan
naikoa petrala:
“Neuk ere banizkian
nailon ta tergala,
zertan ekarri didak
feriko retala?”.
Ez nekien ezer ta
ura zan perkala.


5 Illabetera edo
joan nintzan andikan,
tinbrea ere uste det
jo niola bitan,
kanpotik *tirrin* eta
barrenetik *tin-tan*.
“Dana listo dadukak”
berak esanikan,
plantxatuta gainera,
jantzi bakarrikan.

6 Gaizki egin nuela
tela erostea.
Nik erantzun: “Auxe det
etxeko dotea”.
Garai aietarako
dexente kostea,
bosteun pezta inguru
txaketa jostea,
luzeegi banuen,
debalde moztea.

7 Ditxosozko bodetan
nuen bapo luzi,
neure ustetan beintzat
ez nintzan itsusi.
Urrengo egunean
señorak ikusi,
parre-algararekin
esaten zan asi:
“Bodan ibili al aiz
ilban eta guzi?”.

8 Lasai ibili nintzan
ni neure martxan da
aspertu eziñikan
alako saltsan da,
bolaraz bertsoetan,
bestetan dantzan-da...
Xira arin bat ere
gaiñetik bazan da,
ilbanak izkutuan
giro txarra zan-da.

9 Bazkari-ordurako
pertzazko dindanak,
antxe zintzilik utzi
nituen nik danak.
Zer titulu ote du
au egin zidanak,
lepoan korbata ta
patrikan ilbanak,
kendu gabe utziak
modista Xilbanak?



Euskaltzaindiak 1967an antolatutako bertsolari-txapelketa. Azpeltiko kanporaketa. Nere leenengo txapela. Alfonso Irigoien genuen aurkezle edo gaijartzaille. Nik 26 urte.

10 Señorak ala zion:
“Ni oartu banintz,
kenduko nizkan ainbat
ilban ta ari litx;
bakarrik falta uan
pantalones de Brix”.
Nagusiak albotik
parrez egin du pix.
Geroztik jantzi nuen
makiña bat aldiz.

11 Berarekin billatu
andregai Pilare,
ilbanaz aaztuta
edozeiñen pare;
praka-gris, zapata-beltz,
bi galtzerdi more,
kaxero batentzako
naikoa dotore...
Ixtori au gogoan
det geroko ere.

12 Gertakizun bitxi bat
geiago badela,
itxaron apurtxo bat,
esango det bela:
naiz ta leendabizitik
irten zan pardela,
bertsolaritzan ere
leenengo txapela
txaketa arekintxe
atera nuela.

13 Jazki aretaz asko
oroitzen naiz ni ta,
arratsez etzatean
ta goizik jeikita,
jantzi zerbitzala ere
bein izaten baita;
baiña noizbait emana
beste norbaiti-ta,
prenda batekin ezin
ibili beti-ta.

14 Leenengo bertsoetik
asi dan planoan
amalaugarrenean
amaitzera noa.
Ura izan zan nere
todo-terrenoan,
gaztetako txaketa
azul marinoa.
Orduan bai nintzala
mutiko sanoa!

1992ko iraillean

V. Orixe sariaren irabazle

Izeta-goiko Joxerramun galdu, txikia zala

NIK ogeita zazpi urte edo nituela, bertso-sorta bat jarri nuen. Gazte-denboran jarritako bertso-sorta bakarra izango da bera. Azpeitian bizi nintzan orduan. Artean, ezkondu berri samarra.

Gertakizun triste bat gertatu zan Izeta-goikoan, gure auzoan, aldekoan alegia.

San Martin batzuetan, azaroan, Urdanetako festetan, amaren jaiotetxera joan zan bazkaritara Izetako famili geiena. Joxerramun txikia ere bai, bere bi urte t'erdirekin.

Zer gertatuko eta... Bazkalondoan, jendea lasai egoten da maaian kontu kontari, eta musean, eta abar. Eta bitartean, ume koskorrak atarian jolasean.

Au da! Illuntzean ez zala ageri Joxerramun. Begiratu dute ingurumari guztietan, baiña alperrik. Saltatu dira baillarara, jendea erromerian zegoen tokira, eta "au eta au".

An zegoen mutil gazte-jendea, artu esku-argiak, aal zuenak aal zuen bezela, umea galdu zan mendiruntz danak, bakoitzak bere sailla artuta.

Gau aizetsu eta euritsu ura goizalderatu, eta umerik ez. Etsipena. Gauez billa ibili zan jendea, beren etxeetara buru-makur.

Gure anai gazteetako bat ere an zan: Esteban. Ura ere, goizeko bostetan etxera. Gure aita eta ama sukaldean omen zeuden, zer notiziren zai. Estebanek:

—Ez degu aurkitu.

Aitak amari esan omen zion:

—Nijoan ni ere. Ekarrri zaidazu txaketa panazko beltza, eta botilla txiki batean jar idazu esne beroa badaezpada ere, bat edo batek bizirik aurkitzea gertatuta ere.

Begiak busti-busti eginda ari naiz, adiskide, gertakizun au idazten. Izan ere, gure aitak aldeko Joxerramun beti an izaten zuen inguruan: ukui-lluan bazan, mandioan bazan, atarian bazebillen, sorora bazijoan, Joxerramun ez zan urruti izango. Eta gero etxean galdetzen ziotenean:

—Nun ibili zera orain ere?

Geienean, erantzun jakiña:

—Aldeko aitarekin.

Esaten ari nintzana: amak jarri dizkio eskatutako gauzak eta, *tapa-tapa*, mendi aldera gure aita ori, beste geiago ere billa zebiltzan ingurura.

Goizeko bederatzi t'erdia omen zan. Ara eta ona zebilela, ala bearko zuen eta, amar metrotara sartu. “Zer da or? Or zegok eta! Nola joan ni orra? Beti bezela ots egingo zioat”.

—Joxerramun!

Antsi bat egin omen zion umeak.

“Bizirik zegok”.

Pendiz ondo batean zegoen itxuraz, auspez kuxkurtuta, bi belaunen gaiñean, burua lurrean, ipurdiz gora, oiñetakorik gabe... Galtzak beeko alanbre-txarrantxan zintzilik aurkitu zituzten.

Soiñean zeraman txaketa panarekin artu omen zuen.

—Aldeko aita nauk, Joxerramun. Esne goxoa bazaukat.

Begiak ireki-naia sumatu omen zion. Botilla epela ezpaiñetan jarri zionean, aren aalegiña! Baiña ezin. Gixajoa, gogortuta nunbait.

Nolabait, poliki-poliki mugituaz, eta igurtziaz, sartu zion esne pixka bat. Orduan, besteei deitu zien. Eta, bereala, norbaitzuk inguratuak izan bear zuten.

Sasoirik onena zuenak edo, an eraman omen zuen Joxerramun txaketan bilduta, negarrez zegoen amarengana.

Egun batzuk barru, onik omen zan. Gogorra izan nunbait berez.

Geroztik, gure aitak urteak zituenean, “aldeko aitari” erregalua bizi zan arte.

Gaur, ogeita amar bat urte edukiko ditu Joxerramunek. Bi edo iru umeren aita da. Eta amar arruako arri kubikoan ezagutu dan arrijasotzaille-rik onena edo bigarrena.

Bertso auetan, nabari da orain baiño akats geiago egiten nuela orduan. Baiña ezjakintasuna ere azaldu bear da.

Doiñua: *Aurtxo txikia negarrez dago*

Atsegabezko gertakizun bat
ispillu daukat aurrian.
Orain bi illabete izan zan
gure etxetik urrian.
Bi urte t'erdi zitun ume bat
galdu illunabarrian,
azaroaren amabosgarren
gau illun beldurgarrian.

- 2 Gurasoekin bat joana zan
amaren jaiotetxera,
baillara artan jaiak ziran ta
egun bat igarotzera.
Umetxoa kanpoan zebillen,
beste umeen antzera...
Gertatu zana: illunabarrez
ez zala azaldu etxera.
- 3 Aita ta ama umean faltan
oartu ziradenean,
alik azkarren begira zuten
etxe inguru danean.
Baiña ezeren aztarrenikan
aurkitu ez zutenean,
baillararaiño dei egin zuten
beren estuasunean.
- 4 Baillaratikan bai etorri're
sekulako jende-pilla,
guztiak argi bana artuta,
arratsean ume billa.
Zuloren batera erortzea
ez litzake gauza zailla...
Danak gauz bera pentsatzen zuten:
"Nunbait egongo da illa".
- 5 Mendi aietan besterik ez da
arkaitza eta leizea;
beste aldetik, itsas galerna,
euria eta aizea.
Odei astunen illuntasuna
mendian zear pasea...
Ezin ziteken an umetxoa
bizirikan aurkitzea.

- 6 Gau luze ura igaro zan ta
eldu zan egunsentia,
baita're biaramon goizeko
bederatzi ta erdia.
Gure aitari gerta zitzaion
une bateko argia:
umetxo ura aurkitutzea
lurreraiño eroria.
- 7 Bere artean onela zion:
"Baiña umea, orra nun!".
Urreratuta bere izenez
deitu zion: "Joxerramun".
Eta umeak antsi triste bat
egiñaz zion erantzun...
Aldian zeramakin jantzian
aliek azkarren bildu zun.
- 8 Gure aitak zun esne pixka bat
badaezpa're arturik,
aora eman zezaiñon inork
aurkitzen bazun bizirik.
Esan bezela, esne-tanta bat
ezpaiñetan ezarririk,
botillatxoai begira zion
begiak doi-doi jasorik.
- 9 Umetxo aren gorputza zegon
otz-bustiak gogortuta.
Arritzekoa ez da, mendian
ainbat ordu pasatuta.
Soiñean zeramazkian prakak
ta botatxoak galduta,
bere azken ordua igarotzen
aita ta ama agurtuta,

10 Arantzazuko Ama Birjiña
egon ote zan zaindari?
Edo zeruko aingeruren bat
begira umetxoari?
Esango nuke gertakizun au
ote dan ere mirari.
Poz askorikan eman zioten
negarrez zegon amari.

1969ko azaroan

Aitaren eskutitza, urruti degun alabari

AU geure etxeko pasadizo bat da. Gertaerak auzokoak diranean, oso erraz esaten ditugu. Baiña alaba bakarra izan eta bera urrutira joandakoan, lagun, gauzak asko aldatzen dira: gurasoaren biotzak *palast* egiten du.

Doiñua: *Lagundurikan danoi*

poema Alabatxo, zuretzat
leenik bi muxu,
urruti zaude baiña
artu izkidazu;
zu etxetik joatea
izan nuen pixu,
samindurik nagola
ori badakizu...
Aita baten biotzak
itz egiten dizu.

2 Zurekin loretxo bat
genduan etxean,
utsik gelditu giñan
zu aldendutzean;
ontaz gogoratutzen
naizen bakoitzean,
arantza bat sastaka
or det biotzean,
oiñazea nabari
malkoak leertzean.

3 Mundura joan ziñan
ziñalarik gazte
ta aitak uste zuen
zentoze laste;
aingerutxo polit bat,
emezortzi urte,
egunak eta gabak
luze dijoazte,
zertan sufritu bear
det nik orrenbeste?

4 Inglesez ikasi nai
zenuen Londresen,
pentsatzen nuen eten
au motza ote zen;
nik nai baiño geiago
dijoa luzatzen
eta orain maite bat
dezula ain zuzen,
bildur naiz urrunago
ez ote zoazen.

5 Italiar bat dala
maitatu zaituna,
zeuk diozunez mutil
fiña ta txukuna,
berakin bizitzea
dala nai dezuna;
oinbesteraño bada
zuen maitasuna,
aitak ez daki nola
eman erantzuna.

6 Zure asmoen berri
zenidazun konta,
zotiñak irentsi-
jaso nizun nota.
Urrutizkiñez laga
ninduzun lur jota.
Atozte Euskadira,
au da gure kota,
zuentzat ainbat leku
emen badago-ta.

7 Bidea aukeratu
lezake bakoitzak,
aurrez aurre dituzu
etorkizun-printzak;
lorea ta arantza
or ditu bizitzak...
Ez nijoa jartzera
zuretzat baldintzak,
baiña ez gorrotatu
aitatxoren itzak.

8 Neskatx zuzen bat zera,
danak badakite,
baiña ezusteren bat
nunai gerta leike;
baldin orrelakorik
balitza noizbaite,
auxe eskatzen dizut,
alabatxo maite:
aita bat badezula
gogoratu zaite.

9 Maitasuna eskeiñi
diozu norbaiti
eta zeure ustetan
merezi dun bati;
ar zazu pentsatzeko
orrenbeste asti:
munduko egun danak
ez baitira ezti...
Aita laguntzeko prest
dadukazu beti.

10 Ongi deritzat batek
zaitulako maita,
neri ulertzeko ere
izan zaitez gai ta:
alabatxo bakarra,
gertu zaitut nai-ta,
egunsenti guztitan
nago zure zai-ta...
Mundua da lekuko:
aita beti aita.

1990eko irailean

Aitonaren urteak

GURE aitak 84 urte bete zituenean, urtero bezela, apari batera deitu zigun bere seme-alaba ta geuren puxketei.

Etxean egiten genuen apari ori. Amonari esango zion:

—Ea, ots eiezu, eta oillasko batzuk il edo, larun-baterako zer edo zer.

Amona laster asiko zan, oillotegira joanda, disimuluan begiraka oillaskoei:

—I dexentia ago.

Beste bati:

—I, oraindik alu xamarra.

Gero:

—Beste anka-luze ura zer? Ño! Ire petxu-ezurra ere bixtan zegok, ba. Ba, auetxek irurak, eta kito.

Rast!, lepoa.

Aita ordurako mantsotua zegoen, beste iru urte geiago pasa bazituen ere. Baiña, ba, ainbestean gustora.

Ama, berriz, amona alegia, oso pizkor, muserako amorratzen, baten bati errieta egiteko ere bai. Gaiñera, belauna ta, ebakuntza baten bidez, ondo jarriak zeuzkan. Makal zegoen, ba, entzun-ezin pixka bat bai, baiña, esateko, ondo; aitzaki polita.

Dana dala, larunbat-bazkalondo artan, jarri nintzan arkatza ta papera lagun nituela, eta arratserako, aitari zorionak emanaz eta amonaren kontuak pixka bat aitatu ta abar, ondoren datorren bertso-sorta au moldatu nuen. Apalondoan, denon artean kantatu genizkien aitonari eta amonari. Alajaiña, bai pozik entzun ere! Bazirudien amonak ere ez zeukala gorraizerik.

Akats txiki batzuk badauzka bertso-sorta onek, baiña ez noa txukuntzen astera. Naiago det kantatu genituen bezelaxe jartzea; jolasaldi bat bait da, aiton-amonak irri egin zezaten. Eta alaxe gertatu zan, ta pozik nago.

Doiñua: *Nere sentimentua
nai det deklaratu*

Bildu geran ezkerro
sukalde txokora,
kanta dezagun danok,
badakigu nora;
zorionak, aitona,
kolkotik kolkora,
lau bete dituzu ta
larogetik gora.


2 Iaztik ez daduka
okerragorikan,
jan ta edaten beintzat
ez du pallorikan;
gaur ere ez du laga
ardo-tragorikan...
Aitona motz bapoa
dago oraindikan.

3 Aitzaki mordoxka bat
ba omen dauka, bai,
baiña alan da ere
erritarako gai;
bastoiari eragiñez
beti or dago zai...
Orren kaskarrekoa
ez nitek artu nai.

4 Berak dionez esku
bat alperra dauka
eta nai ainbat, berriz,
ezin altxa anka;
bapo moldatzen da, bai,
baldarka-baldarka...
Amonari ari da
beti deiadarka.

5 Asten diradenean
musean ta tuten,
begira egoten naiz
zer egiten duten;
marmar batean zaio
aitona jarduten,
eskerrak ez dizkion
erdiak entzuten.

6 Aitona armonian
asten zaionean,
amonak entzungogor
dio geienez;
tirri-tarra jarraituz
kuxina-lanean,
ederki entzuten du
berak nai dunean.



Nere gurasoak: aita, Joxe Mari; eta ama, Joxepantoni; 1970ean.

- 7 Ez duala entzuten
bear duan aiña,
nai duana erantzun,
ori du ordaiña;
ez al daukagu bada
amona apaiña,
okotzean ximurrak
badaduzka baiña.
- 8 Orain dala urte bi
zer zuan asmatu:
Poliklinikara joan,
kristona armatu,
doktore gazteren bat
zuan konkistatu...
Belaun bat operatu
ta biak sendatu.
- 9 Geurekiko genion
“adin ortan, eepa!”,
baiña berealaxe
tajutu zan jefa;
geroztik xuxpertuta
amona Joxepa...
Arrapa zak ankatik
mantxo zebillek, ba.
- 10 Zenbat urte dituan
nola ez dakidan,
“ez dizkiat kontatzen”
beingoz esan zidan;
antz eman eziñikan
gaude bere jiran
zaartzen dijoan edo
gaztetzen ari dan.

11 Aiton-amona auek
duten komeria,
gauz gutxi bear dute
jartzeko peria;
alkarren antza ere
badaukate ia,
nolako Peru eta
alako Maria.

12 Amaituko al degu
luzatu baiño leen,
aundiagoak ere
esan zitezkeen;
ta errosario au
bukatzen da emen:
per omnia sekula
sekulorum, amen.

1992ko San Martiñetan

Nun da komuna?

BATZUETAN, gertakizun aundiaren zai egon bearrik ez da izaten bertso-sail bat jartzeko. Aldiz, lasaikeriari jarriko dizkiozu. Urrengoan, larrialdiari. Nik neure estuasunari jartzea erabaki det oraingoan.

Ni ere gaztea izan nintzan. Eta, jakiña, geure baillarako jaiak ziranean, lantokian egun-pare bat jai eman oi zizkigun nagusiak. Ortan gizona zan. Baiña zer gertatzen zan gero? Nagusiak bi egun eman bazizkigun, guk beste bi artzen genituela; eta bosgarreanean, lantokira. Batzuetan, lo paltan; edo beti. Orregatik nagusiak ez zigun aurpegi txarra jarri oi izan.

—Zer moduz jaiak? —galdetuko zigun; ori bai.

Gazte maitea zan gure nagusi txikia: Xabier.

Lanerako griña bagenuen, eta geure gisa asten giñan lanak aurreratzen. Presa gerok eman oi genion geren buruari. Baiña beingo artan ez zidan asko balio zalapartaka ibiltzeak. “Mutillok, naiko lanak baituan an”.

Goizean, lanean asi eta bereala komunera azkar joan bearra gertatu zitzaidan. Parrandak kalte egin, edo zerbait banuen.

Zerran ari nintzan tokitik martxa, egur gaiñetik aal nuen moduan pasata. Katu alu bat ere bage-nuen tailerrean, beti isatsa goian zuela ibiltzen zan

oietako bat. Ura ere enbarazuan, ba, egun artan!
Kulpa aundirik gabe artu zuen ostikada ederra.

Aldamenean ari zan beste zerrariak, berriz:

—Ori dek sasoia, motel.

Eta pintxe-edo esaten genion mutikoak, barre: *ji-ji-ji-ji*. “Txatxual”.

Nik ez nuen gaitako gogorik une artan. Nai baiño leenago ez nuen iritsi komuneko atea. San Martin jaien barneko azterketak ederki egin nituen komunean eserita. Pasa nuen estualdiaren berri, amar bertso auetan dijoa.

Doiñua: Esne-sailtzaillearena

1 Parrandan bota nuen
San Martin eguna,
gozo ta leguna,
baiña etxeratua
nintzan adarduna.
Biaramuna ez zan,
ez, oso txukuna,
lanean ere naiko
xelebre jarduna:
Xapi, katua, xapi!
Nun zegon komuna?

2 Ez dedilla gelditu
iñor arrituta
auek adituta,
estuasuak begi
larriak ditu-ta.
Komunera bidean
ia amilduta,
gero ziran kontuak
ara urbilduta...
Galtzetan ere ezin
nintzan kabitu-ta.

3 Kendu det gerrikoa;
bota bazterrera,
andik lasterrera...
Ez zala askatuko
praka-kremaillera.
Txortena autsia ta
ezin jetxi beera.
“Gaur ote det Satanas
guztien billera?”.
Ankak gurutzatuaz
ura ibillera!

4 Alakoren batean,
askatu nuala,
ri-rau!, banoala...
Baita eseri ere,
nola edo ala.
Une ura neretzat
sakratua zala,
bein Manuel Lasartek
zioen bezala,
“uste nuen betiko
eseri nintzala”.

5 Atzo ustu genian
laugarren pitxarra,
ta orain ni txarra,
ez bait nuen kontuan
eduki biarra.
Lantokiko komun zaar,
i nere izarra!
Azkurea egiñaz
negok zirri-zarra.
Menderatu diagu
parranda litxarra.



Andregaiari bidali nion leenengo argazkia. 23 urte. 1964.

- 6 Askatutzean zenbait
aize-korapillo,
"bapo-bapo, Pello,
bai oillar nagoela
leen nintzana oillo.
Txukundu bear diat,
errekoillo-koillo!"
Tira nion bonbari...
Arek, berriz, fallo:
ez erratz, ez isipu
ta ez paper-rollo.
- 7 Gaur zergatik naiz trantze
txar denen morroia?
Au dek makarroia!
Errudun: atzo jan zan
igazko turroia;
eta arekin ustu
genuen porroia...
Gantzontzilloak ere
badute arraia,
dotore margotua,
gaiñera marroia.
- 8 Euli aundiak, berriz,
beraien mamuan,
nai zuten amuan,
atez kanpo gelditu
ziraden damuan,
gozatuko ziranak
nere terrenuan...
Armiarmak ere, *zazt!*,
zuloen barruan...
Perfume ederren bat
ibiliko nuan.

9 Ordu erdi inguru
komunean koka,
jarririk alboka,
nun entzun nuen norbait
kan-kan ate joka,
zer gertatzen dan edo,
“ongi al aiz?” oska...
“Emen ez zegok giro;
ospa ortik, ospa!”.
Olakorik ez diot
beste bati opa.

10 Parrandak ondorenak
ekarri zizkidan.
Ez nabil dizdiran.
Nai bada irakurri,
zer sorta txiki dan.
Kanpaiak txukun-txukun
jo ditut nik *din-dan*,
jendeak jakin dezan
Euskal Erri jiran
komunaren bertsoak
zein atsegin diran.

1992ko irailean

Moskitoa

MOSKITO puñetero ori! Izango da mundu ontako eulirik igarrena! Piñetik jaten du eta, ala ere, igarra.

Neri ez dit ajolik igar edo potolo zer dagoen. Latoso ederra dala alu ori.

Bein, gau bat oso-osoa pasarazi zidan lorik egin gabe. Eta akabatu ez, alajainkoa! Goizean, letoa zabaldu nuenean, martxa alajaiña, bere pakete eta guzti.

“Ba, ez didak adarrik joko. Nere kontura parra egin dek. Orain nik egingo diat iri”.

Eulixka txolin ura zala eta ez zala, bertso-sorta jostalari au jarri nuen, eta ez zitzaidan damutu: IX. Basarri bertsopaper-leiaketan, 2. saria eman zioten.

Arratsen batean moskito pelma oietakoren bat inguratzen bazaizu, lagun, badakizu zer egin: moskitoaren bertsoak kantatu.

Doiñua: *Dozena bat bertso berri*

I Moskito edo eulixka,
gau batean ura drixka:
lo nengoela nun asitzen zait
krixka eta mixka.
Ekin nion mekatxiska,
geroxeago atxiska...
Amorragarri galanta eta
errespeto pixka.

- 2 Moskitoa zizti-zazta
ta ni, berriz, *plisti-plasta*.
Mixtu meea baiña zorrotza
duen euli-kasta.
Lo gozorik ezin dasta
eta esan nuen: "Basta.
Oa ankeko kiratsetara;
or badiat gazta".
- 3 Anka-orpoeri toma,
usai txarra zuen soma.
Errefuxio gordelekua,
logelako orma.
Zirudien tiragoma.
Moskitorik ezin doma.
Iseka aiek jasan bearra
ez zan gero broma!
- 4 Moskito anka-luzia,
koldarra ta itsusia,
illunpeetan abillelako,
ezin ikusia.
Pizten badiat zuzia,
kenduko diat bizia...
Gaur arratsean ez dek egingo
nai dekan guzia.
- 5 Iruditan ez zan tinko,
egoetan abaniko,
bein sudurrean, bein belarrarian,
brinko eta brinko.
Nik, berriz, bera ezin jo,
jenioz txartu zan Niko:
"Derrebeskada batekin edo
ez ote det ilko?".

6 Euli igarra mokoka
eta ni zaplastekoka,
neronen eskuz neure masaillei
ari nintzan joka.
Andrea albotik oska
zertan nenbillen txaloka.
"Ai, bazeneki nun egin didan
moskitoak koska!"

7 Pentsatzen pasa bi ixtan
ta azterketaren lixtan,
erabaki au artua nuen
moskitoen pixtan:
jarri naiz ipurdi bistan,
miuuu... or dator tximistan...
Euli plakoa laster asi zan
txist emen ta txist an.

8 Panderoz gora jartzean,
ura zarata atzean!
Bonbardeoa asi bait nintzan
nere narratsean.
Arek usaia artzean
edo urrutiratzean,
andik aurrera pakea eman
zidan arratsean.

9 Bi platerka babarrun da
eguerdiz jaten jardunda,
aleak beintzat gutxieneko
baziran berreun da,
ekin nion *bunda-bunda*,
bidali naian urrun da,
une artatik isildu zala
moskito-burrunda.

10 Goizaldera lo-saioa,
ez nintzan jeiki iaioa.
Eguzki-printzak irudituta
ireki leioa.
Moskitoaren aioa!
Bazirudien kaioa.
Pardela jaso eziñik joan zan
euli arraioa.

1993an

IX. Basarri sarian, bigarren

Marino Lejarreta

MATRAIL-EZUR zabala, illaje lapatsa, begirada pentsakorrekkoa, belarriz antigoaleko euskaldun itxurakoa, gizonaren sudurra, irriparra gertu duena, izatez serioa, kolorez berdotza, lepomotza, gorputz igarka, espaldatsua, metro eta irurogeita amabost altu, entzuten dakiena —entzuten dakienak, berriz, erantzuten jakiten du—, adarjotzaillea...

Guzti orrez gain, txirrindulari on-ona izandakoa. Nere gogorantzan, Euskal Erriko txirrindularirik onentsuenetako bat izan zitekeen Marino. Badakit onak geiago ere izan dirala gure lurralde ontan. Ez nuke inor beeratu nai. Bat gora jasotzeko, bakarrik, ba, olakoxe kariño bat diodalako Marinori.

Txirrindularitzari apur bat laga zionean, bertso-sorta bat jartzeko era izan nuen berari buruz. Ni bertsoak idazten asi berria nintzan, Marinok txirrindularitzari laga zionean.

Gogoratzen naiz bertso-paper-leiaketa bat zala Bizkaiko Leioan. Nik ere bidali nuen sorta bat, Marinori buruz jarrita. Bertso aiek ez ziran saridun izan, baiña ango zuzendaritzak edo Leioako Udalak oso txukun eta gizatasun aundiz itzuli egin zizkidaten, eskerrak emanez. Orrelako gizatasuna asko eskertzen det nik.

Auetxek dira bertsoak.

Agur t'erdi, Marino,
barka ausarpena;
bera izan da kantuz
jarri nauena.
Ez det esango zanik
munduko onena,
baiña seguru aski
aren ondorena.
Korritu du dena,
Europan barrena;
sarritan leena,
berriztar lerdena...
Bertsoz egin nai diot
nere omena.

2 Txirrindu bat jantzi zan
mutiko apalez;
ekin bazion, ekin
bide zabalez.
Sarritan apaindua
maillota-azalez,
kilometroak seireun
milla bai pedalez.
Munduko egalez,
zalearen zalez,
bere aalmen-alez
txano ta txandalez,
Lejarreta markako
motor apalez.

3 Beeko maillatik asi,
goia jo zuen, *bun!*,
naiz ta txilipurdika
iñoiz jausi, *pun!*
Gero mundu osoan
egin da ezagun,
mutil xume apala,
izkeraz euskaldun.
Gogora dezagun
etxean nor degun;
merezi du legun
artzea gau t'egun.
Bera aundi izanik,
txikien lagun.

4 Edozeiñek lezake
izan egun txarra,
gorputzaldi motela
edo sukarra.
Ala ere, Marinok
bazuen sugarra,
aldapa gogorretan
atera uxarra.
Ori dek muxarra,
aurrena bularra,
atzera puxkarra,
dirudi muxkarra...
Beti leen postutan
zan saguzarra.

5 Txirrinduaren gurpil,
manil ta ardatza,
mutil orrek jakin du
nolatan dantza.
Gogozkoa zelaia,
baita ere aldatsa,
lora orlegiz jantzi
Berrizko baratza.
Zaletasun latza
jarri duen, antza;
bada esperantza;
altza, motell, altza...
Gazte danak ondoren
or daramatza.

6 Espaiñiako Buelta,
Giro eta Tourra,
irurak betetzea
ez zan samurra.
Errepidean zear,
urra eta urra,
Tormaletean gora
ura dek egurra!
Naiz eta jo lurra,
odoldu sudurra,
aurreko muturra
zaintzeko adurra...
Ori egin duena
ez da apurra.

7 Oin-muturrak zituen
pedal-lazoz lotzen,
ta kemen bereziak
nolabait sortzen.
Onak askotxo baiña
Marino ere ortxen,
bazekien noiznaitan
garaipenak lortzen.
Baita ere jotzen
bere lana dontzen;
luzaroan ONCEn
mutil au egon zen...
Lanak ditugu orrek
egiñak ontzen.

8 Zaldibar eta Garai
edo Abadiño,
auzo geiago ere
baditu baiño.
Txirrindulari-maillan
naiz joan goraiño,
bere txokoa asko
maite du oindiño.
Neskatx askok diño
beragaz “¡*Qué niño!*”;
diote kariño
aal dakit noraiño...
Argatik kantatzen da
“Aupa, Mariño!”.

9 Berrizko semea da
bere jaioterriz;
sarritan poztu gera
bere orren berriz.
Zuen guztia eman
beti biotz erdiz,
iñork ez du ikusi
iñoiz arrokeriz.
Sendo zango-gerriz,
bere sprint, berriz,
esan leizke zer itz...
Galdetzen det, Berriz:
olakorik sortuko
al dezu berriz?

10 Ez zen txupa-gurpilla,
baizik ta itzaia:
aurreko muturretik,
ia ta ia!
Tropela luzatuaz,
alboan etsaia,
sarri-sarri artuaz
elmuga-usaia.
Beti gogor saia,
mutiko alaia,
bete da garaia,
au nuen itz-gaia:
gero arte, Marino
eta Bizkaia.

1993ko udan

Suerte txarreko eiztaria

GAZTETAN, ni ere ibili izan nintzan eizean; edo tiroka, beintzat. Aurrena, aitaren eskopetarekin; bi kaiñu zabaletaka zituen. Arekin bakar batzuk botatzen nituen. Gero, txanpon batzuk irabazten asi nintzanean, berria erosi; ta ez nolanaikoa, gaiñera: bi kaiñukoa; baiña bat bestearen gaiñean zituena.

“Superpuesta” omen zan ura. Ala esan zidan saltzailleak.

—Bai —erantzun nion—. Superpuesta, baiña *mucho cuesta* (2.000 pezta).

Dana dala, arekin gutxiago botatzen nuen. Asko baldin bazetozen, jakiña, bakarren bat eroriko zan.

Gero atera ziran, ba, dalako bost tiroko traste oriek, kaiñu batekoak baiña bost kartutxo sartzen zaizkienak... Nik neure ustez ederra neukan dalako Superpuesta ori, baiña beste oien inbiria egin zitzaidan.

Egun batean, banijoa leengoa erosi nion armero orrengana. Esan nion nere asmoen berri: alegia, leengoa ondo ordaintzen bazidan, bost tirokoa erosiko niola. Artean, bi urte besterik ez zeuzkan.

Nere armero motx ori jarri zan irripartsu.

—Sí, hombre. Yo te vendo una escopeta del último grito, pero por la anterior no te puedo dar mucho, porque se ha quedado anticuada. Tiene dos años, pero ya es vieja.

“Mekasuen zotz! Bi urtean neure burua baiño obeto zaindu diat, eta ala ere *vieja*. Ik eman dizkidak azak.”

Beintzat, egin genuen tratua. Eta oraingoaren izena: “Repetidora”. 30 milla peztatik gora. Arekin zer egiten nuen? Tiro geiago tira, ta eiz gutxiago bota. Gero, bost tirorekin eiza geiago ikaratzen zala-ta, iru kartutxo bakarrik sartzeko baimena.

Orain, iru tirokoak atera omen dituzte. Neretzat alperrik da. Leengoa ere ez daukat neurekin. Goardia zibillak eraman zidaten, arma-baimena kadukata neukalako. Ni olakoxe zabarra naiz.

Orain, ametsetan naiz eiztaria.

Doiñua: Esne-sailtzaillearena

1 Bein batez usotara
joan nintzan mendira,
napar alderdira,
bai jarri ere firme
danera begira.
Piperrik ez zetorren.
Ura bazan jira!
Alakoren batean,
aleak badira...
Bakarra zaurituko,
ta bera sasira.

2 Txakurra an dijoa,
txilin-txilin-txala,
belarri-xabala,
zintzarria lepotik
zintzilik duala.
Isatsa astinduz
laster asi zala,
albotikan “ea, Xol”
agintzen nintzala...
Prrrat!, eta oillagorra
ola gabiltzala.

3 “Errekontxo, i ere
emen al enguan?”.
Gordeta zeguan.
Biurrika joan zan
milla bat leguan.
Ark ez zuen ajerik
buztan ta eguan.
Bestaldeko txarakan,
gaztaiña onduan,
txarrast!, nola sartu zan
ikusi genduan.

4 Laprastaka bagoaz
metroko pausuan,
algaraz auzuan,
Xol txikia kalintxaz
ta ni errezuan.
Txori moko-luzea
zegoen izu an,
jeiki zan eta dale,
plast!, beeko basuan...
Artzaiaren txakurak
arrapatu zuan.

5 Eizerako lekua
Bidasoako Bera,
irekirik “bera”,
iintzetan bustita blai,
ankak bera-bera.
Etxalartik badatoz
zazpi ega-bera,
dapa, dapa!, bi tiro,
bat or dator beera...
Danetan koldarrena
izango zan bera.

- 6 Nora eroriko zan
geneuzkan begiak,
gaiñera argiak,
galdu bait genituen
aurrenengo biak.
Beeko arkaitz ondora
egin du txoriak,
txakurraren saltoak
ez ziran nagiak...
Iritsi zanerako
jan du azeriak.
- 7 Txakur txikia triste,
arantz eta odol,
ez txori, ez koskol,
azeri aluxka ark
sartu bait zion gol.
Okil buru-gorriak
ark ere *kol-kol-kol*.
Azkuratuaz ago;
lagunak dauzkak, Xol.
Erosiko diat, bai,
poteka bat "Kutxol".
- 8 Naiz begi bat itxita
aritu tiroan,
ez zala giro an,
gizon bat bait zetorren
azal serioan.
"Soy guarda de monte"
erderaz zioan,
ea ba al nekien
nundik nora noan...
Petral ari txakurra
xaxatu nioan.

9 Ordu erdi bat edo
zigun galarazi
Xol ta Nikolasi.
Berriz ekin genion
sasirikan sasi.
Erbi txilipristin bat
salta bizi-bizi.
Ura ez zan gelditu,
naiz tiroka asi...
Belarria moztuta
joan zan igesi.

10 Intxaurraren adarra
zala mugitu ta
ala irudituta,
“ara katagorria,
goian tentetuta”.
Kraxka-kraxka ari zan
ale bat artuta.
Ari ere taupada
nion bialdu ta
zer eroriko zan ta
isatsaren punta.

11 Pasa ondoren ainbat
baso ta garaman,
nekearen zaman,
erreka ondorako
naia generaman.
Antza eman genion
zerbait bazala an.
Itsas aatea jeiki,
ari ere *pan-pan!*...
Osiñera erori
ta urak eraman.

12 Oartu giñan nola
alperrik genbiltzan
eiztari-langintzan.
Moxolotxoak ere
aserre zebiltzan.
Txakurra osiñean
preskatzen asi zan.
Ni berari begira
zuaitzen gerizan...
Esnatu nintzanean,
eizera joan nintzan.

1993ko urrian

Goizean behin

I 994.a zala uste det, oker ez banago. Euskadi Irratiak alako bertso kopladunen paper-leiaketata bat antolatu zuen. Nik ere sorta bat bidali nuen. Ez nuen kontutan artu, ordea, bertso-koplak zirala. Eta zer egingo eta, bertso-doiñu arruntean bidali nituen.

Ni olakoxe arretagabea naiz. Zer pentsatu ote zuten epai-maikoek, eskuetan artu zituztenean? "Au ere badek bat edo bat!". Parra egingo zuten, noski. Au bazkari on baten ostean, postre bereziaren lekuan, berriz zopa eskeintzea bezelatsuda.

Dana dala, beintzat, nik artu nuen gaia zan Euskadi Irrati bertako *Goizean behin* saioa.

Jaime Otamendik, Arantxa Iturbek eta abarrek (eguraldi-gizona dan Pello Zabalak, Pello Esnalek ere tartetan) ematen zuten irrati-saio ori goizero. Telefonotik etxekoandre askori deiarazten zioten. Galde-erantzunak eta entzule fiñenaren sariak eta abar banatzen zituzten. Oso programa polita da orain ere.

Nik geure lantokian entzuten nuen. Irrati zaar bat, beti piztuta egoten dana, bai bait degu.

Broma bat besterik ez da bertso-sorta jostalari au. Barka dezatela.

- 1 Bertso-sorta bat jarri
dezadan argira,
Euskal Irratira,
dalako *Goizean behin*
orren aitzakira.
Jaime eta Arantxa
goizero or dira,
isildu gabe iru
ordu ta erdira,
iritsi zaizkigunak
naiko urrutira.
- 2 Bikote ori ez da
izketan motela.
Bejoandaiela!
Zenbat eman, ainbeste
luzatu kordela.
Zorion-agurrekin
asi eta bela,
etxeoandre danak
deika dituztela...
Makiña bat Pantxika
uste det badela.
- 3 Zenbat ordu botatzen
dan telefonotan,
gosari-ondotan!
Marmarka txanda artu
eziñik askotan.
Etxea txukuntzea
beti gerokotan.
Gaiñera, egiten da
sukalde-txokotan
bazkari txarra pranko
azkenaldi ontan.

4 Lengo batean dendan,
señora Teresa:
“Nun da *Magefesa?*”.
Eltze bat erosteko
arek zuen presa!
Nolabait moldatu nai
bazkari erreza.
Ez zaiola ajolik
gazi edo geza,
martxan jarri ezkerro
putxero expresa.

5 Senarra lanetikan
dator geroago:
“Nun da gure Bego?”.
“Segituan nijo;
telefonon nago”.
“Gaur ere baba-erre
usaia al dago?”.
Or ekiten diote
enbido-ordago...
Dibortziatu dira
bat baiño geiago.

6 Ramoni saltzaillea
ekartzen badute,
beste ordubete;
ura bialtzea ere
kostatzen zaiote.
Berritsuagorikan
besterik bai ote?
Gero Mikel Markezi
deitutzen diote...
Tapiak ongi zion:
“Asperten gaituzte”.

- 7 Ortik onerakoa
da Pello parea,
fraile t'abadea,
tituluduna eta
titulu gabea.
Bata epistolaren
predikadorea,
bestea erauntsien
berri-emalea,
naastuko luketenak
itsaso barea.
- 8 Orrenbeste ixtori
irratiko bordan,
euren *sursum corda*-n...
Goizean behin-go ori
jarri zaigu modan.
Naiz ta kontu-mordo bat
dabilkiten sobran,
jaramon egitea
ere nola zor dan,
entzulerik fiñena
badakite nor dan.
- 9 Bertso idatzi auek
loturik txarrantxan
aritu naiz saltsan.
Ez da benetan izan,
baizik eta txantxan.
Or ez dago errurik
Jaime ta Arantxan.
Ramoni, Mikel Markez,
agur ta *ta-ta-txan!*
Goizean behin saioak
jarrai beza martxan.

1994ko Iñauterletan

Zarauzko moilla

PORTU txiki bat da Zarauzko moilla. Oso txikia ere: luzeran 100 metro ez da izango, eta zabaLEAN 15 edo orrela. Txalupak bakarrik sartzen dira.

1856an asiak izango ziran egiten, 90.000 edo 100.000 peztako aurrekontuarekin. Ia egiña zan garaian, gau batean, bi ormatako bat bota omen zioten, orduan gertatu zan gerra bat zala tarteko.

Berriro, urte askoan egon omen zan moilla orma batekin, erriko arrantzale txikiak oso itxura nola-baitekoan baztertzen zituztelarik euren ontzi txikiak.

Urte-pilla bat pasa ta gero, berriz ere asmoak sortu ziran, moillako eraikuntzak nolabait egiteko. Baimenak lortzea ere zailla omen zan. Baiña izan bear zuen gizon aundi samar bat, ministroa alegia, udaran Zarautzen egoten zana. Pixka bat arek mugiarazi omen zuen paper eta diru-kontua. Erri oni egundoko maitasuna omen zion, berak bere aldetik eskupeko aundi bat jarri zuelarik.

Zarauzko erriak eta erritarrak oso etxeko gizona omen zuten Madoz jauna.

Geroztik or dago gure moilla.

Jakiña: askotan egingo zizkioten berrikuntzak. Urte asko ditu. Eta urak ez du barkatzen, otzanen ibilita ere. Eta ori askotan besteraka ibiltzen da.

Gaur egun, oso polita dago gure portu txikia. Orrez gain, leku maite bat da moilla errian eta erritarren artean.

Udaldean, Zarautza jende asko etortzen da gaur ere, inguruetatik eta urrutixeagotik ere bai. Eta moillako oroimenarekin eramaten dute burua askok.

1994an, amabi bertso auek jarri nituen moillari buruz. 1995ean Zarauzko Santa Marina jaietan, bertso-paper-leiaketan sarituak izan ziran, eta kantatuak.

Zarautzak badu portu txiki bat
deitzen diotena *moilla*.
Ez da luzea, ez da zabala
ezta ere borobilla.
Ontzi aundirik ezin da sartu
bateltxoentzat soil-soilla.
Bi orma lodiz orniturikan
bere soka ta argoilla,
edonorentzat jolas-lekua,
arrantzaleen opilla.

2 Milla zortzireun berrogei eta
amaseigarren urtean,
eraikuntzako leen arria
jarri omen zan urpean.
Eun milla pezta inguru zuen
aurrekontuen trukean,
"San Antonio" kofradia ta
erriko ardurapean,
Madoz jaunaren laguntza ere
izan zalarik tartean.

3 Zer erentzia utzi ziguten
izan dezagun goguan.
Osin-txulo bat bezela dago
itsasoaren onduan,
illargitikan gertu izarra
egon izan dan moduan.
Galdetzen degu aldamenetik
pasatzen geran orduan:
"Au baiño portu politagorik
egongo al da munduan?"

4 Santa Barbara mendiak babes,
diz-diz dio eguzkiak,
itsas seaska dala dirudi
Getari bide azpiak.
Orma-kosketan egongo dira
arrantzaleen saskiak.
Egin litezke jauziak eta
artu ditezke bustiak.
Bertan igari ikasten dute
erriko ume guztiak.

5 Pasadizoan baldin bazera
ez zaitez joan ieska,
begira zazu portu txikira,
geldi zintezke mireska:
zaar edo eldu, ala sasoiko,
bai mutiko ta bai neska,
arrantza dala, jolasa dala,
beste batzuek saieska,
an beti norbait izango dezu,
askotan berriz gaiñezka.

6 Moillako jaien antolaketak
uda aldean du gaiña,
berri-itxuran apaintzen dute
urte askotxo du baiña;
kaioak ere abesten dute
eurek dakiten dultzaiña,
ango antzarren arrapaketa,
tranpolin eta kukaiña...
An biltzen diran mutil koskorrak
badakite, bai, guk aiña.

7 Txaluparen bat or izango du
beti tiliki-talaka,
sartu ta irten, jira ta bira,
lagun bi edo banaka;
bere lepoan emango zuten
nork daki zenbat palaka.
Milla olatu or datozkio
muxuka edo xaplaka...
Noek ez dakit bazuan baiña
guretzat bera da arka.

8 Arraunlarien eguna bada,
o adiskide maitea,
begiei poza ematearren
bertara urbil zaita.
Une berean etengo zaizu
tristura denen katea.
Ikusitzean jendez gaiñezka,
pakezko irriz betea,
zerorren baitan esango dezu:
“zorionaren atea”.

9 Txalupatxoak bere barruan
berrogei, berrogei ta bost;
geiago ere sartu litezke,
baiña lekua ozta-ozt.
Zeñen dotore egoten diran,
batek txirrist, besteak kosk.
Itsas olatu zakarrak ere
ezin diete egin osk:
etorri aala ormaz kanpotik
leertzen dira, *plost* ta *plost*.

10 Itsas beera dan garaietan
bere ur danak adio.
Une aretan esan daiteke
ezer ez dula balio:
batel txikiak ondar gainean,
ormetan lau oroldio...
Baiña berriro osatutzean
leengo ederra dario.
Ema itsaso zabalak ere
errespetoa badio.

11 Garai artako aitona aiek
asko kostata lortua,
betiko nai ta ezin orretan
itsatsi edo sortua,
eun ta ogeita amar bat urte
istoriak aitortua...
Zein polit zeran urez betea,
zeñen polit agortua!
Txikienetan txikia baiña
zu zera gure portua.

12 Erri polit au zerbitu dezu
ainbat urteren burutik.
Guk ez dizugu ies egin nai
iñoiz zure ingurutik.
Pasako dira belaunaldiak,
joango gera mundutik...
Portu txikia, isil-isilik
zu ortxe egon zut-zutik...
Txalo aundi bat jaso ezazu
zarauztar danon eskutik.

Zarauzko Santa Marina
bertsopaper-leiaketan
1. saria, 1995ean

Udarregi

1 995EAN, Udarregiren mendeurrena ospatu zan Usurbillen. Aia eta Usurbillen arteko erri-anaitzea ere urte artan egin zan. Urtean zear, jai-ekitaldi asko egin zan Udarregiren omenez. Santixabel jaiak ere aundiki ospatu zituzten, bertso-saio ta abar.

Aia eta Usurbillen arteko edo, obeto esanda, bi erri auetako bertso-idazle zaletuoi aukera eman zitzaigun bertsopaper-leiaketa baten bidez. Gaia: Udarregi.

Nik ere ondoren datorren bertso-sorta au eskeiñi nuen. Bigarren saria eman zidaten. Bertako seme dan Nikolas Izetak jaso zuen leenengo saria. Nere jaiotetxearen izena Izeta dala badakizute. Zeiñek irabazi zidan jakin orduko, auxe nion neure gisa:


“Ba, leenengo saria Izetako Nikolasek jaso edo Nikolas Izetak jaso alde aundirik ez dek izango akaso”.

Zorionak, tokaio.

- 1 Aspalditxotik asmo batzuek
zirikatutzen ninduten.
Izandu gera Udarregiren
jaiotetxea ikusten.
Uztataburu baserri ura
Aian bazala nunbaiten.
Tan-tan atea jo ordurako
bizkor ireki ziguten.
Beste famili bat bizi da gaur,
zein ongi artu giñuzten!
— Ezagutu al zenduten?
— Ez, ez; leen aldegin zuten.
Aren guraso agurgarriak
zer bide artu zituzten...
Olako leku polititikan
nora eraman ziñuzten?
- 2 Orduan ere izango ziran
eguna eta arratsa.
Bizitza dana ez da lorea,
badu beraren arantza.
Utziarazi zizuten Aia,
Usurbillera balantza,
jaiotetxeko orma lodiak,
soro, zelai ta baratza...
Aldakuntza ark adierazten du
bizitzeko esperantza.
Pasatzerako Andatza,
txistuka gurdi-ardatza,
txakurrek zaunka, ardiek *bee*,
astoak ere arrantza,
idi-pare bat tiraka zala
karraioketa garratza.

3 Artean oso txikia ziñan,
iru edo lau urteak,
nolatan jakin zer samin duen
jaiotetxetik joateak?
Itxi ziñuzten leioak eta
itxi ziñuzten ateak,
utzi ziñuzten etxe-jirako
intxaurrak eta arteak...
Oraindik ere an daude aiek
edertasunez beteak,
orduan bezain tenteak,
eduki arren mendeak.
Zuretzat jolas-lekuak ziran
zugaitz orien tartekak.
Andikan jaso al zenituen
bertsotarako arteak?

4 Joan Joxe Alkain zuen deitura,
izen-abizen aalitsuak,
esanarekin bat nabaitutzen
dira euskaldun kutsuak.
Geroago zan Udarregi ta,
gerora ziran bertsuak.
Aurtzaro ura oroitzapen du
Uztataburu auzuak:
“leenengo negar an egin zuen
mutiko irripartsuak,
leenengo bere pausuak,
leenengo itz eztitsuak,
leenen jolasak, leenen okerrak,
leenengo lo paketsuak...”
Biotz aretan zuen kabia
gure euskera gaxuak.



*Aian, bertako eta inguruko errietako bertsolarien txapelketan.
Erriko kulturetxean, kanporaketan: Pello Esnalek
kultura eta nik... agrikultura. 1988.*

5 Ego-aizeak eta iparrak
topo Usurbil parean,
izarrak ere kiñu bereziz
apaintzen ziran gabeen;
eguzki-printzen ederrak, berriz,
ez zuen uzten pakean.
Adierazi nai zuten nunbait
zerbait guztien artean,
Euskal Erriko lau aizetara
mezua eman naiean:
“Udarregi zutabeen,
urretxindor bat an beean,
beraren bertso berri usaia
zetorkieten aidean
euskal usoa egatu naian
ote zebillen sarean”.

6 Berealaxe oartu ziran
ingurumari aietan
bertso ederrak bazenitula
astean eta jaietan.
Arriz marrazten omen zenuen
idazteko garaietan,
eskolarikan gabea baiña
bizkorra zeure gaietan.
Sentimenetan biotzarekin
alaia, bai, alaietan,
partaide sariketetan
ta sagardotegietan,
zenbat irripar jarrarazia
plazetan ta eztaietan!
Oraindik ere zure loreak
dabilzkigu ezpaiñetan.

7 Izandu ziñan baiño geiago
ez zaitugu nai aunditu.
Zure egintzak gure erriak
ongi jasoak an ditu.
Euskera bizi dan bitartean
ezin zindezke amaitu.
Mendeurrena ospatze onek
garai aiekin bat gaitu.
Zaar eta gazte bildu ondoren
gauzak ditugu garaitu,
plaza illunak alaitu,
gero bi erri anaitu...
Zure gurdiak oraindik ere
txistu-soiñuak baditu.
Baina, Joan Joxe, noiz arteraiño
bear gaituzu saritu?

8 Bertsolaritza maite degunok
badegu, bai, zukan zorra.
Atzo ez bazan, gaur edo biar
ordaintzea derriorra.
Noizbait aurkitu zaitugulako,
gordeta zeunden altxorra,
orain dastatzen ari gerade
zure ondare jatorra:
Aia ta Usurbil gaurtik aurrera
anaiak gaituzu, orra!
Dantza-pozaren gandorra,
mingaiñez bertso-danborra,
oiukatuaz aitor daiogun:
zu gure urretxindorra,
bi erri polit auen izarra,
Udarregi illezkorra.

1995eko udaberrian

Usurbilgo Santixabeletan,
bigarren saria

Migel Indurain

IRUÑEA inguruko errixka bat da Atarrabia. Bertako semea da Migel Indurain txirrindulari aundia. 1991tik asita 1995 arteko Frantziako Tourrak jarraian irabazi zituen.

Ori oso erraz esaten da. Au da gogorra: zaletuok, artean, seigarrena ere irabaztea nai; edo geiago. Nik ere bai. Gero oartu gera ura ere amak egindako seme bat dala.

Bosgarrena irabazi ondoren, nere gisa bertso txiki batzuk idatzi nituen berari buruz; alegia, seigarrena ere irabazteko eskatuaz. Ez gera ase-errazak.

Seigarrengoan ere parte artu zuen, baiña ez zan aurreko urteetako Indurain aundia. Txirrindulari-leiaketak bertan beera uzteko erabakia artu zuen jarraian. Baita utzi ere.

Ondo egin dek, Migel. Sinistea kosta bazaigu ere, norbera izaten dek norberaren berri ondoen dakiena, ta ez albokoak.

Gaiñera, mundu guztiari erakutsi diok, bost Tour jarraian irabazteko, ona izatea bakarrik ez dala naikoa; buruz ere oso jantzia izan bear dala. Eta beti besteren esanei kaso eginda ere, ezin dirala irabazi; norberaren trikimailluak ere erabili bear dirala. Zorionak!

1 Bertso-sorta apal bat
nai nuke ipiñi.
Ondo merezi du-ta,
esango det zeñi.
Iñoiz jarri izandu
zaio edozeñi,
baiña gaur bereziki
Migel Induraini.

2 Kaixo, Migel, zer moduz?,
eta zorionak.
Ikusi dizkiagu
irudi sakonak.
Or gaituk telebistaz
begira egonak.
Gozatu dik txirrinda
gustatzen zaionak.

3 Kemenak erakutsi
dizkiek askori.
Kontatu genezake
millaka ixtori.
Orrenbeste egunez
jantziz ori-ori,
ikarragarria dek
lortu dekan ori.

4 Kirol-mota orretan
ik dekan adurra!
Zenbaitek egin ditek
ondotik agurra?
Ez diguk beean laga
euskaldunon lurra,
bost alditan jarraian
garaituaz Tourra.

5 Frantzian zear ogei
bat egun inguruz,
pasatua dezue
ainbat bidegurutz.
Naiz ta aurkako asko
eraso seguruz,
badakik menderatzen
zangoz eta buruz.

6 Txano txuri batekin
estali kalparra.
Ortzak elkarri josi
ta azaldu garra.
Ogeita amaika urte;
gaiñera, naparra...
Taldean nabari zan
irudi bakarra.

7 Asi baldin baintzan,
beingoz asi intzan.
Trinko murgildu ere
kirolen baldintzan.
Iregan ezagutu
diagu bizitzan
euskaldun errege bat
txirrindularitzan.

8 Indarrez eta zentzuz,
benetan osua.
Disimulu ederrez,
noiznai erasua.
Gizatasunez, berriz,
erabat gozua...
Garailleen garaille,
maisuen maisua.

- 9 Utsegiñikan ez dek
azaldu ezertan:
ordupeko, ordekan
eta aldapetan.
Idatzirik zeukatek
Eliseoetan
ire izen aundia
urrezko letretan.
- 10 Marka guztiak autsi,
kolpe borobilla,
diruz poliki eta
garaikurrak pilla,
joan bearko ukek
seigarrenan billa...
Amets ori egia
biurtu dedilla.
- 11 Bertsoak atsegiñez
idatzi dizkiat.
Ez dituk ulertuko,
pena artzen diat.
Nik dedan mintzo-eraz
atera zaizkidak...
Asko ausartu banaiz,
barkatu akidak.
- 12 Agur, Migel, zorte on
seigarren Tourrean.
Baldin irteten baaiz
lenen muturrean,
muchas gracias a todos
esan bearrean,
bota *eskerrik asko*
guztien aurrean.

1995eko udazkenean

Sakabi

“**S**AKABI” deitzen genion, Madarixako Sakabi baserrian jaioa zalako, Azkoitiko partean. Baiña bere izena Faustino zan.

Uste det 80 bat urte bazituela il zanean, 1995eko maiatzean. Gerra-garaian balaz eta abar zauritua, bizitzan zear bere metrailla-puska biotzaren ondoan eramán omen zuan. Baita mundu ontatik ere.

Garai bateko soiñu txikia jotzen zutenetan, maisua. Zenbat plaza koxkorretan jarri ote zuen trikiti-dantza? Zenbat mandiotan? Zenbat tabernatan? Builla aundirik ez zizun aterako. Zenbat eztaí edo ezkontza alaitu ote zituen? Neronek ere bera izan nuen. Alboan panderoarekin norbait izango zuen, beti edo geiengan. Eta artu auspo txiki ura bizkarran, ta martxa ara eta ona.

Garai aietan, ez zuten mikrofono eta adierazgarririk. Aulkitxoren baten gaiñean eseri eta eman auspoari.

Il zala jakin nuenean, alakoxe ikutu berezi bat egin zidan, eta ondorengo amar bertso auetxek jarri nituen. Baita Ordiziako Lazkao Txiki bertsopaper-leiaketara bialdu ere. Eta an, irugarren saria eman zioten bertso-sorta oni.

Urte artan bertan, 1995eko udazkenez, bera bizi izandu zan errian, Azpeitian, omenaldi unki garri

bat egin zitzaion Sakabi zanari. Zuzendaritzako batek dei egin zidan, esanaz omenaldi artara bertso-sorta au eramateko. Ez nien ukatu. Karta-azal aundi batean sartu txukun-txukun eta, esku-erakutsiak emateko garaia eldu zanean, Sakabi zana-ren emazteari eskuetan utzi nizkion.

—Eta zu nor zera, ba? —galdetu zidan amona jator arek.

—Ni naiz Nikolas Zendoia. Bertsolari edo bertso-jartzaille kaxkar bat, Sakabiren jarraitzailleetako bat.

—Eskerrik asko, gizon. Etxera joaten naizenean, aurreneko lana egingo det auek irakurtzea.

Gero, iru edo lau kantatu nituen, eta aurrera jarraitu zuen jaialdiak.

Doiñua: Leteren *Habanera*

1000000
Gaztetxo nintzelarikan,
igande arratsaldean,
leenengo erromerira
an joan nintzan aidean.
Jendea dantzan zebillen
binaka eta taldean,
trikiti-zarata, berriz,
plazaren baztar aldean.
Soinujotzaille xume bat
jarraulki txuri batean,
auspoari eragiñez
bere bi esku tartean.
Uraxe zala Sakabi
norbaiteri entzutean...
Argazki aaztu eziña
bizirik naizen artean.

2 Bi ubal beltzen barrura
bere besoak sartuaz,
magalean maitekiro
auspo txiki bat artuaz,
aal zuen era onenez,
ingurua gozatuaz,
beatz biurri aiekin
botoieri zapalduaz,
tibiri-tibiri otsa,
itxi eta zabalduaz,
anka ankaren gaiñean
bigunki gurutzatuaz,
alboan norbait bazuen
laguntzaille panderuaz,
illun-isladan amaitu
korruan-korruan juaz.

3 Entzuten eta dastatzen
begira nintzan egona,
trikitixak zekarkien
pake-usai, zoriona.
Denetik bildu giñan an:
gazte, aiton ta amona...
Alaitasunez beteta
dantzari nion emona.
Auspo artatik zetorren
armonirikan gozona.
Geroztik zenbat alditan
berarekin ara-ona!
Sakabiren irudia
umilla eta sakona,
amaika mandio-baztar
alaitutako gizona.

4 Uda-azkenez igo oi
izan giñan Erniora,
egunsentia baiño leen
taldeak mendian gora.
Iturriotzen atsedan,
gaztediaren girora,
gero joan-etorri bat
Muatzeko mandiora,
norbaitek esango zuen:
“Sakabi or ariko da”.
Salda beroa artuta,
goizeko dantza-saiora,
ariñ-ariñ ta trikiti
edo eta fandangora...
Nor ez zan inguratuko
Faustinoren ondora?

5 Zelatuneko borda xaar
aiek giñuzen amesti,
antxe gelditzea ere
ez zan izaten garesti.
Eguzkitarako itzal,
erauntsietan aterki,
Sakabi an izango zan
geienetan edo beti,
ardi bat bezain otxana,
itz-jarioz berriz ezti,
biraorikan ez zuen,
edonorentzat babesti...
Artzaien gordeleku ark
izketan baldin baleki,
zein gizon maitatua zan
esango luke ederki.

6 Santa Ageda eskea
eta oillasko biltzea,
auzo-jaietan polita
bait zan ala ibiltzea.
Leenengo eginkizuna
Sakabiri-ta deitzea,
taldea bruxa-abarkaz
ta makillaz apaintzea.
Gugana ekartzearren
ura zan aalegintzea.
Merezi zuen benetan
une aiek bizitzea.
Sarri esan oi zuena
nai genuke berritzea:
“Ez bedi iñoiz gertatu
oitura auek galtzea”.

7 Ezkontzetarako ere
zu ziñan ospe aundiko,
ainbat lagun bait zenuen
kaleko eta mendiko.
Egañazpiren laguntzaz,
begira gero zer biko!
Eskatzen zitzaizuena
zuek uraxe beti jo.
Neronen ezkontzan ere
aritu ziñaten tinko.
An besarkatu ninduzun:
“Zorion beroak, Niko”.
Argazki txuri-beltx ura
nola ez izan begiko?
Lauki batean sartuta
jasoa daukat betiko.



*Gure ezkontza-egunekoa. Sakabi eta Egañazpi, ni ta emaztea.
Eta or ezkerretik agertzen diran bi neskato oiek, emaztearen
bi aizpa txikiak: Maite eta Koro. 1967.*

8 Alderdi guztietatik,
erromeri abixua.
Bein itza eman ezkeru,
ura betetzen zintzua.
Berez gizaki apala,
itxuraz erdi izua,
arrokeririk gabea,
naiz ta izan jakintsua.
Plaza edo mandioa
arentzako berdintsua,
maite zuen dantzaria,
koplaria ta bertsua,
entzuten bazekiena,
arrazoizko berritsua...
Oroitzapenen ispillu,
garai artako maisua.

9 Zure pasadizo aiek
esaten asten baziñan,
entzuten erdi txoratzen
sarritan egon oi giñan.
Gerran ibili ziñala,
gorrotorik gabe baiñan,
ainbat tiroren artean
artu zenuela miñ an.
Geroztik bala zeurekin
biotz-mintzaren ixkiñan,
beragatik zenbiltzala
osasunetik tamaiñan.
Ez al zan medikuntzarik
uraxe kentzeko aiñan?
Zeure metrail eta guzti
mundu ontatik joan ziñan.

10 Soiñu txikien sendian
etxeko aita ziñela,
ondoren ikusgarria
emen utzi zenuela...
Zorionean geroztik
ugaritu diradela.
Badakit Euskal Erriak
omenduko zaituela.
Norbaitek artu ditzala
maillua eta zintzela,
karaitzarri beltz bizia,
gutxi litzake arbela...
Enparantzara eraiki
bere irudi ximela,
geroak aaztu ez dezan
Sakabi bat izan zela.

1995eko urriaren 22an

Irugarren, 1995eko Lazkao Txiki
bertsopaper-leiaketan

Veneziako usoak

NIK ere egin nuen Veneziara joateko lain modu. Egun artan bete nituen 55 urte.

Guk sua italiarra degunez, Gabon batzuetan famili geiena Italiara joan giñan amabost egunera-ko. Ez nolana, gaiñera: egunero lanean erabili oi dedan furgonetarekin; baita Veneziaraiño ere. Aundi eta txiki, sei lagun giñan; eta goiko txori potolo oietan joan-etorria egiteko, txanpon asko bear da.

Ba, jarri det nere furgoneta ori txukun asko. Iru urteko autsak kendu leenengo; gero, zapata berriak jantzi, kurpillak alegia; beste eserlekualdi bat, andik atzerakoa, egurrez tranpaillu bat egin nion; azpian, trasteak, arropa, jana eta abar; gaiñean, bi koltxoirekin furgoneta beteko oea, nai zuena etzanda edo lotan.

Joan-etorria, oso ondo. Azkenerako, jakiña, nekatu egiten zera.

Verona ingurukoa da gure sui ori, eta andik 100 bat kilometrora dago Venezia. Egun batean, joan bear zala, ba, ta bai joan ere. Artu furgoneta, ta martxa. Egun bat pasa genuen Venezian.

Neri ez zidan egin orrenbeste grazi. Negua ere bazan, ta eguna motxa. Daukan aiña fama edukitzeko, naiko zikiña iruditu zitzaidan.

Jende arrotza zebillen asko: alderdi askotako jendea, alegia. Baiña nik bereala aurkitu nuen bertso-sail bat jartzeko gaia: an ikusi nuen uso-pilla ura.

Beraz, Venezia eta ango usoei amabost bertso auek jarri nizkien. Amabost eguneko lana au izan zan: egunean bertso bat.

Ea gustatzen zaizkizun.

Doiñua: *Ai, gure antzinako*

1 Aspalditik nengoen
bidai ametsean...
Venezian izan naiz
aurten ilbeltzean,
berrogeita amabost
urte betetzean,
bertako irla eta
itsaso-ertzean...
Badet zer kontatua
andik etortzean.

2 Izkuntza ulertzeko
ez nintzan abillen.
Zirrikitu guztiei
begira nenbillen.
Nazio askotako
jendea zebillen:
ingles, aleman, txinar,
japonesak gailen...
Norbaitek jakingo du
zer tratu dabillen.

- 3 Kale antzeko bide
estu eta auzoz,
astiro nindoala
tipi-tapa pausoz,
leio-koxka guztiak
beterikan usoz,
nunai bitxi-denda ta
taxiak itsasoz...
Ia-ia aaztu nintzan
munduko arazoz.
- 4 Ango arkuko zubi
ta ango gondola,
ango torre arrizko
ta ango farola.
Ormak eskuz landuak,
gaiñera marmola...
Noizbait eginda daude
nik ez dakit nola,
baiña txukundadea
auzoan dagola.
- 5 Ango joan-etorria
geiena da urez.
Ontzi-ibilgailua
ornitua zurez,
kapeladun igar bat
gidari ta juez,
bete genuenean
atso ta agurez,
auxe galdetu nuen:
“seguru al gaudez?”

6 Nola ez dakigun guk
jan gabe egoten,
ara nun sartzen naizen
“meson” txiki baten.
Dardaraz jardun nintzan
pizza edo jaten.
Azkenean kontua
ekarri zidaten...
Ia koxkabilloak
kendu zizkidaten.

7 Noizbait iritsitzean
San Markosko plazan,
orduak aurrera ta
garaia ere bazan.
Usoen erauntsia
antxe nuen jasan.
Begira egon nintzan
ordubete pasan...
Une ederrik bada,
neretzat ura zan.

8 Arto-alea saltzen
ara bi amona.
Bat zan Luxiana ta
bestea Ramona.
Denborapasa eta
gaiñera lan ona:
uso-janaren truke
kolkora txanpona...
An daramate gaurra
ta biaramona.

9 Milla ta bosteun lira
zan arto-zorroa.
Ez det uste danikan
salneurri artoa.
Egunero ustutzen
zutela karroa,
naiz negu guztian ez
pasa katarroa...
Gertu bear lukete
aiek Nafarroa.

10 Amonak irripartsu
lirak pillatuaz,
turisten patriketan
xoxak billatuaz.
Buruak estaliaz
loredun trapuaz
aiek pozikan zeuden
zeukaten tratuaz...
Ogia irabazi
artoa salduaz.

11 Señora dotore bat
nuen an ikusi,
tigre-larruz jantzia
koillare ta guzi.
Gajo arek ez zuen
nai ainbeste luzi,
usoek zirinduta
zutenean utzi...
Biraoka bazekila
zuen erakutsi.

12 Andra ori jarri zan
txinparta ta suan,
ziriña bizkarrean,
ziriña besuan,
usoei ostikoka
pausuan-pausuan.
Ez zait aaztuko nere
bizitza osuan
gora begira nola
errezatu zuan.

13 Neu ere banijoa
amona batengan,
arto-zorroen billa
ume baten eran.
Berreun bat uso urdin
an datozkit egan...
Venezian izanda
zer ikasi dedan:
badakit usopean
egotea zer dan.

14 Apaiñago ez nintzan
sekula egongo.
Dirudi une batez
nindutela jango.
Uso otzan aiekin
arriturik nago.
Neure buruai nola
ez nion esango
geiago ez naizela
eiztari izango?

15 Pasa Frantzia eta
Itali esia.
Bidaia or irten zait
guztiz berezia.
Lan egin duen batek
zuen merezia.
Izan det zer ikusi
ta zer berezia...
Agur, uso politak;
agur, Venezia.

1996ko ilbeltzaren 21ean



*Gure aita, saritu zioten bei suizoarekin,
Zarauzko Munoan, 1965ean edo.*

Aitona ferira, amona aserre

AMONEK pazientzi pixka bat geiago artuko balute, aitonok makina bat obetoago ibiliko giñake. Ez diegu, ba, asko eskatzen: pazientzi pixka bat geiago, eta kito.

Baiña, alperrik. Ori ez degu lortuko. Eta orduan zergatik jartzen dizkigute arropak eta gauzak txukun-txukun, e? Orrek esan nai du, ba, joan gindezkeela.

Orduan, ez jarri orrenbeste aitzaki eta orrenbeste txurumurru, kontxo!

“Bart ere berandu. Oiek dira oiñetakoak ekarri dituzuna! Alkandora txuriaren paraderoa! Galtzak puruarekin zeñnek ikutu dizkizu? Oraindik ere ardo-usaia botatzen dezu. Txanponak ere... Zein ziñaten elkarrekin? Nun afaldu ote zenuten? Etxean isillago ezin sartu! Nundik nora ibili ote zerate?”

Baiña, zer krixto! Ez ote dira fiatzen edo? Eta au da polita: kalera joanda elkarrekin amonak jartzen diranean, ez omen dute aitonon aurka ezer esaten. Eta eurak apariren bat dutenean eta, orduan, berriz, famatu egiten omen gaituzte.

Mekasuen la krixma! Ederki gitxaudek! Fama nai degun bakoitzean amonak afaritara joan bear badute... Oño! Or zegok, ba, koxka!

Ezta kasorik ere. Eta, ¡hala por ahí!

Jarriko ditut bertsoak, bai, eta or konpon. Kanta ditzatela, ni parrandan naizenean.

Doiñua: *Udaletxean badut*

Aitona: Amona, ez da motxa
gaur goiz-errezoa,
aske daramakizu
mantala-lazoa,
txintxosta ere naiko
biurri jasoa...
Norentzat da olako
marmar-erasoa?
Su gaiñean saltoka
or dabil kazoan,
ez daukagu urrean
gosari gozoa.

Amona: Zer txintxost edo motots,
kazo eta mantal!
Oker al darabilzkit
orrenbeste atal?
Atzo feria zan da
asi zera *tal-tal*,
mingaiñez zaude abil,
ekintzetan makal.
Ez zan zertan egonik
zauden bezain pattal,
etxeratu baziña
goizago ta apal.

Aitona: Obe izango det, bai,
aurkeztea bigun,
bart xelebrequeria
nola gerta zaigun.
Auzoko Joxe Praixkuk
txurrut egin zigun,
ezin genuen laga
bakarrikan iñun.
Gizajoak bidean
zer lan eman digun!
Argatikan pixka bat
luzatu zitzaigun.

Amona: Ai, xaxpiki, xaxpiki,
zuk zeurea uka!
Auzokoen txurrutak
zer ikusi dauka?
Betiko kontu orrek
moiñoraiño nauka!
Txakurrak ere beintzat
egin zizun zaunka.
Abarka ta mantarrak
jazte ori buka,
orrela egon gabe
doministikuka.

Aitona: Komeni zaizkit txapel,
abarka ta bota.
Leengo arratsekoa
nai nizuke konta,
zu ez zera ezertaz
gogoratuko-ta:
oetik tapakiak
zenizkidan bota,
kolkoa agerian
egin nuen lo ta...
Orain argatik nago
katarroak jota.

Amona: Ara, ara, badegu
kontu arrarorik!
Amets egin zenuen
artu gabe lorik.
Amonak ez zizula
epeldu kolkorik?
Ai, aitona gordintxo,
zu bezelakorik...
Obe zan ez bazenu
erre zigarrorik!
Ferira joateko
ez zan katarrorik.

Aitona: Au errosarioa
feri ondorenez!
Berrogei mixterio
ditu gutxienez.
Gosalduko al degu
taloz eta esnez,
gogoratuaz geure
alaba ta semez?
Bidaia bat antola
genezake trenez...
Orain bada astia,
amona; leen ez.

Amona: Banoa eroatera
bastaia ta poltsak,
brilloakiko bruxa,
soiñeko arrosak.
Zuk ere obe dezu
konpontzea ortzak.
Ezin egongo gera
zaartutako lotsak!
Guk ere bagiñuzen
jolasaren pozak;
gaur burua beroa,
baiña anka otzak.

Aitona: Familia azi ta
gaude erdi bakar,
irugarren adiñak
badu naiko makar.
Jolasa joan zala
esan dezu azkar,
baiña orrek etsipen
aundirik ez dakar:
naiz geldituak gauden
azal-ximur, lakar,
maitakeririk gabe
maite leike alkar.

Amona: Zertarako tristetu
utsan gorabeeran?
Goazen, goazen norabait,
esan degun eran,
leenengo aldiz nola
gogoz jarri zeran,
abioiz, trenez, barkuz,
zaldiz edo leran.
Zaartzaroko txanponak
baletoz aukeran...
Diruz ez dakit nola
ibiliko geran.

Aitona: Astuna izan da, bai,
bizitzaren lorra,
urte askoren jabe
egin gera, orra!
Aitzaki txiki danak
biotzetik borra.
Iñoiz ez gera irten
emendikan orra,
bein da berriz egingo
bada ere zorra,
negua pasatzera
goazen Benidorra.

Amona: An ez degu bearko
kazo dantzaririk,
lazodun mantala ta
motots biurrik,
oraindik gutxiago
San Martin feririk
edo auzoko Praixku
orren aitzakirik;
oetik ezingo da
bota tapakirik...
Bestela ez dijoa
amona Pilirik.

1996ko ekainaren 16an

Oiartzungo on Manuel Lekuona
bertsopaper-leiaketan
3. saria

Atotxan

NI futbolari buruz izketan jarri edo astoa alda-rean meza laguntzen jarri, ba, parekoak giñateke.

Ez diot kirola orri jarraitu. Bearbada, nere tokian edozein zaletu zitekeen gaztetan. Jaunartze nagusia amabi urterekin egiten zan orduan, eta dotriña ondo ikasita, gaiñera. Orretarako, negu bat Zarautza eskolara etorriaz pasa nuen. Eta Angel Iribar atezain aundia ta biok maai batean egoten giñan. Ni baiño urte bat gazteagoa da. Artean ez ziztaion deitzen Angel Iribar, baizik Angel Makatza; Makatza etxekoa bait zan, au da, Makatzanekoa.

Andik lasterrera asi zan bere urratsak ematen. Ura beti bere belaunak urratuta ibiltzen zan ordu-rako ere, beti lurrera saltoka.

Ni ez nintzan iñoiz joan Makatza ikustera. Nere gurasoak eta Angelen gurasoak bazuten naiko artu-eman beren baserri-tratu ta abarrez. Mutil on bat zan Angel. Ura igande-goizetan mendi-buelta egitera zijoanean, gure etxe-atarian pasatzean, gure aitari edo amari geienez aupatekoa egingo zien: "Aupa, Joxepa, edo aupa, Joxe Mari; banijoa goialdera".

Bakarrik esan nai nuen ez naizela futbol-zalea, ta noraiño joan naiz. Barkatu.

Atotxari buruz nindoan esatera. Lagun batzuk baditut nik futbol-zaleak. Bein, erdi bromaz edo, esan nien bi lagun oiei:

—Beno, mutillak. Atotxan azkeneko partidua danean, esan, e! Ni ere joango nauk zuekin.

Ez, futbola ikustearren; Atotxa ezagutzearren.

Aiek pekatu pentsatuarekin, igande-arratsalde bateko seietan lanean ari nintzan tokira etorrita:

—I. Ik esan iguken Atotxako azken partidua ikusi bear uala. Bai, ba, emendik ordubetera asiko dek.

—Au dek marka, au!

—Itzekoa baaiz, goazen.

An goaz presaka, lagunak neri parrez. Sartu giñan jende tartean aurrera. Atze batean, gure iru jarleku. Ango builla! Ango biraoa! Nik ez nuen ezer ikusi. Ura aspertua! Nik esan nuen:

—Sekula sekulorun, au ez dek neretzat egindakoa!

Ondorengo bertso-sorta au futbol-partidu ari buruz jarritakoa da.

Doiñua: Esne-saltzaillearena

Jaunak, bein izan nintzan
ni ere Atotxan:
azken partidua zan
erreal antortxan.
An bildu zan jendetza
ez zegoen otxan.
Ez zitzaizkidan joan
bi orduak motx an.
Obe artu banuen
eguzkia Kontxan.

2 Iñoiz ikusi gabe
zelaiko futbola?
Ain gertu edukita,
baiña ori nola?
Joan bear nuela,
bai, arraiopola!
Jendea txispa biziz,
noiz elduko gola...
Nik ez diat luzaro
itxarongo ola.

3 Ogeitaka mutillak
zelaira atara,
lutodun ark baloia
jarri anketara.
Asten dira lasterka
alde banatara;
jostailua zijoan
toki danetara...
Tarteka iristen zan,
bai, bi langetara.

4 Txistudun petraltxio
beltx arekin ojo!
Biboteduna eta
izenez Juanjo.
Ura ez zan gelditzen
erren edo kojo;
besteeri agintzen
saiatu zan majo,
eta berak ez zuen
bakar bat ere jo.

5 Baloi txuri-beltz pinto
aren kiligramak,
iñun gorde eziñik
ark zituen lanak!
Millaka zankokada
baziran emanak,
kulpa aundirik gabe
artu zituanak!
Berari ostikoka
bat ez beste danak.

6 Epailleak berekin
epaiaren giltzak,
txilibitu xaar ari
astinduaz iintzak.
Ez zituen onartzen
zenbaiten ekintzak;
birauak ta txistuak
ikusle bakoitzak,
“*hijo de no sé qué*” ta
orrelako itzak.

7 Donostiarrak gola
zuten bakoitzean,
zirudien geundela
eroen etxean.
Itxaperuak *pan-pan*
goian leertzean,
uso-kaio-enarak
ura nabaitzean,
danak an gorde ziran
Igeldo atzean.

8 Beste askoren gisa
begira nenguan,
nere moduko kaiku
batzuen onduan.
Alkizak zankoka bat
nun luzatzen duan,
baloia zelaitikan
irten zan orduan.
Norbait jo bear eta
jotzen nau buruan.

9 Bein joango ta bertan
gerta zitekeenik!
Goruntz begiratzeko
ez nuen kemenik.
Irripar gabe ez zan
nere aldamenik;
esker eman baloia
aizezkoa zenik,
bestela ez zegoen
gaur nere izenik.

10 Amazazpi bat milla
ikusle bagiñan,
builla ta zarataka
egonduak piñ an.
O, lagun futbol-zale,
oartu al ziñan?
Ura milloi mordoa
Haziendaren tiñan!
Obe bageneuzkake
apala ixkiñan.

11 Errealaren alde
bi eta bat golak.
Atotxa zaarrantzat
azkeneko borlak.
Ozeano beltzari
txaloen kartolak,
bein ta berriz agertu
bait zituen bolak.
Orrenbeste eromen
zuenik futbolak!

12 Obe da futbolari
artzea tamaiña,
ulertuaz azpia,
ulertuaz gaiña.
Neri beintzat eman dit
aspertu bikaiña.
Or ez det itsutu nai
zenbait oi dan aiña,
txuri-urdir mutillak
maite ditut baiña.

Zarauzko Santa Marinatako bertso-paper-leiaketan,
aipamen berezia, 1996an

Xoxokumea

(Amar egun aiek gogoan:
uztaillaren 4tik 13ra)

BERDEGUNETIK mutikoak jasotako xoxokumeak amar egun iraun zizkigun bizirik. Txori bat maitatzeko, naikoa izan nunbait amar egun. Eta alakoxe pena bat sortu zitzaigun etxeko denoi.

Batzuetan, gauza aundiaren bearrik ez da zenbait ondorio sortzeko. Gaiñera, olakoetan, geien nork zaintzen duen ura izaten da errudun. Kasu ontan, neroni.

Azkenetan ikusi eta berdegunean berriro laga asmoz neramakiela, eskuetan il zitzaidan. Naigabe ura gutxi balitz bezela, etxekoen armoniak ere jasan bear izan nituen. Alegia, nere erruz il zitzaigula.

Etxekoen jardunagatik ajola aundirik ez zidan, baiña xoxokumearen amaiera ikusteak onako bertso-mordoxka au gogorarazi zidan.

Doiñua: *Ai, ori begi ederra*
(egokitua)

berroak Gure mutikoarengan
nola zerbait suma dedan,
galde egin diot zer dan.
“Aita, xoxo bat aurkitu degu,
oraindik ez daki egan”.
“Jaso zazu ta jan eman,
ea aundia azten dan”.

- 2 Ondorengo egunetan,
mutiko traste auetan,
beti beren eskuetan.
Esaten nien xoxoak ori
txarra duela umetan.
Bero bazan, *zazt!*, uretan,
gaixoa otzak gauetan.
- 3 Xoxo gaztea txepeldu,
gauetz ez bait zan epeldu,
orra aulezia eldu.
Diz-diz egiten zizuten luma
politak ere ximeldu.
Begira nintzan goibeldu,
ta errukia gaillendu.
- 4 Goizean bi ogi-zopa,
nolatan zuri ez opa?
Saiatzen ziñan mokoka.
Eta ondoren zeure txokora
bazoazela saltoka,
isiltasunean koka...
Nik neure lanera ospa.
- 5 Zu pixkortu ta zu pixtez
pozten naiz txio-albistez,
aseko zaitut alpistez.
Zeiñen leiala zeran, xoxoa,
gizonarengan sinistez!
Ez naukazu une tristez
zorion ori iristez.

6 Pozak iraun zuen gutxi,
zuk bizitzeari utzi,
lumaz juxtu-juxtu jantzi.
Ego motx aiek asita zeuden
noiznai zabaldu ta itxi,
airez ibiltzeko bitxi...
Baiña ez ziñan iritsi.

7 Goiz batean sukaldera,
egunarekin batera,
eldu nintzan gosaltzera.
Salto mantxo bat egin zenidan
maai gaiñetik magalera,
lagunaren babesera,
“gaixo nago” esatera.

8 Egun-erdiz bazkaltzera
etorri nintzan etxera,
ta xoxoa buruz beera.
Ito eta jan bear nautela:
“Zer ematen jardun zera?”.
Neurtu naute Judasera,
iltzaille baten antzera.

9 “Orain nola alperrik dan,
marmar-kanpairikan *din-dan*
ez zazutela jo nigan.
Zer arraiotan busti zenuten
baldeko uretan bitan?”.
Entzun egin ote zidan?
Eskuetan il zitzaidan.

10 Lumaz osatu paparra,
bai eta ere kalparra,
bazeunden naiko azkarra.
Ni neu izanik zuri laguntzen
aritu naizen bakarra,
gero neuri il bearra...,
kenduko ez zaidan arra.

11 Etxekoen erasoia:
"Maite genuen xoxoa,
zuk il diguzu gaixoa".
Ongi egiten jardun ta gero,
ez naute ontzat jasoia.
Aurka famili osoa,
aserrearen lazoa.

12 Maitasuna nuen zugar
eta astindu zintudan
bizitza motx aren mugan.
Baiña zer egin ote dizute
edo min eman dizudan?...
Emen uzten nauzu dudan,
jaio ta il zeran udan.

13 Gogoan daukat malkoa,
bazkalondo artakoa,
zuri isuritakoa.
Nere eskutan eman zenuen
azkenengo ostikoa,
betiko itxi mokoa,
xoxo beltz biotzekoa.

14 Semetxo, zaitut nabaitzen
nola zotinka zabiltzen
ta ez zerala isiltzen.
Berdegunera geiago datoz,
begira nola dabiltzen.
Oriek ez dira iltzen...
Laga xoxoei bizitzen.

1996ko uztailaren 28an

Bigarren, 1996ko Basarri sarian

Jaio ditezela biak

I 996KO uztailean, albiste au zabaldu zan telebista eta irratietan: emakume atzerritarren batek egin nai zuena. Aurdun zegoela, bi aur gaiñera bere sabelean, baiña bat aski zuela eta bestea galdu egin nai zuela. Ori, bere erabakia.

Orrelako zerbait entzun nuenean, nereko nion: "Kontxo. Oraindik ere bazeudek gizaki buru-gogorak. Aurdunaldia ongi zaintzen ikusi izan ditut nik geienak, sano etorri dedin; eta bi baldin badira, berriz, oraindik kontu aundiagoarekin". Itxura danez, emakume ura, alderantziz: il naian.

Izango ziran an zenbait arrazoi, orrelako ekintza bat burutzeko: dirua tarteko, edo medikuen propaganda, edo ta aurrerapenen propaganda, edo nork daki zer. Dana dala, leenengo, barruak agindu bear du.

Nik ez dakit gauza ura zertan geratu zan; eta zer ikusi gutxiago oraindik. Bakarrik, egoki ez zitzaidan iruditu, eta bertso auek jartzea erabaki nuen.

Doiñua: Aurtxo txikia negarrez dago

I Aitaren eta Semearen ta
Espiritu Santuaren!
Entzuten diranak onartzeko
ez dakit prest ote gauden.
Amagai dan baten albistek
lur jota utzi ninduen:
barnean bi aurtxo dauzkala ta
bat nola galdu nai duen.

- 2 Atzerritarren bat omen zera,
Londres edo Pariskoa.
Irratiz zabaldu dan berri au
norentzat da grazizkoa?
Bat kentzen asita bi galtzeko
badaukazu arrixkoa.
Zerekin bigundu ote leike
zure biotz arrizkoa?
- 3 Gaur egun mediku-ekintzetan
goi-maillak lortu dituzte.
Milloien jokoa ere barne
izaten dala nik uste.
Baimena ematen badiezu,
kendu, kenduko dizute,
baiña zer, sabela ondatuta
uzten baldin badizute?
- 4 Maitatzen ikasi bear degu
maitasun baten grazia,
munduko argira sor ditezen
irudia ta bizia.
Nolabait zeureganatu dezu
bi kimu oien azia...
Dirudienez, bat gozoa da;
bestea, berriz, gazia.
- 5 Arritzen gera zer asmo dezun
aurrez adieraztea,
lortuta gero zure sabela
bi aurrez aberastea.
Deabru-ekintza derizkiot
bat deseginda uztea.
Laguna kenduko bazenio,
biziko al da bestea?

- 6 Maitasun-arreman ondorena
 mirari zaizu egiña:
 itsatsi diezu biotz bana,
 esku ta begiak biña.
 Biki bat kentzean, bakar ori
 geratu leike erkiña...
 Gaixoak ez dauka zer jasorik
 saiets galduaren miña.
- 7 Bitik bat soberan daukazula,
 itxura danez ala da,
 zer galtzen dan ere jakin gabe:
 semea edo alaba.
 Zeuretzat artu nai dezun ori
 gaixorik etortzen bada,
 arren ta arren, ene andrea,
 ori ez, al baldin bada.
- 8 Zergatik ez dezu ospatu nai
 bi aurtxo oien jaiotza?
 Batentzat bizitza opa dezu,
 bestearentzat aiotza.
 Nun dago amaren errukia,
 nun dago zure biotza?
 Nun dago aurraren utsunea,
 an dago bere *ai!* otsa.
- 9 Bi aurren sorkuntza sabelean
 gertatzen da banan-banan.
 Zorion ortara iritsi ta
 zergatik nai ez eraman?
 Orrela dijoan andra batek
 zer edertasun daraman!
 Baiña bat galtzera joatea...;
 pekatua nun, ama an.

- 10 Tamalez bakarra bada bera,
osorik jaio dedilla.
Aingeru-eskuz igurtziko du
amaren musu-masailla.
Baiña ez ote zaizu sortuko
zalantza isil-isilla:
zu maite naian dabillen ala
biki lagunaren billa?
- 11 Norbaitek esango balio zer,
aur orri, azten danean:
“Laguna bixkia bazenuen,
zeurekin aldamenean”...
“Amatxo iltzaille bat al zera?”,
galdetzen dizun unean,
izango al dezu erantzunik
zeure biotz illunean?
- 12 Andrea, oraindik garaiz zaude:
barkatu diteke dana.
Maitasun berdiña jar ezazu
zeureak diranengana.
Ondoren aingeru oiek artu
zure bi besotan bana.
Orduan esango dizut: “Zu bai,
egi-egitazko ama”.

1996ko abuztua

Ogeita zazpigarren bandera Oriora

ONDOREN datozen amabi bertso txiki auek Orioko arraunlariei eta bi patroei buruz jarriak dira.

Milla bederatzireun eta larogeita amaseian, iraillean, Donostiako Kontxako ogeita zazpigarren bandera Oriora etorri zan. Urte bat geroago, ogeita zortzigarrena ere ekarri zuten. Baiña bertso auek, ogeita zazpigarrena irabazi zutenean, egun ari buruz egiñak dira.

Orduan, bi patroei zituzten Orioko arraunlariek: bertan bizi zan Korta eta bestea, Txiki; au zarauzterra. Biak onak, baiña maixua Korta; zaaragoa ere bai baita. Bein batek jokatzen zuen, bestean besteak.

Patroi zaarrak gaztea, Txiki, oso maitea zuen, naiz eta Korta jenioz gogorra izan. Mutillentzat gogor samarra omen zan. Baita bear ere. Bestela, Kontxako orrenbeste bandera nola irabazi? Izan ere, Orion aspalditik dator arraunlarien arraza. Jarrai dezala aurrera ere.

Ba, adiskide, emen datorkizu bertso-sorta potxolo au, Orioko balearen doiñuan. Lepoan zapi ori bat lotu, ta kanta itzazu Orioko zubian, giro ederra dan batean.

- 1 Asmatuko ote det
nere bertso-sorta,
pixka bat aitatuaz
Joxe Luis Korta;
banderak irabazi
arta edo orta,
aurtengo ontan beintzat
ez da gaizki porta.

- 2 Asiera batetik
naiko era txontxan,
iritsi eziñikan
motx emen ta motx an;
arrotzen joan ziran
leen ziranak otzan...
Dana dala, garaille
irten dira Kontxan.

- 3 Asi aurrez entzuten
genion Kortari
aolkuak ematen
mutiko-sortari,
bati ta besteari:
“ongi porta adi”.
Irabazi ezker
bost inporta ari.

- 4 Trainerurik onenak
Kontxarako ziran,
ara estuasunak
nola sortzen diran;
danak *bristi* ta *brasta*
eldu eta tiran,
San Pedro orpoetan,
parez pare Tiran.

- 5 Arraunak sartu beera
gora jeiki aala,
olatu-aparretan
aruntz joan dirala;
Txikiren ziaboga,
berriz, mundiala,
oraindik ez ote da
naiko aundi ala?
- 6 Kortari urrutitik
entzuten nizkion
taldeari zer oiu
egiten zizkion;
parra ederrak beintzat
egin genizkion...
Lepoko zaiñak ia
eten zitzaizkion.
- 7 Irabazi ondoren,
ura pelikula,
barrengo poza Kortak
ezin disimula:
malkoak begietan
zintzilik zitula,
mutillak besarkadaz
jan bear ditula.
- 8 Iñoiz galdu ezkeror,
patroia aitzaki;
irabazitakoan,
ezer ez da gaizki.
Nolatan deitu orain,
egiñaz "atxiki":
Txiki ta Korta ala
Korta eta Txiki?

- 9 Zer esan arraunlari
mutiko oori?
Puntako mailla dala
lortu duten ori.
Erriko balkoi danak
zeuden ori-ori...
Ondra bat geio eman
zaio Oriori.
- 10 Etorri ziranean
bandera ta ontziz,
erritar guztiak zai
begiak igortziz;
arropa oriz asko,
gutxi alderontziz,
arraun-jaia elkarren
biotzetan josiz.
- 11 Orion arraunketa
ez dago illikan.
Leenago ere bada
bandera-saillikan.
Ogeita zazpigarren
ori zintzilikan
ederki omen dago
isil-isilikan.
- 12 Or dute San Nikolas
laguntza jarion,
begira zer emaitza
ederra darion.
Korta-Txiki mutillei
millaka zorion...
Kasta orrek jarraitu
dezala Orion.

1996ko iraillean

Illunabar eder bati argazkia

ZER da illunabarra? Asko itz egin da onetaz. Nik ere zerbait esan nai diot.

Badira illunera ederrak, illuntzea merezi ez dutenak ere, "beste olako bat noiz izango ote da?" galdetu oi ditugunak.

Iñoiz olerkiren bat ere bururarazi oi digu illunabar ederrak. Eta zenbat amets sortu? Berdiñik ez duen argazkia.

Lurbira oso-osoak duen argi-itxaltze mantsoa.
Ta badirudi gaez ez dala egunak duen altzoa.
Berealaxe gaurrari deitu genezaioke atzoa.
Argi-illunen aldaketa da deitura auen lazoa.

Inguruetan diran tximinietako keak, aideak agortu. Odei txuri arin aiek, nork irentsi ote ditu? Miñik ematen ez duen aize gozo au, nundik atera ote da? Urrutiko txakur-zaunkak garbi-garbi entzuten dira. Baita ere auzo-errietako tilin-talanak. Illunabar ederrari zerk egin enbarazu?

Ara, ara, xapoak, *fi ta fu, fu ta fi*.
Orkesta sortu zaio zenbait zubiperi.

Txistua edo kanta, zer dute jario?
Auzokoak berdintsu erantzuten dio.

Urritz-sastraka itxi oietan txolarreen armonia.
Otaratzean abesten dute egunaren agonia.
Arratsa gozo datorrenean, ori da euren mania.
Zein izkutuan, zeinen isilik, jaso loaren mamia!

Zer mamorro dira auek?

Kakalardoak datoz burrundada joaz.
Ipurdia zintzilik dutela badoaz.
Mutikoak atzetik, erratza jasoaz,
eratsi ta burrukan jartzeko asmoaz.

Illunperako begiak dituzten egazti lumatsu oiek
ere esnatu dira.

Gaztain-burua utzi bere azal ta zotz.
Basotik irten dira jarraian iru ontz.
Bat gaiñera txuria, beste bi buru-motz.
Gaur gauean badegu naikoa u-u ots.

Izaki nekatuak atsedentzeko, begiak ixtea beze-
lakorik, eta begiak ixteko illunpea baiño oberik zer
da? Zeiñen ederki egiña dagoen gu bizi geran
mundu potolo au!

Jarraitzen du illunabar eder onen argazkiak
bederatzi bertsoan.

Doiñua: *Itziarren semea*
hori duk mutila
(egokitua)

1 Mendi-puntetan zear
odeien etena,
eguzkiak eman du
eguneko dena;
izkutatzear dago
goizean irtena...
Munduko argazkirik
ikusgarriena.

2 Irudi-artzaillea
bear det dispara,
itzaltzera dijoan
eguzki-txispara,
xaguzarrak ikusten
ditudan islara...
Illunpera baino leen
jaso nai bistara.

- 3 Enarak gordearren
teillapeetara,
kirkillek ez diote
kantuari laga;
bildotsak *txilin-txilin*
zelai-gaiñetara,
ausnarrean egiñaz
ospatzera gaba.
- 4 Katagorria ere
intxaur-adarrean,
noiznai ez da ikusten
illunabarrean;
polit ura an dabil
goiko muturrean
eta txakur txikia
begira lurrean.
- 5 Zeru-sapaia bezain
urdin itsasoa,
olatu geldiekin
apal ta gozoa;
batel txikiz jantzia
kaiaren auzoa,
txitxarro ta txibiak
bada nork jaso.
- 6 Egazkiñaren kea
biurtu da ori,
illunera ederrak
margotzen du ori;
egoaizeak laztan
alderdi askori...
Otaratu nai ez-ta
dabil zenbait txori.

- 7 Eguna ta arratsa
ditugu bi mundu,
illunabarra tarte
gaurko au bigun du;
itsasoa baretu,
ekaitza urrundu...
Irudi polit auek
zergatik illundu?
- 8 Illargi-erreñua
ari da iristen
ta izar bakar batzuk
asi dira pizten;
euren keiñuak goitik
lurreraiño jeixten...
Egongo dala zerbait
jarri naiz sinisten.
- 9 Argitik mantxo-mantxo
gaitu illunak ar,
gau-iintzaren zai orra
ainbat zuaitz-adar;
une lilluratuak
argazkiz ta abar
jaso dizkizut eta
gabon, illunabar.

1997ko apirilean

Manuel Lekuona sarian, irugarren, 1997an

Bein batean Loiolan

Nik ere izan nuen jesuita joateko konbita, bazutela neretzat ainbat toki ta

ONDORENGO bertsoetan, gogo-jardun bartzuen berri azaltzen badet ere, bertsoetan danak ezin esan eta, gaiñerakoak idatzi labur ontan jarriko ditut.

Bai. Udaberri aldea zala uste det. Urtea: 1959 ingurua. Nik emezortzi urte nituen. Gure ama orri fraile edo apaizen batek burua berotu dio, nunbait, seme-alabak gogo-jardunetara bidaltzea ona dala ta, "kaixo, motel", neri tokatu.

Aitak naiago izango zuen ez joatea baiña, patak ere artean ereiteko bait zeuden, eta astebete batek faillatzea baserrirako oker aundia izaten zan. Dana dala, igande-bazkalondo batez, artu pardela eta martxa, txistutan egiñez, bide-estratan beera.

Urolako tren txikian sartu eta Azpeitian irten. Oso aari-joko zalea nintzan gaztetan, eta egun artan Errenteriako *aari beltzak* jokatzan zuen. Oso ona zan. Nere osaba batek-eta edukitzen zuten. Uraxe ikusi nuen, Loiolara joan aurretik. Makalagatik galdu zuen. Nik ere bai, bost duro. Nere leenengo diru-trabesa ura izan zan. Gero, pardeleko bi bokadilloak jan, eta *tapa-tapa* Loiolara oiñez.

Ate aundi batean sartu nintzan, eta an irten zitzaidan jesuita potolo bat. Esan nion, ba, zertara ni joan eta:

—Ondo zegok. Geiago ere badituk or, dagoeneko etorriak. Aia aldekoak ere bai. Ukuillu aldera joanak

dituk. Gure ganaduzia ere Aiakoa diagu ta. Nai badek, oa oietara, oraindik aparitarako goiz dek eta.

Aurkitu nituen bai ukuillua, eta aiar oiek: Etxenagusiko Pedro eta beste bi lagun. Etxenagusi segaria zan; ona, gaiñera. Aurreko urtean, Iturriozko Trintxa zelaian apustua jokatuta zegoen. Irabazi, gaiñera. Aren aita eta nere aita kinto-lagunak omen ziran. Ezaguera ori zala ta, aste guztian elkarren ondoko lagunak izan giñan.

Esaten ari nintzan ukuilluan aurkitu nituela; eta nola, gaiñera: gazta zaarra jan, ardo gorri ederra porroitik, baserriko ogi erre berria... Ni bi bokadillo jan berria nengoen, baiña ala ere saiatu nintzan. Aparitarako txiliña jo zutenerako, ederki berdinduak geunden gu. Ala ere, joan eta apaldu.

Apalondoan, ala esan ziguten:

—Josi ezpaiñak. Datorren ostiral-arratseko aparitara bitartean ez dago itz egiterik.

Eta ala egin zan.

Nik ez det damurik Loiolan olako aste bat pasa izana. Ez, an zintzotu edo egin nintzalako —gu leen ere zintzoak giñan—, baizik eta jan eta edan oso ondo egin genuelako.

Doiñua: *Tarrapatatan bandoa joaz*

I Gogo-jardunak ziralta eta
ni ere bidali naute,
artean naiko mutiko edo
emezortziren bat urte,
masaillak gorri, begiak argi
ta kalparra tente-tente,
Loiolara astebete.
Nola joan nintzan, zer egin nuen,
laster jakingo dezute...
Santu-itxura artu nuenik
iñork ez dezala uste.

2 Banijoala baserritarren
itxura peto-petuan,
berrogei duro poltsikoan ta
pardel txiki bat eskuan.
Urolako tren motx artan sartu
jai-arratsaldez Zestuan...
Naiago nuen ez juan.
Illuntzerako gazte-talde bat
Loiolako komentuan.
Eta ez dakit nola ez giñan
geiago aldrebestu an.

3 Apalondoan, asteko berri
labur ziguten agertu:
“gazte maiteok, biotz gogorrak
bear ditugu baretu;
mundukeriaz aaztu eta
gogo-jardunez jabetu,
lizunkeriak baztertu;
orain arteko pauso okerrak
zuzendu edo aztertu...”.
Berealaxe konta nituen
zenbait aurpegi aspertu.

4 Ez genuela itz egiterik
errezatzeko ezian,
kapilla polit batean meza
egunero zan goizian,
bazkalondoan kartzeleroen
gisa baratzen pasian,
ordu erdi bat pasian,
antzarren eran filan jarrita
bat bestearen atzian...
Ura bai zala bizi izatea
Jaungoikoaren grazian!



*Loiolako gogo-jardunak, don Manuel Odriozolak eman zizkigunak.
Ni eta nere lagunak. Ni, ezkerretik irugarrengoa goian. 1959.*

- 5 Sermoia gora, sermoia beera,
erabat egunez egun,
belaunikoka oitu gabe ta
zangoak ez ziran bigun.
Eskuak ere fraileen gisa
danoi jarri zitzaizkigun:
latz ziranak legun-legun.
Illunpetako neska-laguntzak
bapo astindu zizkigun...
Ez genekien ekintza franko
beintzat erakutsi zigun.
- 6 Otordurako garaian ere
bazegoen, bai, baldintza:
iru metroko koxka batera
an igoko zan apaiza.
Jakiña, beste guztiok mutu,
berak artzen zuen itza
ta onela oi zan mintza:
Biblia aundi ura zabaldu,
"Jesukristoren bizitza"...
Pake geiago emango zigun
isilik egon balitza.
- 7 Aita Manuel Odriozola
zorrotza bazan zorrotzik!
Aurrean zeukan maai kaxkar arek
ez zuen pasatzen otzik.
Egun batean ertza pitzatu...
Bazuen ukabil motzik!
"Ba al da emen arotzik?"
Batek beatza jaso zion ta
ari "ik ez daukak lotsik!".
Algaraz leertu ez giñanean...
Sekula alako goizik!

- 8 Era orretan pasa genuen
komentuan aste dena.
Berrogei eta emezortzitik
ni neroni gazteena.
Ostiral ilun nabarra eldu,
itz egiteko baimena,
irriparraren sormena.
Sermoilariak "Bertsolaririk
ez al da?" galde urrena...
Antxe iru-lau ez kantatua
daukat egundoko pena.
- 9 Etxeratzeko pardela egin,
larunbat goiz paketsua,
fraile motz batek logelaraiño
eraman zidan mezua:
buru egiten duenarena
joateko abisua,
zai zegoela maisua.
Amar bat ate pasa ta gero
eldu naiz erdi-izua...
"Kaixo, gazte" ta "ongi etorri",
enbusteria osua.
- 10 Jesuita bat gizen-gizena,
bestea igar ta ernai,
ekin zioten: "Bost egunean
egiñak zerate anai;
emen astean gutxieneko
bi egun dizkiagu jai;
soldadutza ez degu nai..."
Blak txandaka ni zirikatzen
galderak egiteko gai,
nik erantzuten niena au zan:
dana bai eta dana bai.

11 Ordu erdi bat inguruz edo,
ez nuen eduki giro,
nere "ordago" baiño gelago
nola zan aien "enbido".
"Leenengo, beintzat, etxera noa;
pentsatuko det astiro".
"Bai, baiña ator berriro.
Karta idatzi, to elbidea".
Gogoan daukat garbiro:
"Santuario de Loyola" ta
"para Padre Casimiro".

12 Zer jesuita izango nintzan
Loiolan sartu banintza?
Zer eratara jasoko nuen
sotanaz munduko aintza?
Zer arraiotan ukatu nien,
bestalde, alperkeritza?
Zer moduz ote dabilta?
Orain aitona eginda nago,
aurrera doa bizi...
Eta oraindik idaztekotan
dago nere eskutitza.

1997ko ekainaren 25ean

Irugarren, 1997ko Lazkao Txiki bertsopaper-leiaketan

Bidepeko iturria

EUSKAL Erriko mendietan, baditugu iturriak: batzuk axalekoak, azkar ugaritu eta azkar urritzen zaiena euren etorria; eta beste batzuk, beti berdintsu dariena.

Betikoak diran oiek, nere ustez, ur garbiak dira eta bearrezkoak: natura-edo deitzen dioten orren oiñarrietako bat.

Ez al zaizu iñoiz gertatu? Bazoaz mendi-egalen batean zear, eta *txor-txor-txor* ur-otsa. "Ara! Nun ote dago?", asten zera inguruei begira, eta bereala nabarituko dezu txakonen batean bere jarioa. Zeure buruari bereala galdetuko diozu: "Au baze-gok, ba, emen? Leku zikin ontan, ain gauza gar-bia, sasi, ote, txaraka, almitz, ta arri tarte ta abar ontan!".

Baiña lasai, lagun. Iturri orren berri askok daki-te: egazti, abere ta gaiñontzeko animaliek. Urrutie-neko eta tokirik txarreneko iturria bada ere, beragandik gertu, bizia duen zerbaít bereala ikusi-ko degu.

Iturri atsegin oietako bati buruz, onako zortzi auek jarri nituen 1997ko uztailléan.

- 1 Bein zugana etorria
ez naiz damutan jarria,
ur-jario pozgarria.
Ni bezelaxe denborarekin
oartu zaizu erria,
zabaldua du berria:
zu ez zerala berria,
bidepeko iturria.

- 2 Mendiaren beekaldetik,
orma-arrien tartetik,
zeuk egindako bidetik,
itsas alderantz irteten zera
burnizko txorro batetik,
gelditzeko ere betik
gabe zoaz arraldetik
edo oroldiopetik.

- 3 Zein garbia zeran sortzez,
irteeratik erortzez,
betiko neurri ta otsez!
Marmar isillez urteetan zear,
egunez eta arratsez,
ez zaude jira arrotzez,
lau arri labain berdotzez,
margotuak ez agortzez.

- 4 Nundik zatoz: Txindokitik
edo nafar alderditik?
Ziur nago: urrutitik.
Zure bidaia burutzen dezu
mendi aundien azpitik.
Dakarzun brillu argitik
nor ez ase ur garbitik
onelako iturritik?

- 5 Goiz, eguerdi, illuntzero,
badezu ainbat bezero
gozatua onezkero.
Zure graduak beti berdiñak:
naiz otza izan, naiz bero,
zortzi-amarren bat edo.
Bat osasuntsu da gero,
zugandik edan ezkerol!
- 6 Zure bertute ta bira
biziarentzat din dira.
Nola biurtu itz bira?
Bide luzean dijoakizu
ur-negarraren zingira,
ii-belarren azpira
kimu bat duten izpira...
Iturri baten dizdira!
- 7 Iturri-lore moreen
ta tximeleta askoren
altzoa nola zeraden,
zugaitzetako txoriek ere
badakite zu nun zauden:
koxkatik mokoa leenen,
paparrak busti ondoren,
begira zein polit dauden.
- 8 Egunak argitu aala,
goiz-agurtzaille leiala,
ta illunabarrak ala.
Orman zintzilik dituzun untzak
aizeak mugi ditzala.
Zuk jaso euren itzala.
Iturritxo zerbitzala,
geroak gorde zaitzala.

1997ko uztaillaren 13an

Errezeta

NI ez naiz medikua. Baiña izan nindeke sendagille neure buruarentzat; gauza askotan, beintzat.

Nik esango nuke jaki izoztuak aal dan gutxien erabili bear ditugula; eta edariak, zer esanik ez.

Irakurle, lurraren emaitzak duen berezkotasuna eta natura berdingabea aal dezunik maizen gogora itzazu; eta ortik aurrera badezu oiñarri aundi bat, zure buruarekin nola jokatu jakiteko.

Lagun, azkar iñoiz ez ezazu jan. Ongi ozkatua, urdaillak ongi erantzun dezaizun urte askotan. Jan eta edan, eserita beti; danetik, gaiñera.

Jaki egosi asko erabili bear da; baiña ondo ego-sitakoa, dana dala. Bestela, urdailerako aize txarra du. Gure errota ondo zaintzeak zenbat balio duen, zaartzaroan jakingo dezu.

Gaur egunean dauzkagun gasezko su oiek, ontziari zuzenean ez erabili, aal bada; burni edo plantxaren bat egon dedilla tarteko. Eta ontzia izan bedi lodia, suaren kolpea senti ez dezan barruan dagoenak.

Barazkiak oso onak dira. Baiña egostean, leenengo irakiñeko ura kendu, ta or azido asko uxatzen dezu.

Leenago nion danetik jateko, eta ez daukat esan bearrik jakien izenak. Goizean asko jatea oso

garrantzitsua da, eta bearrezkoa; batez ere gizonok. Jan-tarte luzeak ez dira onak gure errotarentzat; ta janaldi aundiak, okerragoak. Zartagia asko erabil-tzeko oitura degu euskotarrok; ba, olio garbia erabili.

Aragia, egunero jan bear litzateke zati txiki bat. Ez, egiten deguna: platera betekoa jan, eta bapo.

Askotan esan izan da Euskadin ondo jaten degula eta badakigula jaten. Ez dakit ortan oso ados ote nagoen; asko jaten, bai, badakigu.

Eguerdian berandu bazkaltzeko oitura, nere ustez, ez da ona. Bete-bete egingo ez bagera ere, 12 t'erdietan eseri. Arratsean ere, askotan beranduegi apaltzen degu. Ortik etortzen zaizkigu gauean buel-taka ibiltzeak. Gure errotak lanik gogorrenak egin ditzala oeratzerako. Eta goizean, aoa garbiagoa sentituko dezu. Baita errezago jeiki ere.

Goiz edo eguerdi aldetik, alkohola duten edariak urruti egon bear dute. Bazkaritan, leenengo urarekin asiko bagera ere, gero ardo pixka bat ongi dijoa-kigu. Baita kutxarilla bat whisky ona ere, bazkaldutakoan. Gizaki elduei beintzat. Emakumei ere bai. Orrek urdaillari laguntza txiki bat egiten dio. Baiña kutxarilla bat, e? Ortik ez pasa.

Gauean ardorik edango ez bagendu, goizean damurik ez.

Urari buruz zerbait esan nai nuke.

Adiskide, irakurtzen ari zeran ori, diozut gizarte-an zear izketatu ezazu beti ta lotsarik gabe: alegia, mendi aundien azpitik, batez ere mendi arritsu oien azpitik datozen iturritxo garbi oiek zaindu egin bear dirala gizadiaren onerako. Ur garbiak dira oiek. Eta bear diran tresneriarekin neurtu ditzatela, eta txu-kundu ur oien irteerak, diogun natura ori maite badegu.

Nere ustez, urak eragin aundia dauka bizieta-ko; baiña dijoan ura. Botilletako ori izan ezik, luza-

ro geldi dagoen urik ez edan. Eta, aal bada, aldizka-aldizka urak aldatuan erabili: aldiz ur au eta aldiz bestea eta bestea. Ur baten akatsa beste urak kendu lezake. Eguerdi partetik, ur-tragoxka batek lijertu egingo gaitu. Arratsalde edo bazkaldu eta geroxeagoko tragoxka-pare batek ere errotari bira ematen lagundu egiten dio.

Goazen urarekin oera.

Ni berrogeita amar urterekin asi nintzan botilla erdika bat ura artuta oe ondora eramaten. Nola asi nintzan, edo zergatik?

Begira: askotan bitxikeriz gertatzen dira gauzak. Oraintxe dala sei bat urte, legorte bat zala eta, leenago aitatu dedan ur-iturri oietako batera joaten asi nintzan, beste geiago bezela. Eta apaldutakoan jarruan edo botillan gelditzen zan ur garbi eta argi ura, oe ondora eramateko inbidia sortu zitzaidan. Orrela asi, ta gaur arte, naiz ta etxeko ura dan geienetan. Neretzako, aurkitu dedan sendagairik onena ori izan da; urdaillerako edo barrurako, alegia.

Ez dago asko edan bearrik: goizaldera, tragoxka bat edo bi. Baiña nola epelean dagoen gorputza, bereala pixera dijoa, eta ori da garbitzen duena.

Leenago nion bezela, egunean zear ardo-tanta bat edateko, ondo aurkitzen da gorputza, goizaldeko ur-trago oiei esker.

Gaiñera, logelan beti ura eduki ontzi zabalean. Emen umedade asko degu ta leioa itxita lo egin, atea erdi-zabalik. Baiña beti ura logelan. Neurriko arnasbidea jartzen du. Irrati edo telebista dezula gelan? Oraindik bearrezkoagoa.

Erretzaille generala edo zerala? Ez deritzat ongi. Erretzeko oitura, beintzat, aldatu bear litzateke. Nik neuk ez det oiturarik erretzeko.

Iruditzen zait debekatu egin bear litzatekeela erretzea leku itxietan, jendea dagoen lekuetan,

egongeletan, logeletan, jantokietan, autoetan, trenetan, egazkiñetan, aurrak dauden lekuetan, antzokietan, bulegoetan, lantokietan, ta abar. Baiña ez det esan nai ez dala erre bear. Puru-erretzaille on oiei begira pozik egon izan naiz.

Alegia, bazkalondo batean, ondo janda gero beste zeregiñik ez ta, orduan, balkoi batean edo, atarian edo, jatetxetik kanpo tertulian gaudela, noizbeinka zigarro-puru ona ondo erretzea ez deritzat gaizki. Alderantziz. Erretzea onartzen bada, ondo erre: toki irikian eta dotore, grazia artuaz eta begira dagoena aspertu gabe.

Orri esaten diot nik erretzaillea.

Emakumeok, ez ezazute erre, mesedez. Umeez ez dezatela ke-usairik irentsi. Aurdun bazaude, gutxiago. Eskerrik asko.

Parrandan edo berandu oeratzeak ere akats aundia ekartzen dio gorputzari; batez ere, urteetan aurrera goazeno, begientzat, entzumen eta ezurritzat eta abar. Gaztetan gutxiago akordatzen da. Baiña gutxi egin ezkerero, obe.

Loa zein bearrezko dan nik ezin det esan. Gorputzak lo egin bear du; zortzi bat ordu, aal bada. Logelan telebistarik ez, obe. Oiñetako bustiekin ez egon geldi. Bizkar bustia legortu. Izerdia ateratzea, guttiz bearrezkoa; baiña azkar aldatu. Anka beroak edukitzen saiatu. Buru bustiarekin, goiz-illuntze otzetara ez irten. Aize-korrentan egotea, oso txarra. Umel edo ospeletan, aal dan gutxien bizi. Eguzki aldetik, oso ona. Aizea artzea ta irenstea bearrezkoa da. Auts zaarra, kontuz astindu. Kontuz garbitu, baiña garbitu.

Bein udazkena ezkerero, arroparekin zaindu bearra degu. Gure lantokietan, batez ere. Askotan, gure katarroaldiak geureganatzen ditugu geure paltaz.

Nik oso garrantzi aundia ematen diot bizkar edo lepogaiña ondo estalita ibiltzeari. Baita burua estaltzeari ere. Bein urria ezkerero, buru, lepogain edo bizkarra ez zaintzearekin, neguan asko zigortzen degu geren gorputza. Batez ere, lanean gabiltzanean, leenago nion bezela.

Ni mutiko nintzala, gure baserrian baziran zaarrak: aitaren osaba mutilzaarra, aitona, eta abar. Aien oitura gogoan det betiko. Alegia, komunera zijoaztenean, beti bazuten jertse zaarren bat bizkarretik, bai neguan eta bai udaran izerditan zaudenean.

Jakiña, garai artako baserrietako komunak otzak eta korrentatsuak ziran. Gaurko berogailuak ez ziren orduan.

Gaiñera, erabat gerriko beltza erabiltzen zan orduan. Eta komunerakoan, askatu eta bi edo iru dobla eginda, ura ere lepogaiñean artzen zuten. Gerrikoaren epelak belarri-ertzak goxatu egiten omen zituen. Ezin ukatu.

Neure gisako beste oitura bat badet, neuretza-ko ongi dijoakidana. Lantokian, batez ere, bota edo oiñetako barruan pago-egurraren tximillu biguna, xeea, sartu eta galtzerdirik gabe sasta an bi oiñak. Ankak bero eta kolore gorritz egoteko, ez da orrelako galtzerdirik. Nik amaika aldiz katarrazoa sendatu det oiñera orrekin. Gertatzen dana da gutxiegitan erabiltzen dedala ori. Askotan, alperkeriz orixe egiteko.

Beste bat ere oso ona da osasunerako: nagiak ateratzea. Gorputzak asko eskertzen du alako bigurrikada bat tiratzea. Tarteka arnas luzea artzea ere bai. Ori ere nagia da barrenerako. Doministikua ere nagi onenetako bat da. Baiña ondo egin. Eskertu datorrenean. Ez gorde. Aundia egin. Jarri tente, ankak pixka bat zabaldu, eskuak jaso eta berarekin

batera beera, eta bi belaun gainetan jarri, gerriak golperik senti ez dezan.

Alkarrizketa edo tertulia lasaia ere bearrezkoa da tarteka. Parre-algara, berriz, derrigorrezkoa. Zenbat eta geiago, obe. Gaiñera, gaztetu egiten du.

Eskuak zabalik ibili beti, lasai. Gauean, oean ere eskuak zabalik lo egitea oso ona da.

Lagunarteko billerak bizigarriak dira. Tarteka norabait aparitara joatea ere osasungarria da, koa-drilla dala edo emaztearekin eta abar. Lana bakarririk eskeintzen badiogu geren buruari, au erantzuten digu aldiz: "Ai, ai, ai; ez nauzu maite".

Zerbaitetarako apizioa ere eduki bear da: irakurri, idatzi, abestu, kirola, musika, kartetan, ameslari izan... Baita ekitaldiak ikusi ere. Eta entzun, eta txalotu, iñorena eskertu.

Osasunaren puskak dira oiek danak.

Doiñua: *Udaletxean badut*

I Iñor aolkatzea
oi da errez eta,
nik ere ezarri det
nere errezeta.
Sendagaiak bearko
dira errespeta,
osasuna zaintzeko
gaude bearrez ta.
Orrekin ezin leike
ibili parrez-ta.
Garrantzitsuagorik
beste ezer ez da.

- 2 Zaindu bear badegu
bear dan moduan,
azterketetan jarri
gaitzen orduan;
ta erabakiekin,
berriz, akorduan,
ez badegu sartu nai
naigabe-morduan.
Gure osasun onak
zer balio duan
sarri oartzten gera
galtzen dan orduan.
- 3 Beti ez da oartzten
gaitzen etorreran,
ta okerra orrela
sartzen da norberan.
Neurri batzuk artzerik
balego sorreran,
alare ez litzake
izango soberan.
Esaidazu, naiz xoxak
eduki aukeran,
osasunik ez bada
zertarako geran.
- 4 Osasuna ezin da
erosi ta saldu.
Ortan sendo dagonak
edozer aal du.
Gaur bizkor dana leike
biarko makaldu.
Bide osasungarriak
ditzagun ugaldtu.
Zabarkeriak egin
mereziko al du?
Geronen faltaz beintzat
ez dezagun galdu.

- 5 Osasun itza, aundi
aoetarako,
bai urrutirako ta
berdin bertarako,
txikietarako ta
aundietarako.
Beraren bearrean
gera denerako.
Bera gabe ez gera
gu ezertarako,
ta osasunarekin
edo zertarako.
- 6 Argitzen duen arte
munduan egunik,
osasunagan ez da
faltako zordunik.
Ustez sano gaudenok
bagera zaldunik,
gaixo dagoen batek,
ala uste dut nik,
aitortuko lukeela
noranaira junik
ez dala orrelako
aberastasunik.
- 7 Sano dabillen ura
nunai gozatzen da,
umore aldetikan
ere osatzen da.
Baiña nundikan eta
nora goazen da,
sarritan ez gerade
ortaz oartzen da,
osasuna galtzeko
gera erortzen da,
ta berreskuratzea
asko kostatzen da.

8 Jan-edanak neurrian,
parrandak ere bai,
naiz ta aurkitu arren
denetarako gai.
Sarri geroni gera
geronentzat etsai.
Orrela bagabiltza,
berealaxe "ai".
Ez zaitez egon beste
batek zaintzeko zai.
Bakoitzak bear degu
bakoitzaren artzai.

9 Geure buruak zaintzen
sala bear gera,
ez noizbeinka bakarrik:
goizetik gauera,
lanetik etxera ta
etxetik lanera;
orretantxe bait dago
gure gorabeera.
Baldin ta osasuntsu
aurkitzen bazera,
zorionak, lagun, ta
jarraitu aurrera.

1997ko udan

Garai bateko soro-zelaiak gogoan

NI gaztea nintzan garaian, Euskadiko soro-zelaiak oso dotoreak ziran. Izan ere, dan-danak landu egiten ziralako. Jakiña, garai aietan esku asko zegoen bazterrak garbitu eta lantzeko, naiz ta gaur baiño jende gutxiago izan. Gaur alde-rantziz: jende geiago, baiña bazterrak garbitzeko gutxiago.

Nik ez det esan nai gaurko gizona zabarra danik, gure bazterrak narratsak daudelako. Ez orixe. Bizikerak aldarazi digun zerbait da ori.

Baiña mesedez utzi eidazu ezagutu nituen irudi polit aiek gogoratzen.

Esate baterako, San Jose inguruan, begiratu ingurumarietara eta ikusmenak ematen zuen arte, ikusten ziran arbi-soro loratuak, ori-ori. Zein politak! Usai garbiko loradi aietan, erle-burrunda xumea. Ez zizuten, ez, zizta egingo.

Urte-sasoi artan, martxoan alegia, gaiñerako soro-saillak zeñen legunak ziran! Eta dizdiratsuak! Abenduan ereindako galaziak erne eta berdindu ditu koskak, berdetu ta mugikor da landarea, sokorrak azpiratu ditu, aize-pilpillaren eragiñak eta eguzkiaren argiak brillu eragiten dio gari-soroari. Ori guztia ez det aaztu nai.

Arbi-loreak amaitzerako, piztuko ziran berriz ere loreak, zugaitz fruitu-emaleetan.

Begira arizti eta pagadi garbietara. Osto berri-tzen asiko ziran, egunero margo ezberdiña eskei-ñiaz. Kukua ere, uste det, orain baiño goizago etortzen zala.

Uda-garaian, gure zelaietako belarrak ondu bear ziran. Segaz ebaki txukun, mototsik laga gabe. Eta igartutakoan, zuatzak egin nunai, dotore askoak, tente-tente. Ura ere edertasun bat zan mendiaren-tzat. Orduan ez zan belarra ebaki eta ziloetan, paketeetan, jasotzeko sistimarik.

Zein etxetan zenbat patata erein zan ere nabar-men izaten zan. Zure etxean zer patata-sail dagoen, zuk bezain ongi dakite auzokoek. Loreak ez du balio fruitu-azia izateko bakarrik.

Goazen aurreraxeago. Maiatzean, San Isidro egunean, ereindako arto-aziak badatoz gora, euren babarrun eta guzti. Abuztu aldera, an izango dute euren lore bakarra goiko puntan.

Landare gutxi izango dira, nere ustez, lore baka-rrekoak, artoa bezela. Jakiña: bat eta bera agerian eramán bear.

Baiña leenago berdotz utzi ditugun gari-soroak ezin ditugu aaztu; arto-loreetarako burutu eta elduak bait dira. Ainbat zelai berderen artean ikus-ten ziran gari-soro orixka aldapatsu aiek lurraren berezkotasuna ziruditen. Edozein lekutan zintzili-katzeko argazkia. Txolarreak ugaritzen ziran urte-garaia.

Onezkero artoak eldu dira. Leen, loretan utzi ditugu.

Udazkenean, urrian, egoaizea ere esnatzen da, bere eginbearrak betetzeko. “Egoaize, txoro ori” esan izan da, baiña lurraren emaitzak bere bear aundia dute.

Arto-buruak osatuak dira euren ale gorritz. Aizeak lepoa zimeldu diete eta jarri dira buruz beera. Bizarra igartu zaie, zorroa arrotu. Etxera eramateko moduan daude.

Baliorik aundienera eldu danean, buruz beera dago arto-soro guztia. Zenbat eta arto-buru ohea, orduan eta buru-makurrago. Gizonari ez al dio zer-bait adierazten orrek?

Ea zer berri daukagun baso aldean. Goazen ikustera. Udaberriz zugaitzak edertu zizkiguten ostiak, badatozela beeraka. Udar an egitazko basoa izan dana biurtu da orbeldi.

Berriro, baserrietako besoak bazterrak garbitzera. Orbelak bildu ganaduen ongarrizarako. Gaztain azpiak txukundu. Gaztainak goitik beera datozeneko, lakatzak leertu eta ao-zabalik bait dira.

Ara, ara! Uso urdiñak ere badijoaz, eta badatoz. Zugaiztiko ezkurretan badute zerekin asea, naiz eta dakarten gosea.

Usoak ere orduan gaur baiño lasaiago joaten ziran, gure baso garbietan egonaldia egiñaz. Orduan ez bait zan gaur ainbeste tiro gure mendietan.

Sagastietako sagarrak ere bildu bearke ditugu. Bestela, San Martiñetan sagardo berririk ez degu edango. Barriketako patsak garbitu eta tolare xarra prest jarri.

Pendiz ondoko erleetara ere norbaitek joan bearke du, arbi-loreetatik asi ziran eta. Udako aukera guztiak ere or izan dituzte. Aiek ere prest daukate beren emaitza. Norentzat eta gizonarentzat.

Soro, zelai eta basoak garbi edukitzen genituen garaiak bazuten, bai, beren emaitza, edertasuna eta bizia. Garaian garaikoa, naiz iñoiz ez dan naikoa.

1 Begira zelai-sorora,
ta batez ere leengora,
oroitzapenak gogora.
Lur landuetan ez degu orain
leenago zan ainbat lora.
Gari, arbi ta artora
eta patata ondora
joan dira nora-nora.

2 Euskal mendi ta kaleak
dirade lorezaleak
ta gu aien maitaleak.
Euren bolara igarotzean
agertzen dira aleak.
Naiz asko geran jaleak,
bakan beren seiñaleak,
lore fruitu-emaleak.

3 Paotx, alpapa ta arbi,
arto, babarrun ta gari,
danetikan zan ugari.
Leku aldapak izanagatik,
kentzen zitzaion lurrari,
kontu lore ta fruitari.
Ala ezin da gaur ari.
Eldu bearko gaurrari.

4 Gure lurralde ezkoa,
beroa eta preskoa,
fruitu-emale askoa!
Naiz ta ordeka gutxikoa dan,
nunai txakon ta kaxkoa.
Dana da bearrezkoa.
Osasun-leku bapoa,
au ez da txantxetakoa.

5 Zugaitz leenak ziran batu,
bearretara banatu,
erabat sakabanatu.
Aspaldi ontan, pago-aritzik
ez digu iñork landatu.
Bazter asko larrak artu.
Orretan gera zabartu.
Lurrikan ez da aldatu.

6 Zenbat aldakuntz bizitzak,
eguneroko ekintzak!
Saiatu bear bakoitzak.
Baiña ez aaztu gureak diran
mendiak eta zugaitzak,
kentzen dituztenak gaitzak.
Amairik ez duten aintzak,
gure lurraren emaitzak.

1997ko udaberrian

Leengo baserri-atariak

LEENGO baserri-atariak eta oraingoak ez dira berdiñak, nere ustez.

Gaiñera, nere pentsakera garbi jarri nai det. Ez dakit inoiz bereizten ditugun basetxea eta baserria. Nik esango nuke basoko edo oso mendietako aterpeak etxolak dirala: basa-etxeak. Beraz, baserria basa-erria da.

Basa-erri orren ataria nola zan gure gazte-garaian?

Begira: etxea bera arriz eta bustiñez zutitua oi zan. Teillatu zabala, bisuts aldetik luzeago zala, sarrera, sukalde eta lo-lekuak goizeko eguzki aldetik izango zituen. Ezingo degu esan leengo zaarrak jakintsuak ez ziranik.

Etxe batzuek ormako arria agerian zuten; beste batzuek, buziñez igurtzi eta kare txuriz margo-tuak. Ate-leioak, orlegiz. Eta, nola ez, gaiña teilla gorritz. Beraz, txuri-gorri-berdea, gure ikurriñaren berdiña.

Etxearen biran, zugaitz jaki-emaleak: udare, txermen, muxarka, gerezi, intxaur, aran, piko, miz-pira... Gaiñerako zugaitz jakiñekoak ere bai: intsusa, artea, lizarra, urkia, ta abar.

Baserriaren babesleak ziran zugaitz-mota auek danak. Neguan, aize indartsua euren adarretan

asko mantxotzen zan. Udaran ziran ortik onera-koak: itzala nai aiña, fruitu gozoak aukeran, kardantxulo-kabiak orrien izkutuan, txori-kantak egun osoan, txolarre edo ormatxoriak etxe-ormako txuloetara... Aien kiri-koroa goiz osoan ez zan isiltzen.

Idi-pare gorria, ukuilluko atean uztartuta, gurdi edo lerari erantsita, norabaiteko prest. Aitona, sega pikan, *tinki-tinka*; amona, billobatxoren bat magalean zuela, atariko aulkian eserita. Txakur txikiren bat ere an ariko zan salatari. Oillo loka ere badijoa txita-talde ederrarekin. Auntza, kate luzez, sasi-puntak moztu ditzan... Irudi aiek gogoratzen, ezin aspertu.

Gutxi gorabeera, orrela zan leengo baserri-ataria. Oraingoak ez daude berdin. Bizikerak aldarazi ditu, traktore eta gainontzeko tresnerietara.


Doiñua: *Aizak, i, mutil maiñontzi*

1 Basetxetik baserrira,
gero andikan errira,
garai bateko lasaitasunak
biurtu erdira.
Iraganari begira
asko-asko omen dira...
Begi-biotzak naikoa sarri
badoaz mendira.

2 Leena ez zan doaiña:
bazuen bere ordaiña;
garai batean naikoa lanak
baziran or, baiña.
Leen indarra, orain maiña,
edonorrek inork aiña...
Biak onartu bear ditugu:
ura ta oraiña.

Leena bezain gordiñik
ta gaurkoaren berdiñik
bai ote dan ta izango al dan
galdera egiñik.
Iñortxo ez da dakiñik,
dakigun aiña jakiñik,
ondoena noiz bizi izan geran
antzeman eziñik.

1997ko udan



Nere jaiotetxea: Izeta; ni angoa naiz eta. 1998.

Nere biotzari bertsoan

1 Kaixo, motel; zer moduz,
lagun zaar jatorra?
Iretzat bertso batzuk
badizkiat, orra.
Biotza izeneko
puska mugikorra,
ni nauk ire taxia,
i nere motorra.

2 Or abil *tipi-tapa*,
ta ni *piri-para*,
beti neri bultzaka
abillen kikara.
Elkarrekin goaztik
milla tokitara.
Bizitza zaramagu
ni nora, i ara.

3 Gu biok ez gaituk bat,
biok ez gaituk bi.
Ik ni eramaten nauk
eta nik, berriz, i.
Noiznai senti izan aut
baita ere adi.
Ni nauk ire itzala,
i aiz nere argi.

4 Aizak, i, aspaldian
ninduan oartu.
Esan egingo diat,
ez zak gaizki artu.
Nekatzen geranean,
ezin alkar artu:
zergatik ni mantsotu
eta i azkartu?

5 Taupadak minutuko
dituk irurogei.
Tartekako sarrera
txiki oriek gei.
Kontuz ibili nadin
egin nai didak dei...
Motel, zuzenagoak
ez zaudek beste sei.

6 Ez diat zurrutatzen
alkohol askorikan,
oraindik gutxiago
tabako kerikan,
bearrezko kiloak
ta ez besterikan...
Ez dek esango gaizki
zaintzen autenikan.

7 Berrogeita amasei
urte gutxienez
ik ere badaduzkak
nik baditudanez.
Aitzaki aundirikan
ez diat eman, ez;
eskertu bai, ordea,
merezi dekanez.

- 8 Maitasuna omen dek
biotzaren lana.
Ortan lasai, txikito,
gezurra dek dana.
Ortarako tresna bat
bazekit badana
eta jakin ezak nik
ere badedana.
- 9 Iñoliz bertsotan edo
asten naizenean,
aitzakiak zeaztik
ire izenean.
Or ez diat pakerik
lortzen azkenean,
i turboa sartuta
jartzen aizenean.
- 10 Bertsolari txarra nauk;
bai, bai, balitekek.
Motel, ori lan zaila
aspalditatik dek.
Ik sosegu apur bat
jarriko baiakek,
askoz bertso obeak
botako nizkikek.
- 11 Txantxetan nabillela
bazebilkit antza.
Eskertzen diat nigan
dabilkiken dantza.
Degun urte-pilloa
altza eta altza.
Iregan tinko zegok
nere esperantza.

12 Nik ez aut ondatuko
nerez zabartuta.
Itza ematen diat
guztiz eskertuta.
Goazen aurrera elkar
ondo uztartuta,
oraindikan zeregin
asko zeukagu-ta.

1977ko azaroan

Ogei urte dituen irrati zaarrari

GURE etxean, garai artan, telebisio espainiola baiño geiago istimatzen zan irrati, euskal abesti, soinu, bertso ta abar. Ez bait zan euskal telebistarik.

Irrati orrek zenbat aldiz bildu ote giñuzen bere aurrean sendi osoa, kirol-emanaldi bat zala, edo bertso-saio bat zala, edo ta neure bertsoak ziranean, berriz, *uufa*, belarriak ere bertan sartuta? Ala ere, ez ziran ondo entzuten.

Ogei urte ta aurrera dijoa, baiña oraindik ere an dago. Batzuetan, ezin bereizi irrati bat dan ala karreteretako motorra dijoan. Ipar-aizea danean, ireki azkar leioa; bestela, kirriki-karraka bakarrik entzungo dezu. Egoaizea bada, berriz, leioa itxi eta gaiñera pertsianak beera jeitxi. Frigorifikoa edo otz-gaillua zabaldu ezkerro, mututu. Egurra sartuta egi ten dan leengo sua pixten bada, garbi-garbi entzuten zaio...

Esaiozu amonari ura bota egin bear dala. Bai, *joujou!*, ezta pentsatu ere. Berak ekarria bait da.


Zortzi bertso auek jarri nizkion, bere egoera batzuk agertuaz.

1 Ogei urte dituen
radio zaarrari
begira eman diot
irriparrari,
gizajo arek zeukan
itxura txarrari,
maillatu, euli-kaka
eta abarrari.
Ala ere, ari
zitzaidan kantari.
Nork ulertu ari?
Zarata ugari...
Bertso-sorta au egin
diot opari.

2 Destornilladore bat
du gaurko antena,
gaiñetik beera zasta
aal den tenteena.
Bera du elduleku
edo ta kertena;
dirudi banderilla
sartuta zezena.
Berea etena,
autsi ziotena...
txulotik ertena,
Ori ez da dena.
Entzun irugarrenak
dizuetena.

3 Marka berekin dauka,
ta da "Super Atlas".
Jirako plastikoak
erreta plantxaz.
Iñun burnirik badu,
aiek erdoi-mantxaz;
atzeko tapa, berriz,
lotuta txarrantxaz.
Kablea arantzaz
an dago arrantzaz;
teklak ezin altxaz
bere azken atsaz...
Ala ere, maite det;
ez nabil txantxaz.

4 Leenago transistore
ta orain trepeta...
Bere eginkizunak
ondo beteta.
Izanez ere, badu
kinto bat urte ta,
ezingo degu bota
zaarra dala eta.
Bere konponketa
edo azterketa
egiteko beta
bear genduke ta,
berria ere beti
ez da obe ta.



Loiola Erri Irratiak antolatutako sariketa batekoa. 1967ko apirilaren 15ean, Azpeitiko Zelaitxo antzokian. Ezkerretik eskubira, ni, Enbeita, Gorrotxategi, Kortatxo eta Muñoa. Abel Muniategi falta da. Guztira, sei giñan.

5 Gaiña trastez jantzita
ere noiz edo noiz
ikusi izandu det
arrats eta goiz:
aspirina, kartera,
arkatz urdin-marroiz,
guraizak, jostarratza,
titare ta botoiz,
poxpolo ta jaboiz,
kanika ta baloiz,
orrelako galoiz,
kafetera iñoiz...
Arrantzaz dagoela?
Bai, bai; arrazoiz!

6 Etxeko txoko danak
alaitua bera,
beti alde batera
edo bestera:
balkoi, ganbara, komun,
logela, baiñera...
Zaartu danean, *plasta!*,
apala gaiñera.
Argazki batera
nai nuke atera
daukan adiñera,
dagon apaiñera,
destornilladore ta
guzti, gaiñera.

7 Zenbat eskeiñi digun
ogei urte ontan,
albiste, kirol, soñu
eta bertsotan!
Arantzazuko mezak
jai-gosalondotan,
illunabarretako
errosariotan,
amona askotan,
erantzun asmotan,
aurtxoren bat lotan
zuela besotan...
Oroitzapen-pilla det
radio ortan.

8 Ainbeste urte pasa
ondoren lanean,
zatar-itxura artu
du azkenean.
Baiña asti pixka bat
dadukadanean,
egingo diot txoko
bat oroimenean:
egur onenean
bera barrenean,
ta aldamenean
bertsoak ere an,
etxeak duen leku
politenean.

1997ko abuztuan

Irugarren saria, Errenterian,
1997ko Zapirain anaiak bertsopaper-leiaketan

Pinto txakur txikia

1 Txakur txiki pinto bat
eduki genduan,
umea zanetik lau
urte inguruan.
Udaran baratzen ta
etxolan neguan,
jolaserako zein
polita zeguan!

2 Bi belarri tenteak
eta isets motza,
txuri-beltx, ille-legun,
polit aproposa.
Arentzako dena zan
jentuza arrotza.
Atari-zaintzaillea,
etxekoen poza.

3 Ez zuen atzeratzen
ikara ta lotsak.
Nabarmenak beraren
salaketa-otsak.
Bazekien aguro
erakusten ortzak.
Jostalaria baiña
agiñak zorrotzak.

- 4 Baratzen egin nion
alanbrez ixtura.
An egoteak eman
oi zion tristura.
Salto eginda pasa
oi zuen *rist* ura,
dozen erdi bat kilo
ez bait zan pixura.
- 5 Bazekien bereizten
onak ta gaiztoak,
nola ez!, eskaleak
eta ijitoak.
Iru-lau katu ere
bazitun itoak...
Zer egin bazekien
txakurtxo pintoak.
- 6 Zaindu-bear apur bat
du txakur emeak.
Ark ere bazituen
berotu-uneak.
Alajaiña, non egin
zizkigun umeak:
aundi ta potxoloak,
ez txiki ta meeak!
- 7 Txakur txiki pareta,
orra bi bixki on.
Bikote ari naiak
eskeintzen zizkion.
Baiña bere esneak
buka zitzaizkion,
eta lagun batzuei
eman genizkion.

- 8 Gero jarri zitzaigun
oso mugikorra.
Bere izatez ere
zan nunbait pizkorra.
Gaixo ari etorri
zitzaion zigorra:
auto batek jo zuen,
eta gaizki; orra.
- 9 Atzea arrastaka,
ezer ez aurrean,
isilik eta geldi
zegoen lurrean.
Ume koxkor mordo bat
bazuen urrean,
“agur, Pinto” esanaz
erdi negarrean.
- 10 Artu det furgonetan
urrutiratzeko,
ta atxurra ere bai
Pinto bukatzeko,
mendira eramanda
bizia kentzeko...
Baiña ausardirik ez
buruan jotzeko.
- 11 Iritsi nintzanean
baserri batean,
“emen utzi bearko
aut”, nere artean.
Bazegoen arentzat
ainbeste tarte an,
estalkizko baratzan
tomate tartean.

12 Urrengo goizean dei
bat bidali nuan.
Umetxoren bat jarri
zan telefonuan.
“Txakur pinto bat da or,
baratza onduan.
Aitari esaiozu
jotzeko buruan”.

13 “Aitak ikusi du, bai,
ta ala esan du:
‘ziur autoren batek
duela zapaldu’.
Amonak besoetan
sapaira eraman du.
Esnea eman dio
ta pixka bat jan du”.

14 Gure txakur pintoa
guk geneukan aintzat.
Berekin amaitzea
gutziz zail egin zat.
Polit ura olaxe
utzi nuen iltzat.
“Txakurra berriz ere
izango dek beintzat”.

15 Pasa ondorenean
gutxienez illa.
Telefonoak *tirrin*,
orra dei pilpilla:
“Iltzat laga uana
ez zeukagu illa.
Noiz etorri bear dek
txakurraren billa?”.

- 16 Ez nekien zer esan
entzun nuenian.
“Beraz, bizirik iraun
ziguk, azkenian,
iltzekotan utzia
baratz barrenian”.
“Ik jo ezin eta nik
nola joko nian?”.
- 17 Billa egun berean
joan nintzanean,
furgonetaren otsa
entzun zuenean,
nunbaitetik agertu
zan zorionean,
salto eginda laster
zala barrenean.
- 18 Pintoren etorreran
familiko poza!
Berriz zenbait ume zan
ingurura osa.
Ongi etorri arek
nor ez zuen goza?
Orra arantzatikan
sortu zan arrosa.
- 19 Baratzako ixtura
genion aunditu.
Alan da ere arek
bai erraz gainditu.
Naiz ta erren pixka bat
zitzaion gelditu,
ura sare barruan
ezin zan kabitu.

20 Txakurrak barrurako
ez dira jaioak,
baiña bildurra artu
zuen arraioak.
Auto bat ikustean
Pintotxo iaioak,
ark egiten zituen
korrika-saioak!

21 Gelditu zitzaion, bai,
eskarmenturikan.
Zartakoa ez zuen
izan alperrikan.
Ez pentsa ura autoz
fiatzen zanikan.
Etxeko furgonetaz
bakar-bakarrikan.

22 Ta nola amaitu zan
bere abentura?
Norbaitek ostu zigun
txakur polit ura.
Arrezkero askotan
datorkit burura
eramango zutela
gustoko lekura.

1997ko urrian

Eskerrak Joxe Ramon Zubimendiren xixkeroari

BETI bezela eguna lanean bota ta gero, illunabarrez Urnietara nihoan bein etxe batera, alzariren bat egiteko neurriak artzera. Soiñean buzoa, belarrian lapitza, eta eskubiko patrikan metroa. Eta furgoneta.

Lasarteko sarreran, Michelin pare ortan, beste furgoneta bat pasa zitzaidan aurrera. Nerekiko nion: “Kontxo! Joxe Ramon Zubimendik badik olakoxe furgoneta”.

Eta nun asten da auto ori, tiki-taka, ango argia ta ango kiñua, ta mantxotzen. Gaiñera, gidariak leiotik beso luze bat atera eta gelditzeko kiñuak egiñez. Baztertu ta leenengo bera gelditu zan eta gero ni.

Or irten zan gizon aundi bat furgonetatik. “Aibala! Joxe Ramon bera dek eta”. Poztu nintzan, alajaiña!

Etorri zitzaidan ondora eta betiko bere euskaldun izaera jatorrean:

—Kaixo, Nikolas. Jainkoak gau on daizula.

—Baita zuri ere, gizon.

—Aspalditik nentorren zure atzetik. Furgoneta ezagutu det, eta barruan zerori zerala ere oartu naiz. Eta pentsatu det ementxe aurreratu eta gelditzea; endredorik ematen ez badet, beintzat.

—Alderantziz, gizona. Zu bizitzan gauza onak egiña izango zera, eta orain bat geiago.

Orrelako agurra egin genion elkarri.

—Orain ere sagardotegiren batera bazoaz, seguru asko.

—Ba, ez ba. Urnietaraiño noa, altzariren bat egi-teko neurriak artzera. Ta sagardotegira bai al dakizu zergatik ez nijoan? Bakarrik naizelako.

Ukabil aundi arekin bere petxua joaz:

—Emen badezu beste bat. Gaiñera, sagardozalea.

Laster egin genuen tratua.

—Ni ordi erdi barru emen naiz. Zein tokitara?

Eta Joxe Ramonek:

—Emendik gertuen, Zubietako sagardotegia daukagu; ajolik ez bazaizu.

—Ondo. Aurrena joaten dana zai egon.

Ni joaterako an zegoen Joxe Ramon, sagardotegi atarian zai, prestu asko. Laster giñan barruan. Eta lekua artu. Bai baso bana ere eskuetan. Jendea zegoen eta upeletik urruti samar eseri giñan, baiña ondo.

Asi giñan bakaillaua pipar berdeekin, metro bat inguruko ogi-barra... Idiaren txuleta aundi bat parrillan etzanda jarri ziguten, eta "kaixo, motel". Orduan guri pipa joko zigunik?

Ni ez ezik, Joxe Ramon bera ere jatun ona da. Eta ala esan zidan arraio ark:

—Beno, Nikolas. Kontuak gero esango ditugu. Au beroa orain dago, ta merezi du ortzak astintzea.

—Baita. Arrazoi dezu, gaiñera.

Ura zan kriski-kraska! Uste det okotzak ere engrasatu genituela. Upelari bisita sarri, jakiña. Otarraka bat intxaur ere jan genuen. Gazta erdi ingurua ere bai. Masail-puntak zerbaitek margotu zizkigun, beintzat.

Jendea pixka bat bakandu zanean, ala zion nere lagun orrek:

—Nikolas, bederatzi zenbakia daukan upela on-txuena iruditu zaigunez, bere aurreko maia utsik geratu da, ta goazemazu. Antxe gertutik joko dizkiogu trago batzuk.

Ri-rau altza ta an goaz. Trago batzuk? Bai. Azkena geratu arte. Oartu giñanerako, jende dena alde egiña. Upela bederatzia zala? Bai, to! Numero 4 zeukan ark.

Atzera begiratu genuen, ta sukaldean an zeuden bi gizon besoak gurutzatuta, guk noiz alde egingo zai. Bertakoak, alegia. Beraietara joan eta zorrak ordaindu genituen.

Irteterakoan esan nion:

—Joxe Ramon, beste trago bana: azkenekoa. Gaiñera, au debaldekoa izaten da.

Basoak eskuetan artu genituenean, nagusi aiek ez dakit zer pentsatuko zuten: geratu egingo giñala edo. Argiak itzaldtu zizkiguten. Ordurako, upelaren ondoraiño joanak giñan.

—Oraintxe adarra jo —esan nuen.

Eta Joxe Ramonek:

—Ez estutu, Zendoia. Nik xixkeroa badet.

Eta, prist eta prist, azkenekoan piztu zuen. Urrutiko su-festak ziruditen. Naiko argia. Basorik beteenak aietxek izan ziran.

Irten atarira. Gaua, presko-preskoa, izarratua. Bazterreko arbustoak bedeinkatu. Korneta-pare bana ere jo genuen.

Elkar agurtu, ta azken itza:

—Ez dedilla azkenekoa izan au, e! Adio.

Nik askotan esaten det urtean parranda bat edo bi bakarrik egiten dituen jendearekin ezin dala iñora joan. Beti azkena etxera.

Gure sagardotegiak euskal
girokoak diralako,
noizbeinka joan-etorriren bat
ere komeni dalako,
illuntze artan Joxe Ramonek
aurkitu nindualako,
upelen jiran ordu batzuek
pasa genituen bapo.
Jan eta edan egin genuen
komeni zan bi alako.
Erretzaillea zalako,
patrikan xixkero plako.
Kostata irten zitzaion txispa;
eskertu egin bearako,
bestela debaldeko tragorik
ezingo genuelako.

2 Maaian eseri giñan orduko
piparra ta bakaillaua.
Gose apur bat ere bai, noski;
ura zan, ura, ri-raua.
Gero txuleta bati ozkaka,
autsi bearrean aua;
upeletara bisita sarri,
bidea zegoen laua...
Bizkaitar aiek ala zioten:
"au dok gero sagardaua!".
Upel inguruan gaua.
Ura zan ango araua.
Uste det aaztu genituela
bijilia ta baraua,
ez bait giñuzen ongi bereizten
bederatzia ta laua.

3 Ez dago gaizki parrandatxo bat
sano-sanoa noizbeinka.
Ainbeste egin bear ez bada,
ara: zakurran lukainka.
Gu bezelaxe joandakoak
ziran zortzi-amar maaika,
zipotzetatik zurrutaka ta
txuletezurrei aginka.
Leendabizitik elkarri zuka,
gero asi giñan ika.
Orduko matematika
genuen txalamatika.
Batzuek bertso zaarrak kantatzen
ta besteak ika-mika...
Zertan gabiltzan ez dakigula
bagabiltza, bai, amaika.

4 Sagardotegi jator artan zein
ederki ospa genduan!
Arrezkeroztik emen dabilkit
kaskotik ezin kenduan.
Bai, Joxe Ramon, burutazio
ederra izan zenduan.
Beste bat ere txerta dezagun
leengo urteko menduan.
Iaz penakin laga genuen
txoko gozo bat degu an.
Joango gera neguan.
Etxera goiz urrenguan.
Erretzeari ez laga, beintzat;
jarrai-jarrai zuk leenguan.
Xixkeroakin gogoratzeko,
orixe esan nai nuan.

1997ko irailean



Uztapide eta Lasarte (Aiako naparra), Donostian, Trinitadeko plazan. Uztapideren ondoan egun bat pasatzea zer zan probatu gabeak ez daki.

Uztapideri argazkia

NI ezkonberria nintzan. Nere emaztea Elorrixako izebari laguntzera joana zan bertara. Nik ere an pasa nuen igande ura: 1968ko San Sebastian eguna.

Uztapide aundiarekin egun bat pasa nuen nik ere: egun uraxe. Bera eta Lopategi ziran bertsotan. Bazkalondoan ni ere jarri ninduten kantuan. Iru edo lau bota nituen nola-alakoak. Uztapideren ondoan egun bat pasatzea zer zan probatu gabeak ez daki. Arek atsegindu egiten ziñuzen.

Bazkari-denboran, bere ateraldi batek erakutsi zidan edozein moduz ez zala jardun bear berarekin izketan. Lopategi gaztea zan eta gizon ikasia. An ari zan amar minutu inguruan bere adierazpenak egi-ten. Jende guztia isilik, berari entzuten. Alegia, mundua noiztik dan, eta gizona tximuarengandik datorrela eta abar. Manuel zaarra ere isilik; baiña alako batean esan zion:

—Ba, zu ere olakoxea zera, ba, ta sinistu egin bearko da.

An bukatu zan Lopategiren sermoia.

Illunabarrez, etxerako bidea artu bear zuten. Orduan ez zan automobil-biderik; nolabaiteko bide-aldapa eta lokaztiak baizik. Beeko kamiñero-etxera jeitxi bear; an bait zuten Lopategiren automobilla:

Diane-6 urdiña. *Xaar-bide* zuan izena kamiñero-etxe orrek. Ximon kamiñeroak ere gurekin pasa zuen eguna. Eta berak lagunduko ziela beera jeixten. Nik ere laguntzera joan nai ba, artu giñuzen esku-argiak. Uztapide farola arekintxe oitua zala ta, besteok linternak-edo bagenituen. Aterkiak, maki-llak...; zer ez zizkiguten eman.

Bertsolariei agur egiteko erronomia gelditu, eta jende guztiak:

— Aio, Manuel. Urrengo arte.

Abiatu giñan beeruntz. Atariko ordekatxo artan bazan lokatza. Beste ateraldia an zuen egiña Manuelek.

Lokaztiaren asieran gelditu zan eta galdetu zuen:

— Emen nundik degu pasatzeko lekurik onena?

Eta Ximonek erantzun:

— Emen dana berdiña: dana txarra.

— Orduan, goazen erdi-erditik —esan zuen Uztapidek, asko pentsatzen egon gabe.

Jeitxi giñan *Xaar-bidera*, ta an oiñetakoak aldatu-eta egin zituzten bertsolariak.

Ximonek:

— Pasa sukaldera danok.

Etxekoandre Angelitak su-ondo epela zeukan. Eta alako giro txarrean, istimatzen da ori.

Gogoan daukat nola sukalde erdian eseri giñan. Bost jarraulki atera zituen Ximonek: lautan esertzeko eta bosgarrena erdian. Etxekoandreak, erdiko aulkira, platerkada gailleta eta botil ardoa.

Berriro Ximonek:

— Benga, Manuel. Asi bertsotan kamiñeroari.

Bi aldiz esan bearrik ez zegoen. Nik ez dakit gizon aren etorria nun buka zitekeen. Zortziko txi-

kian jardun ziran. Ni ez nintzan ausartu aien tartetan sartzen. Lopategi ere oso ondo jardun zan. Jardungo ez zan, ba, arekin; bertso bakoitzean bide bat irekitzen zion-eta!

Uztapideren bertsoaritza nolakoa zan gau artan oartu nintzan. Bere makilla eskuan zuala jardun zan ura, eserita, bertsoan; eta txapela aitonen erara jantzita.

Bere bertsoetako bat gogoan det:

Kamiñero guztiak
alperrak zerate:
egun guztia aitzur-
-kerten kontra tente;
kolperik egin gabe
zortzi ordu bete,
argatik gertatzen da
ainbat azidente.

Noizbait altza giñan; nik nai baiño leen.

Nagusi-etxeakoandreak agurtu ondoren, ala esan zion Uztapidek Lopategiri:

— Jon, badakit Bizkaia emendik gertuago daukazuna; baiña gaurkoagatik eraman nazazu Oiarzuna.

Doiñua: *Mutil koxkor bat*

I Era ontako Uztapide zan
nik ezagutu nuena:
asi bertsoan borondatez ta
bat bezelaxe dozena,
erantzun bero arrazoitsuak,
naiz bera izan otzena,
itza betetzen zekiena ta
jokabideetan zuzena,
erri txikien maitale aundi,
erriak maite zuena.

Txapela beti baserritarren
gisara jazten zuala,
aundi-txikian gizon arrunta,
gorputzez ez zan argala,
aurpegiz luze, belarriz aundi,
euskaldun apal-apala,
asi zirika ta erantzuna
ez zan izango makala,
berezko bertsolaria eta
enbor oneko ezpala.

Bazekien ark aguro jartzen
jarri zeiken seriona,
errespetua eta itzala
ageriko zitzaiona,
txoro-usairik gabekoa ta
gizatasunez gizona,
nabaitzen bazun maai inguruan
gutziz bertso-giro ona,
arrats osoan jarduteko ere
ajola gutxi ziona.

Garai aietan nork ez zuen nai
gure Manuelen kide?
Bazuen naiko erremate ta
sobran ainbeste izpide.
Bota albotik danbarra eta
rau artuko zizun aide,
bi ormetara gozo bota ta
bera zure adiskide...
Lagun, ez dakit zekizun baiña
orixe zan Uztapide.

1997ko iraillean

Xalbadorren nortasuna

NI ere entzuleetako bat nintzan egun artan, 1967ko txapelketa nagusiko azken saioan, Donostiako Anoeta pilotalekuan.

Bertsoak entzuteko egarri aundia zegoen orduan. Batetik, txapelketa batek duen arrakasta eta, bestetik, Lazkao Txiki goraka zetorren garaiak ziran. Eta asko ta askoren ustea zan Uztapide aundiarekin txapela jokatu zuela; oraindik geiago, txapeldun ere izan zitekeela. Entzuleen burutan ori zegoen egun artan.

Baiña neurketa neurketa izaten da nunbait; eta an, esaten dana neurtzen da.

Juraduaren erabakia ematerakoan, Alfonso Irigoien mikrofonora gerturatu zanean, jendearen isilla. Aurkezleak onela dio:

— Uztapiderekin txapela jokatu duena izango da... Xalbador.

Zegoen isiltasunetik an sortu zan otsera dagoen aldea da gasolina-ontzi batera poxpolo bat piztuta botatakoan gertatzen danaren antzeko zerbait. Tiro-sirena bat zirudien.

Egun ura eguraldi lainotsu edo illuna bazan ere, arratsalde artan baziran odei-etenetan eguzkiaren agerraldiak ere. Zazpi minutu inguruko txistu edo oiualdia izan zan.

Nion bezela, eguzkiaren argialdietako bat zazpi minutu aietan bazan.

Xalbador, bere jarraulcian beera begira: oraintxe, anka bat beste belaun gaiñean zuela; oraintxe, bi ukalondoak belaun gaiñean, bi eskutako beatzak elkarri gurutzatuta; oraintxe, gora begiratualdi bat; oraintxe, aldamenekoari begiak zuzendu...

Bere sudur luzexka arekin, okillaren zenbait egoeratako antza artzen nion. Bai. Okilla zugaitzean *kas-kaska* txuloa egiten ari danean tarteka beera begiratzen duenean edukitzen duen antza zeukan orduan Xalbadorrek.

Txaketa illun bat zuela uste det. Alkandora txuria, oker ez banago. Txapela, artzai aundiek jazten duten moduan jantzia. Aurpegi zorrotza, sudurrez luze, antziñako euskaldunen argazki berbera... Eguzkiak ere argi egin zigun, Xalbadorren irudia edo Xalbador nolakoa zan ikusteko.

Luze eta lotsagarri iruditu zitzaidan une aspergarri ura.

Naikoa asti izan zan jendearen jokaera ikusteko. Geienak, zutik; askok, esku bat goian; beste askok, beatzak aoan, txistu aundiago jo zezaten; pilla batek, "fuera, fuera"; beste asko ta asko, txalo ta txalo; leenengo txistuka asi ziran asko, gero txaloka... Baiña, bai, luze zijoan.

Alako batean, Irigoienek Uztapideri esana izango zion altza eta mikrofonora urbiltzeko mesedez. Bai azkar altza ere gure Manuel! Baiña mantso-mantso an dijoa mikrofonora. Zarata baretzen, gutxitzen, isiltzen...

Asi da Uztapide bere agurra egiten. Leengo isillera biurtu da pilotalekua. Amaitu du Uztapidek bere agurreko bertsoa. Irigoienek:

— Xalbador, etorri mesedez.

Ura txalo-zaparrada!

Ireki du aoa Xalbadorrek. Ura isiltasuna! Euli bat pasata ere, entzungo zatekeen bere ego-otsa. Bi eskuak atzean elkarri josita, txapela uste det kas-koraiño joan zitzaiola.

Tenteka antzean, begiak itxita bezela, jipoituta-ko txakurra berriz nagusiarengana buru-makur joan oi dan bezela, Xalbador, txistu jo zion jendea-ren aurrera.

Benetan, bizitzeko unea. Badijoa bere bertsoa-ren erdialdera. Jendeari egoneziña sortu zitzaion. Errudun ez zala ere irten zitzaion gure Xalbadorri. Zutitu da jendea, ekin zion txaloka... Ez zuen bertsoa amaitzerik izan.

Mikrofono aurrean an dago gure Xalbador ar-tzaia, geldi, mugitu ere egin gabe. Pixka bat txaloak baretu zirala iruditu zitzaionean, jarraitzen du bere bertsoarekin. Esan bazuen, esan zuen:

Txistuak jo dituzute baiña
maite zaituztet oraindik.

Zer zan ura! Eskutako miña egin arte txalotu genuen. Ura zan jendeak barkamena eskatzea, eta bide batez eskertzea gizon aren dintasuna.

Beti esan oi da: Xalbadorri txistu jo zitzaion. Ez dakit zergatik aitatzen dan txistua bakarrik. Xal-badorri txaloa jo zitzaion txistua baiño geiago. Xal-bador iñoiz ez zan txalotu egun artan baiño geiago.

Zer egin genion Xalbadorri arratsalde artan? Ba, auxe: bere onrari txistuz muzin egiten asi, eta gizon aundi ta bertsolari aundi biurtu genuela zazpi mitututan, beti, beti, betirako.



Uztapide eta Xalbador, 1967ko txapelketan. Xalbador iñoiz ez zan txalotu egun artan baiño geiago.

Iparralde, Gipuzko,
Bizkai eta Napar,
txapelketak giñuzen
denok erakar.

Leendabizitik utzi
nai zindugun bakar,
argatik asi giñan
txistu joka azkar,
itsusi ta zakar,
gizalegez kaskar.
Geroak zer dakar?
Aitortzera nakar:
erakutsi zigula
maitatzen alkar.

2 Isekazko txistuak
lan on baten truke.
Lotsik bagenu, senti
bear genuke.
Gaizki egin bazenu,
galdetuko nuke:
entzulego arek zer
epai ote luke?
Zure ainbat neke
txalotuaz merke,
nora joan gindezke?
"Au ezin liteke".
Berandu eldu giñan
barkamen eske.

3 Gizatasun leialen
erreñu-itzaia,
olerki sakon sorle,
zintzo alaia.
Zirrara-eragille
beti zure gaia,
egokiago iñor
ezin da mintza ia.
Ez ziñan lasaia,
bazenun nun saia:
ardien artzaia
eta bertso-zaia...
Krabelin-ale aiek
dute usaia!

4 Xalbador, bazenitun
irri-umoreak,
disimuluz egiñak
ta dotoreak.
Baiña gai sakonetan
askozaz obeak,
belarritan dauzkagu
aien zaporeak.
Olerki-aleak
ziran landareak.
Ai, zer ondareak
ditugun zureak,
gero ta ezeago
dauden loreak!

1997ko iraillean

Manuel Lasarte bertsolaria: Aiako naparra

NIK zortzi bat urte izango nituen, leen aldiz ikusi nuenean, gure garai bateko baserriko ate ondoan; ain zuzen ere, Izetan, Santa Ageda eskean.

Gaua zan. Egun artan, bruxadun talde batzuk ibili ziran atez ate. Gu, mutikoak, atearen barrengo aldetik eta zirrikitutik begiraka eta entzuten egoten giñan. Gurasoak limosna emateko irekitzen zutenean ikusten genituen zein ziran edo nolakoak ziran.

Soiñujole eta bertsolari bat oi zuen talde bakoi-tzak. Gaueko talde ark bazuen beste tresna bat ere: dultzaiña. Baiña nik ez nion dultzaiñari belarririk jarri; bertsolari gazte aren abotsari eta ate ondoan zuen errespetoari eta beera begira antzean, erdi-serio, erdi-irrapartsu, kantatzeko era arixe baizik.

Aiako naparra deitzen zioten; orduan Aian bizi bait zan. Artean, ogei, ogeita bat urte izango zituen. Bertsolari-irudi utsa. Atzo ikusi banu bezela gogoan det, makilla-buruan bi eskuak elkarren gaiñean zituela, burua pixka bat makurtuta, nola kantatzen zuen. Ura zan, ura, argazkia!

Nik badakit, ziur, bertso-inbidia edo bertsolari-gogoa une artan piztu zitzaidala. Ondorengo egu-netan jarduten nintzan atariko atearen aurrean,

tente jarri, makilla eskuetan nuela, aitonaren txapela buruan eta sukaldeko esku-zapia lepoan bilduta, bertsolari gazte aren itxura eta boza egiten, neure ustez.

Orrela pasa zan bolara ura. Geiago ez nuen nik Aiako naparraren aztarnik eduki urteetan. Neretzako galdua zan.

Andik bederatzi edo amar urtera, bertso-saio baten berri irakurri nuen orrialderen batean. "Zeruko Argia"-n edo uste det zala. Ordurako, Basarri eta Uztapideren entzute aundia nuen. Neretzako, Jainkoak ziran aiek biak. Dena dela, beintzat, orrialde artan zetorren Eibarko bertso-saio bateko berri: bertsolari batzuen izenak, eta abar; baita bertso batzuk ere. Onela zioen:

Orain, Uztapidek eta Manuel Lasartek kantatuko dute. Lasarte izango da tabernaria: ardoa saltzen duena. Eta Uztapide, ardoa gustatzen ez zaiona. Biak egin bear dute teman.

Bien arteko bertso-saioa zekarren. Lasarteren bertsoetako batek onela erantzuten zion Uztapideri. Bertso erdia daukat gogoan:

Badakit ondo zu nola zeran
zurrutero bat apaiña;
beti tabernan ikusten zaitut,
ez zaizu gustatzen baiña.

Nik ori irakurri nuenean: "Aibala! Uztapiderena baiño ohea uan eta", arrituta; ez bait nuen uste orduan Uztapidek baiño bertso oberik beste iñork kanta zezakeenik. Zein ote zan Manuel Lasarte ori jakin nai nik. Ordurako amazapi bat urte banituen.

Andik urrengo igandean, Urdanetara mezetara joan nintzanean, galdetu nion Otzarretari (au Urdanetako bertsolaria zan):

—I, Otzarreta. Ik ezagutzen al dek Manuel Lasarte zein bertsolari dan?

—Ezagutuko ez diat, ba! Aiako naparra.

—Eeee?

—Bai. Oso ona dek, gaiñera. Basarrirekin eta Uztapiderekin kantatzen dik.

Ura zan pozaldia! Bai bait nekien nunbait ikusita entzungo nuela. Neretzat, bertsolari ura bi aldiz jaio zan. Manuel Lasarte.

Bai. Ondorengo urteetan, gizon ari entzuten bertsoa asko bizi eta gozatu nuen. Neuk ez dakit beregan egarria ala gosea zer nuen. Baiña zerbait bai. Neretzat, bakarretako bat zan.

Andik gerora, berriz, nun entzuten dedan ia-ia illean eritetxean zegoela eta gure Lasarte naparraren bertsoak amaituak zirala. Pozaren ondorengo penak nere gisara irentsi nituen. Gerora, zurrumurruak asi ziran Lasarte sendatzeko moduan ote zan ere. Baiña urdailla kendu ziotela eta ez zuela jaterik izango, eta likido utsarekin bizi bearko zuela, eta orrelako kontuak. Nere artean, “bizi dedila beintzat!”.

Andik denboretara, irratiz Basarriri entzun nioenean Lasarte berriz plazan kantatzeko moduan izango zala, gutxixeago bada ere, irugarren aldiz jaio zan neretzat. Leengo abots eder ura pixka bat jeitxita, baiña leengo lepotik burua: nik leen aldiz ate ondoan ikusi nuen mutil gazte ille beltz ederreko ura, dexente aldatua. Baiña neretzako naikoa. Geroztik, zenbat saio entzun ote diot, Uztapiderekin eta Agirrerekin eta Lazkao Txikirekin eta abar?

Bein irurogei urte ezkerro, pixkaka bertsoari lagatzen joan zan, osasuna ere juxtu ta; ori lan gogorra bait da. Ondorengoegi leku egiten jakin du egoki asko.

Baiña ez pentsa lo dagoenik. Liburu ederrik atera du eta ari da ateratzen. Aitonatxo igar bat

ortxe bizi zaigu Orion, zarata aundirik atera gabe. Baiña, badaezpada ere, ez eman beatza aora *kask* ez dizula egingo ta. Bitxo ederra dago, ba.

Manuelekin itz egin dedala, esateko, ia oraintsu arte ez det iñoiz itz egin. Nere ametsa izan da beti berarekin izketaldi bat bada ere egitea. Bete berria det amets ori. Aurten, Kontxako bandera Orioko arraunlariak irabazi zuten egunean, Pello Esnal eta biok Oriotik joan-etorri bat egin genuen. Eta an aurkitu genuen Bar Loretxu deritzan ostatuan, bazter batean jarrita, kafetxo bat artuaz, begiak argi asko zituela. Lau ordu pasako izketaldia egin arren, Manueli ez zitzaion konturik amaitu. Asko eta ondo itz egitea zailla dala esan oi da. Bai zera! Manuelek egin zuen. Ni naiz lekuko.

Artu, Manuel, zure ikasle onen zortzi bertso txiki auek, Orioko balearen doiñuan.

1 Ezagutu zintudan
nik ate onduan,
bertsolari artetsu
on baten moduan.
Amaika bertso-lore
botea munduan,
ez dakit doai orrek
azkena nun duan.

2 Zuk txapel azpikoa,
azkar ta argia.
Bera lanean jartzen
ez zera nagia.
Kantari ta idazten
akatsik gabia,
ondorengoentzako
ispillu garbia.

- 3 Bapatean polita
zure bertsogintza,
xasta ziria eta
arrazoizko itza.
Gaiñera, errespetoz
oi zerade mintza...
Nun aurkite liteke
guzti orren giltza?
- 4 Entzuten zaitugunok
gerade amesti:
zure abots gozoa
belarrira ezti,
musikaren antzera
datorkigu beti.
Badirudi zuretzat
ez dala garesti.
- 5 Errimaz eta neurriz
mailla aberatsa,
esaldi bakoitzari
piperra ta gatza,
txukun jorratu dezu
bertsoen baratza.
Argatik irten zaizu
lore-pilla latza.
- 6 Guk zure loreak nai;
ori badakizu.
Aparteko doaia
norek eman dizu?
Ez ziñan ibiliko
plazetatik izu,
osasunak geiago
lagundu balizu.

7 Kolore txarrarekin
zabiltz kilik-kilik.
Badirudi zaudela
beti erdi illik.
Zure espirituan
bertsoak zintzilik,
guri kantari zaude,
naiz egon isilik.

8 Urteak irurogei
eta bederatzi.
Azal ximurtu arren,
Manuel, ez etsi.
Beera ez begiratu
ta goiari eutsi.
Bisitatuko zaitut
biar edo etzi.

1997ko Gabonetan

Basarri bertsolari aundia

Bertsolaritza mugiarazi
zenuen urte zailletan,
baju ikusten zenuelako
leen zebillen sailletan:
ia bakarrik erabiltzen zan
sagardotegi soilletan.
Euskal loreak nolatan utzi
orren beeko mailletan?
Plazarik plaza eramán zenuen
leen nion garai aietan,
era berean sartu barnera
eliza aundienetan,
zer pentsatua jarri sarritan
ango sermoigilleetan...
Mezu-emale garbia, berriz,
irradi-leiatilletan.
Jendea erruz bilduarazi
bertso-saio takilletan.
Mendu berria itsatsi ere
bai bertso-jartzailleetan.
Izlari aulagoak baziran
apaizetan ta prailletan.
Beti goraka joan zían zu
arranpal ta eskailletan.
Baziñalako bagera eta
dedilla urte pilletan.

1997ko Eguberritan



*Basarri, Zarauzko Munoa plazan.
Baziñalako bagera eta dedilla urte piletan.*

Andoni Egaña bertsolaria gaur egungo txapelduna

L 993KO abenduan, Euskal Errriko bertsolari guztien txapeldun atera zan Andoni Egaña. Nere uste apalez, ondo jantzitako txapela. Biaramonean, Egunkaritik bertso bat eskatu zidaten bertarako, Andoni Egañari buruz. Bai pozik bidali ere onako au:

Basarri zaarra bizi dan arte
oiñordeko berri oni
zorion-itzak erabiliaz
erritar gisa armoni.
Izar auekin bertsolaritzak
iñoiz ez dauka agoni.
Etorkizuna jarria dio
makiñatxo bat txanponi.
Atzoko belodromoko artaz
arriturikan nago ni.
Gozatu ederra emana digu
ainbat andra ta gizoni,
telebistatik begira ziran
millaka aiton-amoni.
An giñan Praisku Mari pillá bat,
zenbat Joxepa Antoni.
Irabazi ta jantzi dekena
orain goza zak, Andoni.

Lau urte geroago, au da, 1997ko txapelketan ere, bera izan da txapeldun, bigarren aldiz. Baiña, oraingoan, neure liburuxka onen bidez bidaliko det bertsoa Euskal Erri osora.

Bertsotan ago, begira negok...
Au barrengo apurua!
Txapelketako ekiñaldia
iñoiz ez dek segurua.
Guztiz argazki mugikorra ta
ala eure ingurua:
begiak larri, brilluz jantziak,
lanean gogor burua;
etenik gabe belodromoan
euskal txaloen tuurua;
bein ioana: uztai beltzera
iristea elburua;
zearretara kea boteaz
beatzetako purua...
Balio aundiz gorantz daramak
garaikurren kopurua.
Ire bigarren txapelarekin
ixten diat liburua.

1997ko Eguberritan

Aurkibidea

Itzaurrea	7
I. OROITZAPENAK	9
Mutil-koxkorretan	11
Izeta	13
Dotriña	15
Zarauzko Azken Portu	19
Arreba txikiagoari besoa autsi	21
Beor gorria	23
Oillo loka	25
Txakur beltza	27
Txerri iltzea	29
Txorizoak egiten	31
Akerrari lepoa autsi	33
Zapoa gizendu	35
Mandioko tiroa	37
Don Daniel, gure apaiz luzea	39
Agur mutikotako garaia	42
Gazte-garaia Urdanetan	43
Patxi aundiari	47
Azpeitira joan nintzan lanera	53


II. BERTSO-SORTAK	59
Txaketa berria	61
Izeta-goiko Joxerramun galdu, txikia zala	69
Aitaren eskutitza, urruti dagoen alabari	75
Aitonaren urteak	79
Nun da komuna?	85
Moskitoa	91
Marino Lejarreta	95
Suerte txarreko eiztaria	101
Goizean behin	107
Zarauzko moilla	111
Udarregi	117
Migel Indurain	123
Sakabi	127
Veneziako usoak	135
Aitona ferira, amona aserre	143
Atotxan	149
Xoxokumea	155
Jaio dizetela biak	161
Ogeita zazpigarren bandera Oriora	165
Illunabar eder bati argazkia	169
Bein batean Loiolan	173
Bidepeko iturria	180
Errezeta	183
Garai bateko soro-zelaiak gogoan	192
Leengo baserri-atariak	197
Nere biotzari bertsoan	201

Radio zaarrak, ogei urte	205
Pinto txakur txikia	211
Eskerrak Joxe Ramon Zubimendiren xixkeroari	217
Uztapideri argazkia	223
Xalbadorren nortasuna	227
Manuel Lasarte bertsolaria: Aiako naparra ...	233
Basarri bertsolari aundia	239
Andoni Egaña bertsolaria, gaur egungo txapelduna	241

“Bidepeko Iturria” Bertso Sorta
Oiartzunen 1998 - Don Manuel Lekuona
bertso paper leiaketan 2. Saria



“Jaio ditezela biak” Bertso Sorta
Zarautzen 1998 - Santa Marina
bertso paper leiaketan 1. Saria



Nikolas Zendoia

Beranduko birigarroa da Nikolas Zendoia bertsolariaren lehenengo liburua. Batik bat bertsoz osatua datorkigu eta, tarteka, hitz lauz ere txukun eta gozo ondua. Bi atal ditu: lehenengoan, umetako eta gaztetako oroitzapenak eskaintzen dizkigu, begiratu alai; bigarrean, berriz, oraintsuko bertso-sailak, batzuetan umorez, bestetan serio, beti egoki.

Liburu honetan ditugu, bertso eta kontakizun bakoitzcan, Zarautzen bizi den aiar honen hiru ezaugarri nagusiak: hitzaren dohaia, arte-sena eta sentiberatasuna. Hiru ezaugarri, kultur ondare baten ispilu, eta sakoneko giza balore batzuen adierazpen bizi eta bizigarri.

Izango ahal dugu, berandu baino lehen, Nikolasen bigarren liburua dastatzeko aukera.

Pello Esnal



Zarauzko Udalaren
laguntzarekin argitaratua

ISBN 84-89080-66-6

